

Inklusiorako II. Plan Operatiboa 2025-2026

Inklusiorako V. Euskal Plana 2022-2026



AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. POLITIKA ERAGILEAK	6
3. PROIEKTU ESPERIMENTALAK	34
4. INKLUSIOKO IBILBIDE MISTOAK	65
5. ALDAKUNTZARAKO JARDUKETAK	75
6. AURREKONTUAREN BALIOESPENA	86
7. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA	90

1. SARRERA

1.1. AURREKARIAK

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 129. artikulua ezartzen du euskal herri administrazioek modu ordenatu eta koordinatuan planifikatu beharko dituztela helburuak eta helburu horiek lortzeko beharrezko tresnak Inklusioaren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan, lehentasunezko jarduketa-ardatz komunak zehazteko eta lurralde autonomiko osoan babes-maila homogeenak sustatzeko helburuz. Eredu autonomikoan, Inklusiorako Euskal Planaren bitartez hezurramitzen da planifikazio hori, eta plana prestatzeko prozesuan euskal herri administrazio guztien zuzeneko parte-hartzea bermatu behar da, bai eta sektorean esku hartzen duten beste erakunde publiko eta pribatu batzuen ere.

Xedapen horiek betetze aldera, 2022ko abenduaren 27an, Inklusiorako V. Euskal Plana (2022-2026) onetsi zuen Gobernu Kontseiluak. V. Euskal Planak hainbat hobekuntza ekarri zuen aurreko planekin alderatuta; horien artean, nabarmentzekoa da bi mailatan antolatuta dagoela:

- Alde batetik, esparru estrategiko bat du, bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eskudun administrazioen jarduna bideratu behar duten eskuhartze- eta jarduketa-ildoak eta -gidalerroak modu koordinatuan eta globalean jasotzeko helburua duena. Esparru estrategiko hori, funtsean, aipatutako Inklusiorako V. Planean zehazten da. Plan horrek erronkak, helburuak, orientabide orokorrak eta espero diren emaitzak definitzen ditu.
- Bestetik, bi urtez behingo hainbat plan operatibo espezifiko; herri administrazioak horiek burutzeko konpromisoa hartzen dute, orientabideak gauzatzeko eta/edo aipatutako esparru estrategikoan jasotzen diren helburuak lortzeko. Horrela, 2023ko ekainean onetsi zen inklusiorako lehenengo plan operatiboa, 2023-2024 urteetan indarrean egongo zena.

I. Plan Operatiboaren indarraldia amaitu ondoren, 2025eko martxoan abiarazi zen 2025-2026 aldirako inklusio-plan operatiboa prestatzeko prozesua; dokumentu honetan jasotzen da plan horren edukia.

1.2. PLANA PRESTATZEKO PROZESUA

Ikuspuntu metodologikoari dagokionez, ondorengo erakunde publikoei eskatu zitzairen II. Plan Operatiboa (2025-2026) prestatzeko prozesuan parte hartzea:

- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Giza Eskubideen Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Arrasate, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Donostia, Durango, Eibar, Erandio, Errenteria, Galdakao, Gernika, Hernani, Irun, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Gasteiz eta Zarauzko udalak.

2025eko maiatzaren 6an helarazi zitzairen informazio-eskabidea aipatutako erakundeei, ondoren adierazten diren arloei dagokienez aurreikusten dituzten jardueri buruzko informazioa baliozkotu, aldatu edo gehitu zezaten:

- Politika eragileak –Eusko Jaurlaritza bakarrik–.
- Proiektu esperimentalak –I. Plan Operatiboan jasotzen diren proiektuen luzapena–.
- Ibilbide Mistoak –ereduaren diseinuaren esparruan–.
- Aldakuntzarako jarduketak.

Uztailaren 28an jaso da herri administrazioen azkeneko ekarpena. Entitate sozialen parte-hartzeari dagokionez, hirugarren sektoreak kudeatutako proiektu esperimentalak II. Plan Operatiboan sartu dira, 2025eko ekitaldirako finantzazioaren luzapena jaso dutenak.

1.3. EGITURA

Sarrerako azalpenen ondoren, plan operatiboak aurreikusten dituen jarduteko hiru mailen arabera egituratzen da plana:

- **Politika eragileak.** Eusko Jaurlaritzako sailen politika publikoak; honako sail hauenak, zehazki: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila; Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila; Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila eta Osasun Saila. Sistema eraldatzeko eta V. Planean ezartzen diren helburuak lortzeko eragile edo azeleratzaile gisa jarduten duten neurriak dira.
- **Inklusiorako proiektu esperimentalak.** Erakunde publikoek zein entitate sozialek sustatutako programa esperimentalak, ikuspegi berezia eta berritzailea eskaintzen dutenak eta, emaitza positiboak lortuz gero, beste arlo edo lurralde batzuetara hedatu daitezkeenak.
- **Inklusioko konpainia-ibilbide mistoak.** Bazterkeria soziolaboraleko egoeran edo arriskuan dauden pertsonen zuzendutako ibilbide mistoetan laguntzeko proiektu esperimentalak, Ongizate Estatuen sistemen artean koordinatutako edo sarean antolatutako sektore arteko arreta eskaintzeko helburuz.

- **Aldakuntzarako jarduketak.** Herri administrazioek –Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek–, 2025ean eta 2026an, Planaren helburuak lortzeko ezarri asmo dituzten neurriak, aurrez egin izan diren jarduketekiko aurrerapen edo hobekuntza bat ekarriko dutenak.

Bosgarren kapituluan, aurreikusitako lau jarduketa-mailen aurrekontuen zenbatespen bat xehatzen da – politika bultzatzaileena, programa esperimentalena, ibilbide mistoena eta aldakuntzarako jarduketena–, eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

Azkenik, seigarren eta azken atalean, II. Plan Operatiboaren jarraipen eta ebaluaziorako aurreikusitako mekanismoa deskribatzen da.

Plan operatiboa esparru estrategikoarekin bat etor dadin, Inklusiorako V. Planak ezartzen dituen 5 Ardatzen arabera egituratu dira edukiak:

- **1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzea.** Enpleguarekin, diru-sarreraren bermearekin, gizarte-zerbitzuekin, hezkuntzarekin, osasunarekin eta etxebizitzarekin lotutako irismena eta diseinua hobetuta, herritar guztiei behar bezala erantzuteko helburuz eta, batez ere, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen.
- **2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea.** Pertsonen sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera eskubide sozialak baliatzeko aukeran gertatzen diren era guztietako arrakalak murriztea ahalbideratuko duten politika konpentsatzaileak garatuta.
- **3. Ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, antolamendua eta gobernantza.** Zerbitzuen prestazioan eta politiken antolamenduan berrikuntza txertatuta, sektore arteko koordinazioa eta inklusioaren arloan esku hartzen duten eragileen antolamendua hobetzea.
- **4. Ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa.** Herritarrek inklusio-politikan duten erantzunkidetasuna bultzatzea, bazterketa-egoeren aurreko komunitatearen erantzunak sustatzea eta pobrezia- eta desberdinkeria-aren inguruko herritarren sentsibilizazioa areagotzea.
- **5. Ardatza. Inklusiorako politikak lurraldearen arabera ezartzea,** inklusio-politiken lurralde-antolamendua hobetuta, tokiko eta eskualde mailako sareak garatuz, eta premia sozioekonomiko handienak dituzten udalerrak eta auzoen premietara bideratutako politikak aplikatuz.

2. POLITIKA ERAGILEAK

Politika eragileak dira “aldakuntzarako akuilu” gisa jarduten dutenak, hau da, sistema eraldatzeko eta/edo V. Planean ezartzen diren helburuak lortzeko bultzatzaile edo azeleratzaile izan nahi duten neurriak.

Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek enpleguaren, diru-sarreraren bermearen, gizarte-zerbitzuen, etxebizitzaren, osasunaren, justiziaren edo hezkuntzaren arloetan abian jarritako politika publikoak dira eta, beraz, erkidego mailan ezartzen dira. Ondorengo koadroan, bigarren plan operatibo honetarako hautatu diren 16 neurriak jasotzen dira, baita neurriok Planaren zein ardatzi erantzuten dieten ere. Koadroaren ondoren, neurri bakoitza deskribatzen duen fitxa bana dago.

	territartasun-Desberdin- eskubideak eria-arraka- salizatzeko au-lak murriz- kera	Berrikuntza, koordinazioa eta gober- nantza	Parte-har- tzea, komuni- tatea eta go- bernantza	Inklusio-politi- ken lurralde- tasuna
Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legea hedatzen amaitzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	•	•		
Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa zabaltzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>		•		
Inklusiorako Etika sustatzeko Estrategia antolatzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	•	•	•	
Lanerako prestakuntza-eredua <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	•			•
Langileentzako enplegurako pizgarrien sistema birdiseinatzea <i>Eko- nomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	•			
Talentu-aniztasuna enpresetan txertatzea, etorkinak gizarteratu eta laneratzeko ibilbideen bitartez <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	•	•	•	
Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko neurriak: Kontzilia Ko- munitatea eta Kontziliatzaileak <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	•	•		
Haur Bermearen Euskal Estrategia 2030 <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	•	•	•	•
Urritasuna duten pertsonentzako bizimodu independenterako ere- dua <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	•	•	•	•
Etterik Gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia hedatzea <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	•	•	•	•
Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eredu berria <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	•			
Harreragune: etorkinei eta errefuxiatuei gizarteratzen laguntzeko zerbitzua <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>		•		
Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren finantzia- zioa, Etxebizitzaren Aldeko Itun Sozialaren esparruan <i>Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila</i>	•			
Aukerak: Presoei orientazio espezializatua emateko sistema <i>Justizia eta Giza Eskubideen Saila</i>	•			
Arreta Soziosanitarioko Euskadiko 2025-2030 aldirako Estrategia <i>Osasun Saila</i>	•	•	•	
Osasun Mentaleko Estrategia garatzea. <i>Osasun Saila</i>	•	•	•	

1. Neurri eragilea	Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legea hedatzen amaitzea	
Deskribapena	Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen funtsezko helburuak dira, alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen estaldura eta prestazio ekonomikoak baliatzeko aukera hobetzea eta, bestetik, lan-bizitzan eta arlo sozialean moldatzeko eta kalitatezko gizarte- eta enplegu-zerbitzuak baliatzeko zailtasunak dituzten herritarrei horretarako aukerak hobetzea. Legea onetsi zenetik, hainbat aurrerapen egin da (173/2023 Dekretua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onesten duena; 5/2024 Dekretua, Inklusiorako Erakunde Arteko Batzordea arautzen duena; sistemaren irisgarritasuna hobetzeko neurriak garatu dira, etab.) 2025ean eta 2026an hainbat alderditan aurrerapenak egitea aurreikusten da, hala nola: prestazioaren tramitazio elektronikoan; Hirugarren Sektoreko entitateak prestazioak jasotzen dituzten pertsonen ordezkari gisa transakzio elektronikoak egiteko gaitzea; egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen identifikazio elektronikoa; prestazioak eskuratzeko modua sinplifikatzea; eskabiderik egiten ez duten pertsonen (<i>non take up</i>) haien eskubideak balia ditzaten bultzatzea...	
Izaera eragilea	14/2022 Legea ezartzeko, beharrezkoa da hura arau bidez garatzea; eta garapen hori neurri bultzatzaileztat jotzen da, diru-sarrerak bermatzeko sisteman hobekuntza-alderdi ugari hartzen baititu. Gobernuaren 2024-2028 aldirako programako 65. Konpromisoaren parte da (Bazterkeriari aurre egiteko, diru-sarrerak bermatzeko sistema finkatzea).	
Helburuak	Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osoaren funtzionamendua eta, batez ere, prestazio ekonomikoena, euskal gizartearen barruan aurreko esparru arautzailea onetsi zenetik gertatu diren aldaketa sakonetara egokitzea.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubideak baliatzeko aukera	2. helburua. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea, huraosatzen duten prestazio guztien egokitzapena, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz
	3. Ardatza. Berrikuntza, koordinazioa gobernantza	19. helburua. Sistemaren koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak bultzatzea
Ardura duen entitatea	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.	
Onuradunak	Bizitza duin bat garatzeko eta erabat gizarteratzeko behar beste baliabide pertsonal, sozial, ekonomiko eta lan-baliabide ez duten pertsonak. Legeak genero-ikuspegia txertatzen du 3.g artikuluan: "Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, euskal politika publikoekin bat etorritik, desberdinkeriak desagerrarazten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorra lortzen lagunduko du eta, zehazki, pobrezia eta bazterkeriak emakumeengan duen eragin handiagoa prebenitzen eta arintzen.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	- DBEren eta BGDSren titular eta onuradun kopuruaren bilakaera. - DBEren eta BGDSren nominen zenbatekoaren bilakaera.
	Emaitzak	- Prestazio-sistemaren estaldura-tasaren igoera - Pobrezia-tasen murrizpena
Aurrekontua	2025	399.200.000 (DBE), 200.400.000 (BGDS)
	2026	Zehaztu gabe

2. Neurri eragilea

Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa zabaltzea

Deskribapena	Besaldi, Enplegu- eta inklusio-politikak ebaluatzeko organoa, Diru-sarrerak Bermatzeko legearen (2022) eta Enpleguari buruzko legearen (2023) sortu zen, organo publiko independente gisa. Besaldiren eskumen-esparrua da enplegu- eta inklusio-politiken irismenari buruzko ebaluazioa, ikerkuntzaren eta berrikuntzaren sustapena, ebaluazioari buruzko prestakuntza eta informazioaren zabalkundea. Besaldi 2024an hasi zen lanean, eta 2025. urte hasieran, dagoeneko bere lehenengo urteko plana eta lehenengo proiektu estrategikoa (2029rako planteatzen dena) zituen; www.euskadi.eus/besaldi atarian daude eskuragarri.	
Izaera eragilea	Ebaluatzeko eta ebaluazioa datuen eta ezagutzaren gobernantza sustatzeko duen eginkizunagatik eta legeriak ematen dizkion agintaritza independenteko ezaugarriengatik da organo eragilea Besaldi. Bere jarduerak enplegu-politikei eta inklusio-politikei neurri berean eragin diezaiei saiatzen da Besaldi	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	3. Ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, antolamendua eta gobernantza	20. helburua. Ebaluazio, prestakuntza, berrikuntza, behaketa eta ikerkuntzako tresnak bultzatzea
Helburuak	Besaldik bost ildo estrategiko ezarri ditu: - Zuzeneko kudeaketa publikoa gauzatzea eta perfektzionatzea, Sailak eta Jaurilaritzak emandako laguntza optimizatuz. - Enplegu- eta inklusio-politiken arloan ebaluazioak eta beste lan batzuk elkarrekin egitea eta, aldi berean, horretarako ezarritako gaitasun teknikoa indartuz eta areagotuz joatea. - Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioa egiteko eredu metodologikoa eta ebaluazioa instituzionalizatzeko eredu bat hautatzea, erreferenteekin hitz eginda. - Enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioan eta ebaluazioaren kulturaren sustapenean inplikaturako edo interesaturako eragileen komunitatea eraikitzea, lankidetzak-hitzarmenen bitartez. - Enplegu- eta inklusio-politiken hartzaile diren herritarrekin komunikazio irekia, gardena eta parte-hartzailea edukitzea, enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioa eta politikena euren hobetzeko helburuz.	
Ardura duen entitatea	Besaldi Eusko Jaurilaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egiturari atxikita dago, nahiz eta ez den sailaren barruan integratzen.	
Onuradunak	Besaldik bost multzo nagusitan banatzen ditu bere onuradunak: sektore publiko langileak, hornitzaileak, erreferenteak, eragileak eta herritarrak. Aintzat hartzen da genero-ikuspegia	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	- 2025erako lan-planean aurreikusitako jardueren % 60 egin da, eta aurreikusi gabeko jardueren % 20.
	Emaitzak	- 2026rako, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemari buruzko lehenengo txosten globala prestatzea
Aurrekontua	2025	1.005.219 €
	2026	Zehaztu gabe

3. Neurri eragilea

Inklusiorako Etika sustatzeko estrategia bat antolatzea

Deskribapena

Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen zuzendutako inklusio-politika publikoak garatzerakoan, bereziki zaugarriak diren kolektiboak eragiten dieten alderdi etiko garrantzitsuak daude. Geroago eta anitzagoa den gizarte honetan, beharrezkoa da etika sozial bat garatzea, konplexutasunaren onarpenean eta sistema publikoen arreta jasotzen duten pertsonen parte-hartzean eta haien duintasunarekiko errespetuan oinarrituko dena.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusio Sozialerako Legearen 81. artikulua ezartzen du Inklusiorako Euskal Planak modu koordinatuan eta globalean jasoko dituela bazterkeria-egoeran dauden pertsonak gizartera daitezen lortzea helburu duen eskudun administrazioen jarduna bideratu behar duten eskuhartze- eta jarduketa-ildoak eta -gidalerroak. Euskadin inklusio-politikak zuzenduko dituen gobernantza etikoko erakunde-kultura bat sortze aldera, hausnarketa-proiektu bat garatzea planteatzen da, etika sozialaren ikuspuntutik, sistema eraldatzen lagunduko duena, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonenganako arretan printzipio etikoak txertatzeko testuinguru apropos bat sortzeko helburuz.

Izaera eragilea

Inklusio-politiken diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan ikuspegi etikoa txertatzeak erakunde- eta antolakuntza-ereduak eraldatzen lagun dezake, V. Inklusio Planean jasotzen diren hainbat ardatz eta helburu estrategikotan eragiten duten dimentsio etikoak aintzat hartzerak bideratuta, hala nola bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen herritartasun-eskubideak baldintza berdinetan baliatu ahal izatea; laguntza-prozesuak garatzea, arreta ematen zaien pertsonen duintasuna errespetatuta; edo pertsona horiek beraien bizitza-prozesuetan zein komunitatean eragile aktibo gisa parte har dezaten bultzatzea.

Bestalde, pobrezia- edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonen politikan, gizartean eta kulturen parte hartzeko dituzten oztopoak dira Euskadin inklusioarekin eta bazterkeria sozialarekin lotutako faktore nagusiak, eta ez dira behar beste jorratzen.

Aldi berean, oztopo horiek desagerrarazteak, pertsona horien gaitasunei balioa ematea eta parte har dezaten aukera eta espazioa emateak bazterkeria-egoeren aurreko sentsibilizazio soziala indartuko luke, eta eragina izango luke pobrezia- eta bazterkeriaren aurkako politiken pertzepzio sozialean, indarra hartzen ari diren diskurtso matxistei, arrazistei, gorrotoari eta xenofobiari aurre eginez.

Helburuak

Inklusiorako Euskal Kontseiluaren barruan, etikarekin lotutako gaiei buruz hausnartzeko espazio bat ezartzea, ondorengo helburuekin:

- Erakunde-erlaketak bat sustatzea, inklusio-politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan dimentsio etikoak aintzat hartzerak bideratuta egongo dena, hartzaileen ikuspegia ere jasota.
- Lan sakonagoa egitea, erabiltzaileek autonomia lor dezaten eta beraien bizitza-prozesuetan eta komunitatean eragile aktibo gisa parte har dezaten.
- Etikaren ikuspegitik egokiak diren jokaerak sustatzea Herri administrazioaren eginkizunetan.
- Euskal herritarren bazterkeria-egoeretan, aniztasuna eta konplexutasuna aintzat har daitezen zaintzea.

	- Aurreko hausnarketa-prozesua egin ondoren, jarduteko ildoen proposamen bat prestatzea.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubi-deak baliatzeko aukera.	1. helburua. Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarte-laguntza emateko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuen eta prestazioen esparruan.
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea.	14. helburua. Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea.
	3. Ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, antolamendua eta gobernantza.	21. helburua. Bazterkeria sozialarekin lotutako arazoaren sektore arteko lana bultzatzea, zerbitzuak koordinatzeko eta integratzeko formulak sor daitezen lagunduz, mikro (esku-hartze indibiduala), meso (erakundeak) zein makro (ongizate-sistemak) mailan.
		27. helburua. Erabiltzaileek zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten sustatzea.
	4. Ardatza. Eran-tzunkidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa.	28. helburua. Herritar guztiek gizarte-politiken diseinuan parte har dezaten bultzatzea. 29. helburua. Jarrera diskriminatzaile guztiak prebenitzea eta haiei aurre egitea (adinkeria, arrazakeria, xenofobia, islamofobia, aporofobia...).
Ardura duen entitatea	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Kolaboratzaileak: Gizarte Zerbitzuak; Enplegua (Lanbide –Euskal Enplegu Zerbitzua– eta Garapen ekonomikorako tokiko agentziak); Hezkuntza (Lanbide Heziketako ikastetxeak eta HHE); Osasuna (Lehen Mailako Arreta eta Osasun Mentala); Etxebizitza (Open Gelak – hurbileko bulegoak hiri-berroneratzeko eremuetan– eta Etxebizitza Sozietate Publikoak (udal sozietateak).	
Onuradunak	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.	
Lurralde-eremua	Inklusio-politiken hartzaileak. Herritarrak, oro har.	
Adierazleak	Prozesua	- Etikaren inguruan hausnartzeko espazioa ezartzea, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren barruan txertatzeko. - Deskribatutako helburuak lortzera bideratutako jarduketak proposatzea.
	Emaitzak	-
Aurrekontua	2025	-
	2026	20.000 €

4. Neurri eragilea

Lanerako prestakuntza-eredua

Deskribapena	Enpleguari buruzko 15/2023 Legeak honela definitzen du lanerako prestakuntza: <i>“langile okupatuen eta langabeen bizialdi osoko prestakuntza, laneko prestakuntzari eta gaikuntzari lotua, haien gaitasun profesionalak, enplegu- eta prestakuntza-ibilbideak eta lanbide-garapena hobetzea ahalbidetuko duena, eta enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen lagunduko duena”</i>. Lanerako prestakuntza jasotzeko eskubidea Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta dauden eta bizilekua EAEn duten pertsona guztiei aitortzen zaien eskubidetzat jotzen da, eta Enpleguaren Euskal Sareko Zerbitzu Zorroaren parte da. Lanbide Heziketaren antolamenduari eta integrazioari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoa onetsi zenean, eskumen-esparru berria definitu zen Lanbide Heziketaren arloan. Esparru berri horrek beharrezko egiten du Lanerako Prestakuntzaren Eredu berri bat antolatzea, pertsonen eta ekoizpen-sarearen premiei erantzutera bideratutako prestakuntza-eskaintza berri bat diseinatzea ahalbidetuko duena, sistemen eta departamentuen arteko koordinazioarekin, eta Euskadik hazkunde ekonomiko jasagarri eta inklusiboko eredu baten alde egiten duen apustutik abiatuta.	
Izaera eragilea	Lanerako prestakuntza jasotzen eskubidea, Enpleguaren 15/2023 Legeak aitortzen duena, elementu eragilea da, honako hau ezartzen baitu: - Lanerako prestakuntza jasotzeko eskubidearen garapenak prestakuntza-ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea ahalbidetuko du, lan-merkatu sartzeko herritar guztien aukerak hobetuko dituztenak, batez ere lan-merkatutik urrutien dauden pertsonenak. - Pertsonen premiei, interesei eta eskariei erantzungo die, kontuan izanda lan-merkatuaren eskariak ere, eta bereziki erreparatuz enpleguen kalitateari. - Enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan zehaztuko dira pertsonaren gaitasunak eta kualifikazio profesionala hobetzeko, etengabeko prestakuntzarako eta lan-merkatuaren eraldaketetara egokitzeke eta eguneratzeko egokiak diren prestakuntza-ekintzak. - Iraupen luzeko langabeek lehentasuna izango dute enplegu-plan integratu eta pertsonalizatuan xedatutakora egokitzen den prestakuntza jasotzeko.	
Helburuak	Lanerako Prestakuntza-eredu berriaren esperientazio-proiektua gidatzea: - Prestakuntza-premiak aztertzeke eta detektatzeko eredu berri bat diseinatzea, ekoizpen-sareak eskatzen dituen gaitasun profesionali eta pertsonen kualifikazio- eta birkualifikazio-premiei erantzungo diena, lan-merkatuan sartu eta iraun dezaten, eta profesionalki gara daitezen. - Prestakuntza-ibilbideak diseinatzea, detektatutako premietan oinarritutakoak, eta enpleguaren arlotik ziurta daitezkeenak. - Prestakuntza finantzatzeko formula berriak diseinatzea - Prestakuntza finantzatzeko eredu berriak diseinatzea	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubideak baliatzeko aukera	4. helburua. Enplegu-politika aktiboak indartzea, eta enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen premietara egokitzea (emakumeak, gazteak, etorkinak, urritasunen bat dutenak...)
		8. helburua. Lanbide heziketa eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza bultzatzea
	5. Ardatza. Inklusio-politiken lurraldetasuna	30. helburua. Bazterkeriaren arazoari heltzeko, koordinatzeko eta prebenitzeko toki eta eskualde mailako mekanismoak bultzatzea

Ardura duen entitatea	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Kolaboratzaileak: Gizarte Elkarrizketarako Mahaia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea	
Onuradunak	Lanbide zerbitzuaren erabiltzaileak, prestazioak jasotzen dituztenak zein jasotzen ez dituztenak, pertsona landunak.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	- Zerbitzuak emateko eredu berria
	Emitzak	- Ekintza eginda: Bai/Ez - Diseinatutako Ibilbide kopurua - Emandako Ibilbide kopurua - Parte-hartzaile kopurua
Aurrekontua	2025	300.000 €
	2026	500.000 € (2026rako konpromiso-kreditua 2025eko aurrekontuan)

5. Neurri eragilea

Langileentzako enplegurako pizgarrien sistema birdiseinatzea

Deskribapena	Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak, zera aurreikusten du 40. Artikuluan, Enplegurako Pizgarriei dagokienez: <i>“Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa aitortzea bateragarri izango da prestazioaren eskatzaileek eta onuradunek beren konturako jarduera ekonomikoaren edo lanaren bidez lortutako errentekin, erregelamendu bidez eza-rritako mugekin”</i>. Ildo horretan, ondorengo jarduketak egin dira 2023an eta 2024an: - BGDS prestazioaren enplegurako pizgarriak ezartzea. - Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legeak jaso behar dituen enplegurako pizgarriak aztertzea eta diseinatzea. - Indarrean dagoen DBE prestazioko enplegurako pizgarrien sistema ebaluatzea. - Sistema berriaren definizioan aurrerapenak egitea. 2025-2026 aldian garatu beharreko jarduketan artean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunei aplikatzekoak diren enplegurako pizgarriak erregulatzen dituen Dekretuaren onespena nabarmen-tzen da, 2025. urte amaierarako aurreikusten dena. Dekretuaren onespenearekin, sistema berria komunikatzeko eta haren zabalkunderako neurriak garatuko dira, onuradun izan daitezkeen pertsonen ezagutzera emateko. Halaber, sistema berri-aren ezarpenarekin, enplegurako pizgarriak jasotzen dituzten pertsonen bilakae-raren jarraipena egingo da, bai eta eredu berriarekin aurreikusten diren helbu-ruen betetze-mailarena ere.
Izaera eragilea	DBE prestazioaren enplegurako pizgarrien sistemaren ebaluazioaren bitartez eta sistema berriaren definizioaren bitartez enplegurako pizgarriak hobetzea zein BGDS prestazioaren enplegurako pizgarrien sistema ezartzea neurri bultzatzailea dira EAEko inklusio-politiken arloan.
Inklusiorako V. Pla-narekin lerrokatzea	1. Ardatza. He-rritartasun-es-kubideak balia-tzeko aukera 2. helburua. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indar-tzea, hura osatzen duten prestazio guztien egokitzapena, iris-garritasuna eta eraginkortasuna hobetuz 4. helburua. Enplegu-politika aktiboak indartzea, eta enple-gua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen premie-tara egokitzea (emakumeak, gazteak, etorkinak, urritasunen bat dutenak...)
Helburuak	- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunei aplikatzekoak diren enplegurako pizgarriak erregulatzen dituen De-kretua onestea. - Zabalkunderako ekintzak: komunikazio-kanpaina eta simulatzailea. - Enplegurako pizgarriak –DBE zein BGDSkoak– jasotzen dituzten pertsonen bila-kaeraren jarraipena egitea, eta eredu berriarekin aurreikusitako helburuak ze neurritan betetzen diren ebaluatzea.
Ardura duen entita-tea	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.
Onuradunak	Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak, soldatapeko lanetik edo norberaren konturako jarduera ekonomikotik eskuratutako diru-sarrera txikiak dituztenak. Enplegurako pizgarrien sistema berriaren diseinuan, ondorengoak ezarri dira emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko berariazko helburutzat:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren bizikidetza-unitateetako bigarren kideen lan-jarduerarik eza murriztea; gehienak emakumeak dira.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren pertsonen artean, lanaldi partzialeko enplegutik lanaldi osoko enplegurako trantsizioa sustatzea; gehienak emakumeak dira.
- Ekonomikoki konpentsatzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun diren gurasobakarreko familien kasuan eta, bereziki, guraso bakar hori ama den familien kasuan, laneratzeak berekin dakarren seme-alabak heztearekin lotutako aukera-kostua.

Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	Enplegurako pizgarriak jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren bilakaera.
	Emaitzak	Prestazio-sistematik irtetea, lan-merkatuan sartu izanaren ondorioz. Prestazioa jasotzen duten pertsonen lanaldiak handitu izana.
Aurrekontua	2025	40.000.000 €
	2026	40.000.000 €

6. Neurri eragilea

Talentu-aniztasuna enpresetan txertatzea, etorkinak gizarteratu eta laneratzeko ibilbideak bultzatuta

Deskribapena	Etorkinen gizarteratzea eta laneratzeari 2024-2028 aldirako legealdi-programaren hainbat ekimenetan dago: - 64. Konpromisoaren barruan –“Enplegu inklusiboa sustatzea eta zailtasun handienak dituzten langabeei laguntzea”–, 7. Ekimena jasotzen da: “Enpresetan aniztasuna integratzeko estrategia bat egitea, talentu guztiak Lanbideren laguntzarekin txertatu ahal izateko, Enpleguaren Euskal Legearekin ezarriko diren ibilbide pertsonalizatuaren esperientziatik abiatuta, euskal langabeen eta dagoeneko Euskadin dauden etorkinen laneratzeari lehenesteko helburuz”. 2023an eta 2024an, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta Lanbide horren inguruko ildo estrategiko bat hedatzen ari direla, hasieran ekimen pilotuen bidez –W eta W+ proiektuak kasu–, Lanbideren bitartez hezurramitu direnak, errotze sozioformatiboko eta sozioraboreko ibilbide integrareko egiturazko deialdiak eginda. - 55. Konpromisoaren 2. Ekimena: “Erronka demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren esparruan etorkinak gizarteratzeko eta laneratzeko plan integral bat egitea, kualifikazioa, lan-esperientzia eta lan- eta harrera-baimenen kudeaketa jasoko dituen, erantzun koherente eta integratu bat eman ahal izateko, Euskadira aukera baten bila iristen diren kudeaketa adimentsu eta inklusibo baterako”. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila da Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren bultzatzailea. - Azkenik, 56. Konpromisoak –“Migratzaileak eta errefuxiatuak gizarteratzeko laguntza”– 6. Ekimena jasotzen du: “Atzeritarrentzako lan-baimenak izapidetzeko eta ebatzeko eskumenen transferentzia negoziatzea eta adostea Espainiako Gobernuarekin”. Dagoeneko adostu da hasierako lan-baimenen kudeaketaren transferentzia, eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak izango du eskumen hori. 2025. eta 2026. urteei begira, errotze sozioraboreko eta sozioformatiboko ibilbide integralen Lanbideren deialdiak finkatzea planteatzen da eta, halaber, jatorrian kontratatzearekin lotutako lan-ildo berriak garatzea, lan- eta hezkuntza-migraziozko kanalen bitartez gauzatuko diren mugikortasuneko proiektu pilotuak abian jarrita.	
Izaera eragilea	Euskadira iristen diren etorkinentzako arreta integratuan kudeaketa adimentsu eta inklusibo baterako mekanismoak sortzean datza berrikuntza. Baita erronka demografikoak berekin dakartzan erronketako batzuei erantzuteko gaitasunean ere, enplegu-premiei erantzunez eta enpresetan talentu-aniztasuna txertatuz.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrotzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubi-deak baliatzea	4. helburua. Enplegu-politika aktiboak indartzea eta horien funtzionamendua enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen berariazko premietara egokitzea, etorkinen premietara, besteak beste.
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	16. helburua. Nazioarteko migrazioen eta asiloaren arloan kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu baten erakuntzan aurrera egitea.

	3. Ardatza. Berrikuntza, koordinazioa eta gobernantza	21. helburua. Bazterkeria sozialarekin lotutako arazoek sektore arteko lana bultzatzea, zerbitzuak koordinatzeko eta integratzeko formulak sor daitezen lagunduz.
Helburuak	- Enpresetan dibertsitatea integratzeko estrategia bat garatzea, talentu guztiak sar daitezen. - Erronka demografikoari eta enplegu-premiei erantzuna ematea, aldi berean migratzaileei laneratzeko aukerak eskainiz. - EAEa iristen diren etorkinei erantzun koherente eta integratu bat ematea.	
Ardura duen entitatea	Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila	
Onuradunak	Bazterkeria soziolaboraleko egoeran edo arriskuan dauden pertsonak	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	- Lanbideren errotze sozioformatiboko eta soziolaboraleko ibilbide integraleko ibilbideen deialdiak - Kontratazioak jatorrian egitearekin lotutako lan-ildo berriak. - Lan eta hezkuntza arloetako migrazio-kanalen bitartez ezarritako lan-mugikortasuneko proiektu pilotu kopurua. - Errotze integraleko ibilbideen erabiltzaile kopurua. - Proiektu pilotuen erabiltzaile kopurua. - Inplikaturako enpresa kopurua.
	Emaitzak	- Proiektuekin eta ibilbideekin lotutako kontratu kopurua. - Erregularizazio administratiboa lortzen duten pertsonen kopurua. - Hobekuntzak erabiltzaileen egoera soziolaboralean.
Aurrekontua	2025	3.424.993 € (errotze sozioformatiboa) 651.600 € (errotze soziolaborala)
	2026	2.100.000 € (errotze sozioformatiboa) 4.500.000 € (errotze soziolaborala) 70.000 € (Lanerako mugimendua migrazio segurua)

7. Neurri eragilea

Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko neurriak: Kontzilia Komunitatea eta Kontziliaziorako laguntzak

Deskribapena

Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko neurrien artean, Kontzilia Komunitatea dugu Euskadin, haurren zaintzarako premiak dituzten familiak kualifikatutako zaintzaileekin harremanetan jartzen dituztenak, kontziliazio-zerbitzu malgu eta hurbilekoak eskuratzen lagunduz.

Zerbitzu hori osatzeko, kontziliaziorako laguntza-sistemak zuzeneko laguntza ekonomikoa eskaintzen die langile-familiei, adingabe edo mendekotasuna duten pertsonen zaintzatik eratorritako gastuetarako, batez ere opor-aldietan, zerbitzu publikorik ez dagoen ordutegietan edo larrialdi-egoeretan.

Neurri horien helburua da lanerako oztopoak desagerraraztea, batez ere emakumeenak, familietan zainketen gainkarga murriztea eta erantzunkidetasuna sustatzea, era horretan, lan-merkatuan aukera-berdintasuna bultzatuz eta lana eta familia uztartzeko zailtasunaren ondoriozko zaugarritasun sozialeko egoerak prebenitzen lagunduz.

- Izaera eragilea**

- Sistema eraldatzen edo egituratzen dute. Kontziliazio-neurriek elementu egituratzaile gisa jokatzaren dute, emakumeen bazterketaren eta haurren pobrezia-aren egiturazko kausari heltzen baitiote. Duten izaera eraldatzailea arazoaren sustraletara joatean datza: zainketek eragiten duten gainkargara, hain zuzen ere, emakumeak lan-merkatuara erabat sartzea eragozten baitu. Emakumeen lan-munduko partaidetza errazten dutenez, efektu biderkatzailea dute, diru-sarrerak bermatzeko sistemarekiko mendekotasuna murrizten duena eta belaunaldiz belaunaldiko pobrezia-zikloak hausten dituenak.
 - Berritzailea edo berezia. Kontzilia Komunitateak berrikuntza teknologikoa da kontziliazio-zerbitzuen hornikuntzan; tresna digitalak erabiltzen ditu, hurbileko zainketen elkarlaneko sare bat sortzeko. Duen izaera bereziak teknologia, ekonomia kolaboratuboa eta politika publikoak konbinatzen ditu, benetako premietara egokitutako soluzio malguak sortzeko. Eredu tradizional zurrunak gaituzten ditu, arlo publikoaren, pribatuaren eta esparru komunitarioaren arteko ekosistema hibrido bat sortuz.
 - Zeharkakoa, integrala edo elkarlanekoa. Neurri horiek erabat dira zeharkakoak, enplegu, berdintasun, gizarte-zerbitzu, hezkuntza eta diru-sarrerekin lotutako politikak konektatzen baitituzte. Duen ikuspegi kolaboratiboak hainbat eragile inplikatzeko ditu: administrazioak, enpresak, familiak eta komunitatea. Aldi berean heltzen diete dimentsio ekonomikoari, sozialei, hezkuntza-arlokoari eta lan-arlokoari, tradizionalak zaitakututa egon diren sistemak arteko sinergiak sortuz eta inbertsio publikoaren inpaktua maximizatuz.

Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herriartasun-eskubideak baliatzea	4. helburua: Enplegu-politika aktiboak indartzea, enplegarritasun-arazoak dituzten emakume, gazte eta pertsonen berariazko premietara egokituta
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	2. helburua: Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea, haren egokitasuna, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz.
		12. helburua: Bazterkeria-egoeran dauden emakumeen premiei heltzeko neurri espezifikoak ezartzea eta genero-ikuspegia bultzatzea

13. helburua: Pobrezia belaunaldiz belaunaldi errepika dadin saihesteko eta haurren pobrezia aurre egiteko neurriak antolatzea		
Helburuak	- Laneratzeko laguntza ekonomiko osagarriak ematea (kontingentzia-funtsak), arreta berezia eskainiz kontziliazioaren eta haurren zainketaren arloan dauden premiei - Familia gurasobakarren egoera hobetzeko neurri espezifikoak bultzatzea	
Ardura duen entitatea	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordetza. Haur, Nerabe eta Familia zuzendaritza. Kolaboratzailea: Euskalit	
Onuradunak	Lan bat duten seme-alabadun pertsonak, lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko beharra dutenak.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran edo lanaldia murriztuta dauden langileei emandako laguntza kopurua - Mendekotasun-egoeran edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia-egoeran edo lanaldia murriztuta dauden langileei emandako laguntza kopurua - Guraso-baimenatarako 17 aste arteko laguntza kopurua, urtebetez azpiko adingabeak zaintzeko - 14 urte arteko seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeke emandako laguntza kopurua. - Kontzilia Komunitatera atxikitako enpresa kopurua - Kontziliazio-proiektuetarako diru-laguntzak jaso dituen enpresa kopurua	
Aurrekontua	2025	28.068.080 €
	2026	258.000 € (konpromiso-kreditua)

8. Neurri eragilea

Haur Bermearen Euskal Estrategia 2030 (EGIE 2030)

Deskribapena	Haur Bermearen 2030erako Euskal Estrategiak hamar erronka eta hamabi helburu estrategiko ezartzen ditu, haur eta nerabe guztiek haien oinarritzko eskubideak balia ditzaten bermatzeko helburuz, haurren pobrezia murriztuz eta arreta eta zaintzako ekosistema komunitarioak garatuz. Euskal estrategia hori bat dator Europako Haur Bermearekin, eta funtsezko arloetan eragiten du, funtsezkoak izan arren beti aintzat hartzen ez diren arloetan, hala nola aisialdian eta kultura, baita parte-hartze sozialean eta politikoan ere. 2024an onetsi ondoren, 2025-2026 aldian hedapen eraginkorrari ekingo zaio. Abian jarritako lehenengo neurria “Eginez Ikasi” izan da, Begira Elkartearekin lankidetzan gauzatutako programa pilotua. Ekimen horrek kultura-sorkuntzako eta alfabetatze digitaleko prozesuetan parte hartzeko aukera ematen die haur eta nerabeei –arreta berezia eskainiz zaurgarritasun-egoeran daudenei–, beraien bizitza-esperientziak jar-duera artistikoaren ardatz bihurtuz eta kulturartekotasuna bultzatuz.	
	- Sistema eraldatzeko neurria: haurren pobrezia hainbat esparrutatik (hezkuntza, osasuna, kultura, arlo soziala...) aurre egiteko erantzun integral eta koordinatua antolatzen du. - Zeharkakoa eta integrala: beharrezkoa du administrazio sail eta maila ezberdinen arteko lankidetzak. - Berritzailea: esku-hartze komunitario eta prebentiboko eredu berriak garatzen ditu.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubideak baliatzea	2. helburua. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea, egokitzapena, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz.
	2. Desberdinkeria-arrakalak murriztu	7. helburua. Berdintasun-baldintzetan egingo den eskolatzeko bala bermatzeko beharrezko neurriak bultzatzea
	3. Berrikuntza eta gobernantza	13. helburua. Pobrezia belaunaldiz belaunaldi birsor errepikadain saihestea eta haurren pobrezia arazoari heltzea
	4. Ardatza. Erantzukidetasuna, aktibazioa, sentsibilizazioa	19. helburua. Sistemaren koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak bultzatzea
Helburuak	25. helburua. Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen kulturako, aisialdiko edo astialdiko jardueretarako sarbidea izan dezaten laguntzea, ingurune komunitarioan	
	- Haurren pobrezia murriztea, familiari zuzendutako prestazioak indartuta. - Haurrei zuzendutako arreta- eta zaintza-ekosistema komunitarioak garatzea.	
Ardura duen entitatea	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordetza. Haur, Nerabe eta Familia zuzendaritza Kolaboratzailea: Begira Elkartea	
Onuradunak	EAEEn zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden 0 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabe guztiak, haur-bermearen arloko politikek ikuspegi unitbertsala duten arren.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	Ez daude definituta Estrategiarako, programa bakoitzerako baizik
	Emaitzak	Ez daude definituta Estrategiarako, programa bakoitzerako baizik
Aurrekontua	2025	300.000 €

2026 300.000 €

9. Neurri eragilea

Urritasuna duten pertsonentzako bizimodu independenterako eredua

Deskribapena

“Euskadin urritasuna duten pertsonentzako bizimodu-eredu independentearen oinarriak ezartzeko diagnostikoa” deritzon dokumentua egin zen; haren helburua zen Euskadin urritasuna duten pertsonentzako Bizimodu-eredu Independente baterantz aurrera egiteko oinarriak, erreferentziak eta egoera ezagutzea. 2023ko iraileko jardunaldi batean aurkeztu zen dokumentu hori, egindako diagnostikoa euskal gizarte osoari ezagutzera emateko eta urritasuna duten pertsonen bizimodu independente baterako aukera izan dezaten sustatzeko administrazioek lehenetsi behar dituzten jarduketa-ildoak identifikatzeko asmoz. Ekitaldi hartan, urritasuna duten pertsonen bizimodu independenterako garrantzitsuak diren arloetan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako administrazioek eta sailek hartu zuten parte, bai eta Foru Aldundiko eta urritasunaren arloko erakunde sozialetako ordezkariak ere.

Ekitaldi hartatik abiatuta, laburpen-agiri bat prestatu zen, urritasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko duten eskubideetan urratsak egiteko zenbait gomendio aurkezten zituen. Gomendio horiek ezartzeko, analisi-prozesu bat sustatu du Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiko urritasuna duten pertsonen Batzordeak; Foru Aldundiek, Euskadiko Hirugarren Sektoreko urritasunaren arloko erakundeak eta oinarritzko gizarte-zerbitzuetako profesionalek hartu dute parte prozesu horretan. Analisiaren helburua izan da Euskadin urritasuna duten pertsonentzako bizimodu-eredu independente baten bidean aurrera egiteko aukera emango duten oinarritzko irizpide komunak identifikatzea.

Izaera eragilea

Urritasuna duten pertsonen bizimodu independenterako laguntzekin lotutako eredua bat eratzearen aldeko apustua ikuspegi berritzailea da EAEren esparruan. Testuinguru horretan, ondorengo helburuak izango dituen lizitazio bat argitaratzea dago aurreikusita:

- Sail arteko eta erakunde arteko mahai tematikoak eratzea, bizimodu-eredu independentearen definizioan aurrera egiteko; horrek oinarritzat balio dezake, etorkizuneari lege bat prestatzeko
- Sektoreko profesionalei prestakuntza-programak eskaintzea
- Bizimodu-eredu Independentearen arloko jardunbide egokiak identifikatzea eta trukatzea

Inklusiorako V. Planarekin lerrotzea

- | | |
|---|---|
| 1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubideak baliatzeko aukera | 1. helburua: Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen bizimodu-eredu independentea emateko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan.
9. helburua: Osasunean gizarte- eta genero-desberdinkeriak murriztea. |
| 2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea | 15. helburua: Urritasuna, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasuna duten pertsonen artean pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea. |
| 3. Ardatza. Berrikuntza, Koordinazioa eta Gobernantza | 19. helburua: Koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak bultzatzea.
20. helburua: Ebaluazio, prestakuntza, berrikuntza, behaketa eta ikerkuntzako tresnak bultzatzea. |
| 4. Ardatza. Erantzukidetasuna, parte-hartzea, ak- | 23. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoera dauden eta sistema publikoak baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen bizimodu-eredu independentea emateko jarduketak aktibatzea. |

	tibazio komunita- ria eta sentsibili- zazioa	24. helburua: Tokiko eta hurbileko ekimen komunitarioak bultzatzea, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko eta jorratzeko. 25. helburua: Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen kulturako, aisialdiko edo astialdiko jardueretarako sarbidea izan dezaten laguntzea, ingurune komunitarioan. 26. helburua: Herritarrak pobrezia, desberdinkeria eta bazterketako egoeren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak bultzatzea. 27. helburua: Erabiltzaileek zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten sustatzea.
Helburuak		- Bizimodu independentea bultzatzeko eredu autonomiko bat ezartzea. - Sektoreko profesionalak trebatzea eta sentsibilizatzea - Bizimodu-eredu Independentearen arloko jardunbide egokien zabalkundea egitea
Ardura duen entitatea		Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Ongizate sailburuordetza Kolaboratzaileak: Foru Aldundiak eta Euskadiko Elkarrietzeta Sozialeko Mahaiko Urritasuna duten Pertsonen Batzordeko kide diren Erakunde Sozialak
Onuradunak		Urritasuna duten pertsonak
Lurralde-eremua		EAE
Adierazleak	Prozesua	- Bizimodu-eredu independentearen definizioan aurrera egiteko eratu-tako sail arteko eta erakunde arteko mahai tematiko kopurua - Sektoreko profesionalen emandako prestakuntza-programa kopurua. - Bizimodu-eredu Independentearen arloan identifikatutako jardunbide egoki kopurua
	Emaitzak	- Bizimodu Independentetarako Ereduaren definizioa
Aurrekontua	2025	70.000 €
	2026	70.000 €

10. Neurri eragilea

Bizitegi Bazterkeria Larriaren aurkako II. Euskal Estrategia hedatzea

Deskribapena

Etzegabeen I. Euskal Estrategiaren ebaluazioa egin ondoren, Bizitegi Bazterkeria Larriaren aurkako II. Euskal Estrategia (2024-2028) egin zen. Bizitegi Bazterkeriaren II. Euskal Estrategiaren asmoa da babes sozialeko euskal sistemako azpi-sistemen arteko lankidetzak sustatzea (gizarte-zerbitzuak, osasuna, gizarteratzearen eta diru-sarreraren bermea, enplegu-politika aktiboak eta etxebizitzaren gizarte-babeseko politikak), etxebizitza eskuratzeko zailtasunetan, pobrezia-egoeretan, enplegu faltan, osasunean eta gizarteratzeko laguntzen premian modu lerrokatu eta integratuan eragingo duen dimentsio anitzeko arretaren ikuspegitik. Hala, eskubideen ikuspegi batekin formulatzen da Estrategia (etxebizitza, enplegu, diru-sarrera, osasun, zainketa eta gizarte-zerbitzuetarako eskubideak), eta arretaren ikuspegi komunitarioa, prebentziokoa, parte-hartzailea, hurbilekoa eta pertsonalizatua indartzen ditu; era horretan, ongizate-sistema publiko osoaren erantzunak Euskadin muturreko egoerei aurre egin beharrean dagoen biztanle-segmentu batera egokitu nahi ditu.

Izaera eragilea

Estrategia horren barruan, hogeita hamar proiektu eragile baino gehiago dago –aurreikusita edo martxan–, estrategiaren misioarekin, printzipioekin eta ikuspegiarekin bat etorritako eta estrategiaren gidalerroen barruan, bizitegi-bazterkeria larria prebenitzeko, murrizteko edo desagerrarazteko zentratzen direnak eta, arreta-eredua eraldatzeko gain, estrategiari bere ikuspegiarantz eta helburu estrategikorantz aurrerapen garrantzitsuak lortzeko gaitasuna ematen diotenak.

Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea

1. Ardatza. Eskubideez baliatzea	1. helburua: Laguntza sozialeko prozesuak hobetzea. 9. helburua: Osasunaren arloan gizarte- eta genero-desberdinkeriak murriztea.
2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	12. helburua: Bazterkeria jasaten duten emakumeen premiei aurre egitea. 14. helburua: Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea.
3. Ardatza. Berrikuntza, Koordinazioa, Antolamendua eta Gobernantza	19. helburua: Koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak bultzatzea. 20. helburua: Ebaluazio, prestakuntza, berrikuntza, behaketa eta ikerkuntzako tresnak bultzatzea. 21. helburua: Bazterkeria sozialaren arazoa sektore arteko lanaren bitartez jorratu dadin bultzatzea, zerbitzuak koordinatzeko eta integratzeko formulak sortuz.
4. Ardatza. Erantzukidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa	23. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta sistema publikoak baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen estaldura ematera bideratutako jarduketak. 25. helburua: Bazterkeria-egoera dauden pertsonen kultura, aisialdia eta astialdia baliatzea. 26. helburua: Pobrezia- eta bazterkeria- buruzko sentsibilizazio soziala. 27. helburua: Erabiltzaileek zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten sustatzea.
5. Ardatza. Lurraldekatzea	30. helburua: Bazterkeriaren arazoari heltzeko, koordinatzeko eta prebenitzeko toki eta eskualde mailako mekanismoak bultzatzea

Helburuak	- Gizarte-zerbitzuen, enpleguaren, osasunaren eta diru-sarrerak bermatzeko sistematik etxegabeen beharretara egokitzea - Desinstituzionalizazioan etxegabetasuna prebenitzea - Etxegabeen segurtasun pertsonala eta ongizatea bermatzea - Etxegabeekiko pertzepzio soziala aldatzea - Etxebizitza-eskubidea baliatzeko neurriak indartzea - Etxegabeek gizartean, politikan, kirolean eta kulturen parte har dezaten bultzatzea	
Ardura duen entitatea	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Ongizate sailburuordetza	
Onuradunak	Estrategia honetarako, ondorengoak dira arretarako lehentasunezko profilak: - Bizitegi-prekarietateko egoeran eta/edo etxebizitza galtzeko arriskuan dauden pertsonak eta familiak - Zentroetako pertsona egresatuak, bizitegi-soluziorik ez dutenak - Gizarte-bazterkeria larriko egoeran dauden emakume etxegabeak - Euskadin familia-laguntzako sarerik ez duten gazte etorkinak - Urritasuna duten, adinekoak diren edo mendekotasun-egoeran dauden etxegabeak - Gaixotasun mentala eta/edo adikzioak dituzten etxegabeak - Haien sexu-orientazioagatik, bizitegi-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua Emaitzak	- Estrategiak jasotzen dituen neurriekin eta proiektu eragileekin lotutakoak
Aurrekontua	2025	395.000 €
	2026	Zehaztu gabe.

11. Neurri eragilea

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eredu berria

Deskribapena	Aurrerapenak lortu nahi dira Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osatzen duten prestazioak eta laguntza ekonomikoak hobeto integratzeko bidean. Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) kasuan, helburua da GLL jasagarriak garatzea, herri administrazio guztiek modu arduratsuan kudeatuko dituztenak, eta eta aldizkakoak ez diren premia-egoeretarako diru-laguntzen zeregina behar bezala beteko dutenak; eta, ahal den heinean, sakontasun handieneko premia-egoerak sistemaren prestazio ekonomikoen bitartez asetzeko, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta Etxebizitzarako prestazio ekonomikoen bitartez.	
Izaera eragilea	Azken helburua da udaletako esku-hartze sozialeko profesionalentzako lan-tresna eraginkorra izango diren laguntza ekonomikoak antolatzea, premiei buruzko irizpen zorrotzei jarraikiz eta automatismoetatik aldenduta emango direnak.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubi-deak baliatzeko aukera	2. helburua: Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea, hura osatzen duten prestazio guztien egokitzapena, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz 6. helburua: Pobrezia energetikoa prebenitzea eta errenta txikiaren pertsonen oinarritzko hornikuntzak izan ditzaten laguntzea.
Helburuak	Gizarte-larrialdiko laguntzak arautzen dituen indarreko araudia gaur egungo errealitate sozialera eta Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak eta hura garatzen duen erregelamenduak ekarri dituzten berritasunetara egokitzea.	
Ardura duen entitatea	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Ongizate sailburuordetza	
Onuradunak	Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren ohiko edo ez-ohiko gastuei aurre egiteko behar adina baliabide ez duten pertsonak.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua Emaitzak	- Gizarte Larrialdietako Laguntzak arautzeko dekretu berria argitaratzea.
Aurrekontua	2025	41.500.000 €
	2026	41.500.000 €

12. Neurri eragilea **HARRERAGUNE. Etorkinei eta errefuxiatuei gizarteratzen laguntzeko zerbitzua**

Deskribapena	Etorkinei harrera egiteko eta haiei informazioa eta orientazioa emateko zerbitzu publiko espezializatua da Harreragune. Dagoeneko sei hilabete ditu Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak sortutako lehenengo zerbitzu pilotuak. Helburua da Bilbora iristen diren migratzaileei hirian bizitzaren jartzen laguntzea, bai eta eskubideak eta aukerak berdintasun-baldintzetan balia ditzaten laguntzea ere. Harreragunek adin, genero, jatorri edo egoera administratibo guztietako pertsonen ematen die arreta Bilbon. Migratzaileen trebetasunak, ezagutzak eta esperientzia bultzatzen dituen ikuspegi batetik lan egiten du Harreragunek, hirian eta Euskadin haien bizitza-proiektua eraikitzen laguntzeko helburuz. Euskal Harrera Ereduaren barruan sartzen da zerbitzu hori, eta Migrazioarako Euskal Itun Sozialean hartutako erakunde arteko konpromisoei erantzuten die; itun hori Euskadin, eskubideen ikuspegi batetik, inklusioa eta kultura arteko bizikidetzak sustatzen dituen ekimena da.
Izaera eragilea	Harrera-espazio eta -sistema publiko bat sortzea, etorkinen gizarteratze-prozesuak bultzatuko dituen, udalerriekin lankidetzan; zerbitzu berritzailea da, aldi berean hasierako harrera errazten duena eta pertsonak beste sistema batzuetako zerbitzuetara bideratzen dituen, beraien premien arabera. Aipatutako sistemen etengabe koordinatuta, interesdunei haien hasierako uneetan beraien ibilbidea eraikitzen laguntzen die. Tokiko administrazioekiko lankidetzak estuan lan egiteko filosofiari esker, lurraldean dauden errealitate ezberdinak eta zerbitzu publiko zein pribatuak sakon ezagut daitezke ziurtatzen da.
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea 16. helburua: Nazioarteko migrazioen eta asiloaren arloan kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu baten eraikuntzan aurrera egitea.
Helburuak	- Harrerako Zerbitzu Publikoaren (Harreragune) esperientzia zuzentzea, Bilbon. - Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak-dinamikak ezartzea, etorkinen gizarteratze-prozesuak hobetzeko. - Herritarrenganako arreta-eredua partekatzea, pertsonen zerbitzu guztietarako irisgarritasuna hobetuko duena.
Ardura duen entitatea	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila. Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordetza. Kolaboratzaileak: Bilboko Udalak. Hirugarren sektore sozialeko erakundeak
Onuradunak	Etorkinak
Lurralde-eremua	EAE
Adierazleak	Prozesua - Parte hartzen duten eragileekin koordinatzeko arloak eta tresnak ezartzen dira - Titularitate publikoko administrazio, sail eta erakundeekin koordinatzeko ekintzak. - Hirugarren sektore sozialeko erakunde pribatuekiko koordinazioa - Udalerriei eragiten dieten migrazio-prozesuei dagozkien joerak, arazoak eta abar detektatzea.

		- Arreta jaso duen biztanle kopurua - Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin eta/edo administrazioekin abiarazitako lankidetzaproiektuen kopurua - Gizarteratze-ibilbideak sortzeko tresna informatikoa - Parte-hartzaileak bideratzen dituzten erakunde, baliabide eta erakunde kopurua, edo parte-hartzaileak zenbat erakunde, baliabide eta administrazioetara bideratzen diren. - Erabiltzaileak gustura daude zerbitzuarekin
Aurrekontua	2025	800.000 €
	2026	800.000 €

13. Neurri eragilea	Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren helburuak lortzeko arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako eta finantzaziorako tresnak garatzea (2022-2036)	
Deskribapena	Etxebizitzaren Aldeko 2022-2036 aldirako Itun Sozialaren helburu nagusia da etxebizitza-eskubidea eskubide eraginkor gisa eratzeko prozesua azkartzea, etxebizitza duin eta eskuragarria eskuratzea gizakiaren garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat dela ulertuta; eta Euskadi guztiz konprometituta dago horrekin. Ituna 2022-2036 aldian garatu beharreko lehentasunezko 6 jarduketa-ildoren inguruan antolatuta dago; horietako 4 zuzenean eragiteko ildoak dira, eta 2 zeharkako sostengu-ildoak dira, etxebizitzaren inguruko politiken, programen eta zerbitzuen gobernantza berri batera bideratuta daudenak. Seigarren ildoak (zeharkakoa) arlo publikoaren eta pribatuaren inplikazioari eta lankidetzari buruzkoa da, eta ezartzen du Itunean finkatutako helburuak lortzeko, ezinbestekoa dela eragile guztien inplikazioa eta elkarlana –arlo publikokoena zein pribatukoena eta arlo sozialekoena–, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean ezarritako helburuak betetzeko intereseak diren lankidetzaren eta finantzazio-tresnak indartuz. Ondorengo tresnak eta lan-ildoak garatu eta indartuko dira: - <i>Housing associations</i>, fundazioak edo antzerako formulak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak bere protagonismoa areagotu dezan alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzaile eta kudeatzaile gisa, kolektibo zaurgarriari eta bazterkeria-egoeran daudenei etxebizitza-soluzioak eskaintzeko helburuz. - Kapital mistoko erakundeak, sozietate-formularekin edo bestelako sozietate-tresna kolektiboko formulekin, arlo publikoa zein ekimen pribatua barne hartuko dutenak, alokairu eskuragarriko babes publikoko etxebizitzak sustatzeko operazioak bultzatzeko. - Inbertsio-funtsak eta sustatzaile pribatuak alokairu eskuragarriko etxebizitzak sortzen eta kudeatzen inplikatzeko. - Etxebizitzaren sustapenean kooperatiba-eredua indartzea, erabilera-lagapenean batez ere. - Lurzoru publikoa azalera-eskubidean lagata egiten den etxebizitzaren sustapen pribatuaren eredua berreskuratzeko aukera baloratzea. - Zeharka, lehendik dauden tresnak indartzea eta beste tresna espezifiko batzuk garatzea, tresna horiek eta lan-ildoak garatzeko finantzazio publikoko ekarpenak ahalbideratzeko.	
Izaera eragilea	Arlo publikoaren, pribatuaren eta sozialaren arteko lankidetzarako eta finantzaziorako tresna horiek ezinbestekoak dira Itunaren helburuak lortzeko, dauden etxebizitza-premiak eta etxebizitza-politika publiko orok aurrekontuari dagokionez dituen mugak kontuan hartuta. Beharrezkoa da sektore pribatua eta soziala inplikatzeko etxebizitza sozialaren eta eskuragarriaren eskaintza areagotzearen erronka garrantzitsu horretan.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubi-deak baliatzeko aukera	5. helburua: Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea eta sustapen publikoko etxebizitzak eskuratzeko aukera ematea bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen

Helburuak	- Arlo pribatuko eta sozialeko eragile gehiago inplikatzea etxebizitza sozialaren eta eskuragarriaren sustapenean eta finantzazioan. - Bizitegiari dagozkion larrialdi-egoerei azkar erantzutea. - Etxebizitza sozialaren eta eskuragarriaren sustapenarekin eta finantzazioarekin lotutako ekimen pribatuari eta sozialari arlo publikotik laguntzeko tresnak eguneratzea.	
Ardura duen entitatea	Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila	
Onuradunak	- Etxebizitza eskuragarria lortzeko aukerarik ez duten pertsonak. - Kolektibo zaurgarriak eta bazterkeria-arriskuan daudenak.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	- Inbertsio publikoa arlo publikoaren, pribatuaren eta sozialaren arteko lankidetzarako mekanismoetan (€). - Mobilizatutako inbertsio pribatua (€). - Mobilizatutako inbertsio soziala (€).
		- Eragile pribatuen gogobetetasun-maila garatutako/indartutako mekanismoei dagokienez (1etik 10erako eskala). - Eragile sozialen gogobetetasun-maila garatutako/indartutako mekanismoei dagokienez (1etik 10erako eskala).
		- Eragile pribatuen gogobetetasun-maila garatutako/indartutako mekanismoei dagokienez (1etik 10erako eskala).
	Emitzak	- Lankidetzan oinarrituta abiarazitako etxebizitza sozialen kopurua. - Lankidetzan oinarrituta erabileran jarritako etxebizitza sozialen kopurua. - Lankidetzan oinarrituta abiarazitako etxebizitza eskuragarrien kopurua. - Lankidetzan oinarrituta erabileran jarritako etxebizitza eskuragarrien kopurua.
Aurrekontua	2025	0 €
	2026	6.000.000 € ordainketa- eta konpromiso-kreditutan

14. Neurri eragilea

Aukerak. Euskadiko Espetxeetan dauden Presoak Gizarteratzean eta Lanbideratzean espezializatutako Orientazio Sistema

Deskribapena	Aukerak Justizia Sailburuordetzaren mende dagoen Erakunde Publikoa da, espetxeetan preso dauden pertsonak Gizarteratzeaz eta Lanbideratzeaz arduratzen dena. Presoak lan-arloan aktibatzeke helburuz, trebatu eta Euskal Administrazioak esleitutako zerbitzuen prestaziotik eratorritako zereginak burutzeko kontratatzen ditu –sukaldea, okindegia eta garbiketa, besteak beste–, bai eta haien prozesuen zati bat espetxe barruan gauzatzen duten kanpoko enpresetako lan produktiboko tailerretan hainbat lan egiteko ere. Ematen duen zerbitzua hobetzeko arloaren barruan, Aukerak zerbitzuak ekintza estrategiko gisa planteatu du lan-arloko espezializatutako orientazio- eta bitartekaritza-sistema bat garatzea, gizarteratzeko eta lanbideratzeko ibilbide pertsonalizatuetan oinarrituta funtzionatuko duena pertsonekin. Orain arte zigorren azkeneko zatian abian jartzen zen sistema horren helburua izango da pertsona espetxeratzen den unetik esku hartzea, eta espetxetik irteten den arte garatuko da; ondoren, preso-ohia dagozkien enplegu-zerbitzuetara bideratzeaz arduratuko da.	
Izaera eragilea	Espetxeen arloko eskumenak eskualdatu ondoren sortu da erakundea; proiektu horrek ez du aurretiazko esperientziarik EAEn, ez kudeaketari ez egikaritzeari dagokionez, eta egitasmo eragileztat jotzen da presoek gizarteratzearen arloan, prestakuntzatik eta enplegutik bideratuta. Espetxeetan egingo den prestakuntza espezifikoa eta Programak, Caixa Fundazioarekin lankidetzan, eskaintzen duen enplegurako orientazioa dira presoek zuzendutako eskuhartze-lanaren oinarria. Lanbiderekin espetxe barruan presoek ematen zaizkien ekintzetan zein presoak Lanbideren lanbideratze-prozesu eta -ibilbideetan sartzen diren momentuan lan koordinatutako estrategiak sortzeko beharrezko ondorioz –trazabilitate bat izateko helburuz–, erakunde bien arteko hitzarmena berrikustera eta koordinazio-estrategiak ezartzera eramango gaitu. Beraz, zeharkako proiektu eragile bat da lankidetzaren eta zeharkakotasunaren ikuspegitik.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzeke aukera	10. helburua: EAEko espetxeetan zigorra betetzen ari diren pertsonak gizarteratzeko eta lanbideratzeko politikak indartzea
Helburuak	- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin eta zigorra jaso duten pertsonen orientazioan espezializatutako Hirugarren Sektoreko Erakundeekin lankidetzan aritzeko formulak ezartzea. - Ematen den zerbitzua optimizatzea eta, horrela, espetxeetan enplegu- eta prestakuntza-jarduketan ardatz bihurtzea.	
Ardura duen entitatea	Justizia eta Giza Eskubideen Saila	
Onuradunak	Hiru lurraldeetako hiru espetxeetan preso dauden pertsonak. Zigorra betetzen ari diren gizon zein emakumeak dira onuradunak, haien ezaugarriengatik eta gaitasunengatik prestakuntza-prozesuen eta lan-arloko orientazioan erabiltzaile izan daitezkeenak, etorkizunean gizarteratzea lor dezaten.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua	- Prestakuntza-ekintza berriak ezartzea - Lanbideretikiko komunikazio-bideak.

		- Reincorpora programak egindako lanerako orientazioko interakzioak. - Erakundeen arteko hitzarmena berrikustea, eguneratzea eta egokitzea.
	Emitzak	- Egindako prestakuntzen ondorioz jaulkitako diploma kopurua. - Egindako laneratze kopurua. - Hitzarmen eguneratua
Aurrekontua	2025	30.000 €
	2026	30.000 €

15. Neurri eragilea

Arreta Soziosanitarioko Euskadiko 2025-2030 aldirako Estrategia

Deskribapena	Euskadiko 2021-2024 aldirako Estrategia Soziosanitarioko ebaluaziotik abiatuta, Euskadiko 2025-2030 aldirako Arreta Soziosanitarioko Estrategia prestatu eta onetsi da.	
Izaera eragilea	Estrategiak osasun-sistema eta gizarte-zerbitzuen sistema modu bateratuan antolatzearen aldeko apustua egiten du, era horretan biztanleriaren premia konplexuei erantzuteko, batez ere kolektiborik zaugarrienen premiei. Izaera eragilea du, gaitasuna baitu: - Ongizatearen funtsezko dimentsioak integratzeko (eredu biopsikosoziala) - Sektoreen arteko sinergiak sortzeko - Baliabide publikoak optimizatzen ahalegintzeko - Arreta-ereduaren eraldaketa bultzatzeko - Beste politika osagarri batzuk aktibatuzko: estrategia ezarrita, hobetu egiten dira azpiegiturak, profesionalen prestakuntza, berrikuntza teknologikoa eta herritarren parte-hartzea.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-eskubi-deak baliatzeko aukera	9. helburua: Osasunaren arloan gizarte- eta genero-desberdinkeria murriztea 11. helburua: Herritarrek ingurumen osasungarri bat izateko duten eskubidea bultzatzea
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	13. helburua: Pobrezia belaunaldiz belaunaldi errepika dadin saihesteko eta haurren eta gazteen pobrezia aurre egiteko neurriak antolatzea 15. helburua: Urritasuna, gaixotasun mentala eta/edo mende-kotasuna duten pertsonen artean pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea
Helburuak	- Gobernantza soziosanitarioa hobetzea, jasangarritasun finantzarioa bultzatuta eta araudia tramitatuta. - Prebentzioari eta arretari dagokien planifikazioa bultzatzea (kolektiboen tipifikazioa, laguntza-ibilbideak, etxeko arriskuen detekzioa, informazio-trukea, baterako kudeaketa, koordinazio-plana egoitzetan, etab.) - Datuen kudeaketa eta jakintza transferentzia garatzea.	
Ardura duen entitatea	Osasun Saila Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailarekin, Osakidetzarekin, Foru Aldundiekin eta EUDELekin lankidetzan.	
Onuradunak	Batez ere kolektibo zaugarriak, aintzat hartuta edozein izan daitekeela zaugarria bere bizitzaren uneren batean. Genero-ikuspegia gehitzen da, zeharkako ardatz gisa.	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak	Prozesua Emaizak	Proiektu bakoitzak bere adierazleak ditu.
Aurrekontua	2025	Zehaztu gabe
	2026	Zehaztu gabe

16. Neurri eragilea

Osasun Mentalaren Estrategia 2023-2028 garatzea, babesgabetasun-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen

Deskribapena

Euskadiko Osasun Mentalaren 2023-2028 Estrategiak jasotzen ditu Euskadin nahasmendu mentalak dituzten pertsonen eta haien familien arreta hobetzeko printzipioak, helburuak eta ekintza-ildoak. Estrategia hori partaidetza-prozesu zabal baten emaitza da, Euskadiko Osasun Mentaleko Aholku Kontseiluan gauzatua, eta osasun mentalaren arloan inplikaturako profesionalen, adituen, elkarteen eta administrazio publikoen lankidetzak izan du.

- Izaera eragilea**

Estrategiak 10 ildo estrategiko ezartzen ditu:

 - Autonomia eta eskubideak. Pertsonarengan oinarritutako arreta.
 - Herritarren osasun mentalaren sustapena eta nahasmendu mentalen prebentzioa
 - Prebentzioa, detekzio goiztiarra eta jokabide suizidaren arreta
 - Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako arreta, komunitate-esparruko errehabilitazio-ereduan oinarritua.
 - Osasun mentala haurtzaroan eta nerabezaroan
 - Familientzako arreta eta esku-hartzea
 - Koordinazioa
 - Herritarren parte-hartzea
 - Formakuntza
 - Ikerketa, berrikuntza eta ezagutza
-

- Helburuak**

Estrategiak berariazko helburuak jasotzen ditu, babesgabetasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden eta buru-nahasmendua duten pertsonentzat. Horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

 - Gizarte-bazterketa, diskriminazioa, pobrezia eta marjinaltasuna jasateko arrisku handia duten arloetan esku-hartze komunitarioak garatzea eta ebaluatzea.
 - Gizarte-zerbitzuen, lehen mailako arretaren eta osasun mentalaren arteko lankidetzazko esku-hartzeak ezartzea eta ebaluatzea, osasun mentaleko arazoak prebenitzeko, eta, bereziki, zaurgarritasun handieneko biztanlerian arreta jartzea.
 - Pobreziaren ondorioei buruzko azterketak egitea, Garapen Iraunkorreko Helburuen arabera, babesgabetasun-egoera berriak eta horiek osasun mentala-ekin duten lotura kontuan hartuta.
 - Familia-ingurune disfuntzionaletan prebentzio-programa espezifikoak sartzeari, abusu-, indarkeria-, tratu txarren edo zaurgarritasun-egoerak identifikatzeko, egoera horiek jasaten duenaren osasun mentalean duten eragin bereziagatik.
-

- Inklusiorako V. Planarekin lerrotzea**

1. ardatza. Herritarren eskubideak eskuratzea	9. helburua. Osasunean dauden gizarte- eta genero-desberdintasunak murriztea
2. ardatza. Desberdintasun-arraien murrizketa	15. helburua. Urritasuna, buru-eritasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen arteko pobrezia eta bazterketa prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea.
4. ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentibilizazioa	29. helburua. Jarrera diskriminatzaileak prebenitzea eta haiei heltzea haien agerpen guztietan (adina, arrazismoa, xenofobia, islamofobia, aporafobia...)
-

Ardura duen entitatea	Osasun Saila	
Onuradunak	Buru-nahasmenduak dituzten pertsonak eta haien familiak	
Lurralde-eremua	EAE	
Adierazleak Aurrekontua	Bi urtez behin, ebaluazio-txosten bat egingo da estrategia horren hedapena ezagutzeko. Txosten horretan, definitutako prozesu-adierazleek lortutako emaitzak hartuko dira kontuan.	
Aurrekontua	2025	Zehaztu gabe
	2026	Zehaztu gabe

3. PROIEKTU ESPERIMENTALAK

Erakunde publikoek zein entitate sozialek sustatutako programa edo jarduketa esperimental gisa definitzen dira proiektu **esperimentalak**, ikuspegi berezia eta berritzailea eskaintzen dutenak eta, emaitza positiboak lortuz gero, beste arlo edo lurralde batzuetara hedatu daitezkeenak.

Gogora ekarri behar da, lehenengo plan operatiboan (2023-2024), gizarteratzearen arloko erakunde sozialek zein Inklusiorako Euskal Kontseilua osatzen duten eta Elkarrizketa Zibileko Mahaiko kide diren herri administrazioek 43 proposamen aurkeztu zituztela guztira, eta horietatik 17 proiektu esperimental hautatu zirela, *ad hoc* diseinatutako baremo bat eta planaren beraren barne-koherentziarekin lotutako irizpideak aplikatuta.

2025eko ekitaldiari begira, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak luzatu egin du I. plan operatiboko proiektu esperimentalei emandako finantzazioa, 1.049.561,98 euroko aurrekontu-partida baten bitartez. Planaren barruan finantzatu ez ziren proiektu esperimentalen artean, horietako lau bigarren plan honetan mantentzea erabaki da. Horrela, bigarren plan operatibo honek jatorrizko 17 proiektuetatik 14 mantentzen ditu, eta tartean daude V. Planaren barruan finantzazioa jaso zuten programak (10) zein, finantzazio hori jaso ez arren, nabarmendu beharrekoak direnak, inklusioaren esparruan duten izaera berezi, egituratzaile edo berritzaileagatik. Koadroan adierazten dira proiektuaren izena, eragile bultzatzaileak eta Inklusio Planaren zein ardatzetan duen eragina. Laburpen-koadro honen ondoren, proiektu bakoitzaren deskribapen-fitxa jasotzen da.

Aldi berean, 2025eko lehenengo sei hilekoan, I. plan operatiboan (2023-2024) jasotzen ziren proiektu esperimentalen ebaluazio-prozesua egin da. Ebaluazio horretatik ateratako ondorioetatik abiatuta, 2026an, eraginkortasun handiena erakutsi duten esperientziak garatzera eta finkatzera bideratutako inbertsioa egingo da. Azkenik, adierazi behar da 2026an 2.500.000 euroko inbertsio-partida onestea aurreikusten dela, inklusioko zein ibilbide mistoen proiektu esperimentaletarako.

	1. ARDATZA Herritasun- eskubideak bali- atzeko aukera	2. ARDATZA Desberdin- keria-arraka- lak murriz- tea	3. ARDATZA Berrikuntza, Koordinazioa eta Gobernan- tza	4. ARDATZA Parte-hartzea, komunitatea eta sentsibiliza- zioa	5. ARDATZA Inklusio-politika lurraldetasuna
Aurkigune, Aktibazio Soziokomunitarioko zentroak <i>Bizitegi elkarteak – Zubietxe elkarteak</i>		•		•	
Kontzilia, kontziliazioan laguntza behar duten gurasoen inklusio sozialerako espazioa <i>Gasteizko Udala</i>	•	•		•	
Nomada, etxegabeen eta bazterkeria-egoeran dauden pertonentzako jaialdia <i>Emaus Fundazio Soziala</i>				•	
Elkarrekin gehiago gara: Emakume etorkinentzako ekin- tzailatza-inkubagailua <i>Abarka ONGD- REAS Euskadi</i>	•	•		•	
Adimen-urritasun funtzionala duten artista plastikoen gizarteratzea eta lanbideratzea <i>Nahiarte Factory</i>	•	•			
Gaixotasun mentalaren eta adikzioen arreta pertsonali- zatuko prozesu soziosanitarioen arteko konexioa <i>Etorkintza Fundazioa</i>		•	•	•	•
Itsas lur Capacita: bazterkeria-egoeran dauden pertso- nen enplegarritasuna hobetzea lehenengo sektorean <i>Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioa</i>	•				
Aniztasun funtzionala eta/edo gaixotasun mentala du- ten pertsonen Bizimodu Independentea sustatzeko Bu- legoa <i>Arabako Foru Aldundia</i>		•	•	•	
Bazterkeria-egoeran dauden emakumeak gizartera- tzeko eta lanbideratzeko prozesuak – Zaindu, Saiatu eta Landu <i>Sartu Federazioa</i>	•	•	•	•	•
Enplegu Inklusiborako Proiektu Integrala: UBA Aterpe- txe-Eskola <i>Donostiako Udala</i>	•	•			
Sendiko, zaurgarritasun-maila handiko egoeran dauden familiekin arlo sozioedukatiboan eta/edo psikosozialean esku-hartzeko proiektu pilotua <i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	•	•			
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten etorki- nak erregularizatzeko eta lanbideratzeko ibilbideen W+ proiektua <i>Enplegu eta Inklusio sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza</i>	•	•			•
Etxebizitza publikoak kudeatzeko eta maizterrei arreta emateko zerbitzua <i>Alokabide. Eusko Jaurlaritza</i>	•		•		
Bazterkeria-egoeran dauden familia gurasobakarrak gi- zarteratzeko eta lanbideratzeko zerbitzua Emakumeak Sarean Indartuz <i>Margotu elkarteak</i>	•	•		•	

1. proiektu esperimen- tala

Aurkigune, Aktibazio Soziokomunitarioko zentroak

Deskribapena	Aktibazio Soziokomunitarioko Aurkigune zentroek inklusiorako alternatiba bat proposatzen dute; horrela, ez dira enpleguan zentratzen, baizik eta laguntza eta parte-hartze komunitarioko sareak sustatzen dituzte bazterkeria-egoeran dauden pertsonen inklusiorako eta ongizaterako funtsezko bide gisa. 2023ko eta 2024ko esperientzia pilotuaren ondoren, Aurkiguneren 2025erako helburu orokorra da Errekaldeberri eta Abusu-La Peña auzoetans sortutako aktibazio sozialeko zentro komunitarioak mantentzea, kolektibo zaurgarriak haien ingurunearekin eta komunitatearekin konektatzera bideratuta daudenak, haien gizarteratzea, parte-hartzea eta auzoan eragiteko gaitasuna areagotzeko helburuz, honako ekintza hauen bitartez: - Komunitatea osatzen duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak aktibatzea, taldetako eta jardueretako parte-hartzea sustatuta. - Parte hartzen duten pertsonen gaitasunak indartzea eta garatzea, auzoan eragina izateko. Era horretan, desestigmatizatu egiten da kolektiboa, inpaktu positiboa sortzen da inguruneko pertsonengan, eta inklusiotako ibilbideak gara daitezen ahalbidetu. - Bazterkeria-egoeran dauden pertsonen egokitutako merkatukoak ez diren jarduerak sor daitezen ahalbidetuko duten komunitatearen premiak detektatzea, eta horietatik abiatuta ongizate sozialari ekarpen bikoitza egitea ahalbidetuko duten beharrezko ekarpen baliotsuak egitea komunitateari. - Zentroan parte hartzen duten pertsonen auzoko pertsonen, kolektiboen eta eragileen premiak asetzea.		
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Proiektuaren berezitasuna edo berrikuntza enplegarritasuneko zailtasun larriak dituzten pertsonak erabat gizarteratzeko ibilbideak sortzean datza; horrek pertsonalki garatzeko eta komunitateari balioa emateko aukera ematen die, inguruneko pertsonen eta taldeen premiak asetzen dituzten merkatukoak ez diren jarduerak eginda. Horrela, rol sozialki aktiboa hartzen dute pertsona horiek, haien bizitzako une askotan hartu izan duten hartzaile-rolaren oso bestelakoa – nagusiki pasiboa dena–.		
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	<table border="0" style="width: 100%;"> <tr> <td style="width: 50%; vertical-align: top;"> 2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea 4. Ardatza. Erantzukidetasuna, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa </td><td style="width: 50%; vertical-align: top;"> 14. helburua: Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea 24. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratutako tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea. </td></tr> </table>	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea 4. Ardatza. Erantzukidetasuna, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa	14. helburua: Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea 24. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratutako tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea.
2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea 4. Ardatza. Erantzukidetasuna, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa	14. helburua: Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea 24. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratutako tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea.		
Helburuak	- Enplegarritasun zaila duten herritarren eta kolektiboen inklusio aktiboko prozesuak bultzatzea. - Herritarren, komertzioen eta organismoen parte-hartze aktiboa sustatzea, premia eta eskari indibidualak eta kolektiboak asez. - Hainbat ekintzaren bitartez, pertsonen arteko elkartasuna indartzea.		
Aurreikusitako ekintzak	- Parte-hartzaileak hautatzea eta informatzea. - Parte hartzeko trebatzea (trebetasun pertsonalak, gaikuntza soziala, motibazioa, aktibazioa, teknologia berriak, ahalduntze indibiduala eta/edo taldekoa) - Auzoko pertsonak eta komertzioak trebatzea (sentsibilizazioa eta informazioa) - Banakako laguntza espezializatua (diagnostikoa, aktibazio-plana, laguntza, jarraipena) - Barne-koordinazioa eta eragile komunitarioekiko koordinazioa.		

		- Ekarpak komunitarioko jarduerak ezartzea (animazio soziokulturala, parte-hartze soziala, lanak komertzioetan, hurbileko zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza...) - Zabalkundea eta sentsibilizazioa (liburuxkak, sare sozialak, hitzaldiak, bisitak...) - Inklusio-prozesuaren jarraipena, amaieran eta sei hilabete beranduago. - EHUKo Civersity ikerkuntza-taldearen ebaluazioa.
Lurralde-eremua		Errekaldeberri eta Abusu-La Peña auzoak (Bilbo).
Onuradunak		Bazterkeria-egoeran dauden eta enplegarritasun-maila txikia duten 40 pertsona.
Inplikaturako eragileak		Bizitegi elkarteak Zubietxe elkarteak
Adierazleak (aurreikusitakoak)	Prozesuari dagokionak	- Parte-hartzaile kopurua. - Kontaktaturako pertsona eta erakunde kopurua. - Zentrorako informazio bila joan den pertsona kopurua. - Prestakuntza-saioen kopurua. - Prestakuntzan parte hartzen duen pertsona kopurua. - Egiten den jarduerak komunitario kopurua - Jardueretan parte hartzen duen eta bazterkeria-egoeran dauden pertsona kopurua. - Jardueretan parte hartzen duen boluntario kopurua.
	Emaitzei dagokienak	- Erabiltzaileei zuzendutako gogobetetasunari buruzko inkesta. - Eragile komunitarioei zuzendutako gogobetetasunari buruzko inkesta.
2025eko aurrekontua	140.000 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	140.000 €	

2. proiektu esperimen- tala

Kontzilia, kontziliaziorako espazio bat behar duten gurasoen inklusio sozialerako laguntza-espazioa

Deskribapena

KONTZILIA Espazioa, udaletako Gizarte Zerbitzuetatik egiten den esku-hartze planaren barruan, kontziliaziorako espazio bat behar duten gurasoen inklusio sozialerako laguntza-zerbitzua da.

Programa horrek lan-bizitza, familia-bizitza eta bizitza pertsonala harmonizatzen laguntzen du, alde batetik, kalitatezko aisialdi-espazio bat emanda, haurren zaintzari dagokionez dauden kontziliazio-premiei erantzuten dieten eta, gainera, enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta lanbi-deratzeko aukerak bultzatzen dituen zerbitzu baten bitartez, kontziliatzeko ezin-tasun argia dagoenean.

Berrikuntza eta/edo be- rezitasuna

Elementu berritzaile modura, kontziliaziorako espazio hori aisialdi sozioedukatibo-arekin eta kulturarekin lotzearen aldeko apustua egiten du proiektuak, kolektibo zaurgarrienei hurbilduz eta zuzentasun soziala eta aukera-berdintasuna sustatuz. Kudeaketa publikoko udal lokal batean era horretako gizarteratze-proiektu bat ga-ratzeko lehenengo udal esperientzia da. Diseinuaren eta erabileraren aniztasunean eta malgutasunean oinarritzen da funtzionamendua. Bestalde, zeharkakoa eta ko-laboratiboa da, bigarren fasean hiriko gizarte-etxeen sarean integratuko baita.

Inklusiorako V. Planare- kin lerrokatzea

- | | |
|--|--|
| 1. Ardatza. Eskubi-deez baliatzea | 1. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden per-tsonen laguntzeko prozesuak hobetzea |
| 2. Ardatza. Despa-rekotasunak mu-rritzea | 12. helburua: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeen premiei heltzea ahalbidetuko duten neurri eta jarduketak espezifikak ezartzea |
| 4. Ardatza. Komuni-tatean parte har-tzea | 24. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratutako tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea |

Helburuak

- Haurrak zaintzeko premiei erantzutea eta premia horiek asetzea, haien adina eta ezaugarri pertsonalak kontuan izanda.
- Gurasoei haien erabateko garapenerako beharrezko ibilbide soziolaboralak garatzeko aukera emango dieten espazio seguruak eta zaintza-espazioak ego-kitzea.
- Zuzentasun-ikuspegi batekin, haien herritartasun-eskubideak baliatzeko zaur-garritasun sozialeko egoeran dauden pertsonen desberdinkeriak konpentsa-tuko dituzten baliabideak ezartzea.
- Familia gurasobakarrei edo genero-indarkeria jasaten duten emakumeei kon-tziliazio-espazioak baliatzeko modua ematea.
- Larrialdi-egoeretan laguntza-baliabide zehatzak baliatzeko modua ematea.

Aurreikusitako ekintzak

- Bereziki zaurgarriak diren kolektiboetako kide diren eta gizarteratze- eta lan-bideratze-prozesuetan murgilduta dauden adin txikikoen zaintzaileei zuzen-dutako arlo sozioedukatiboko eta psikosozialeko arreta eta esku-hartzea.
- Zaurgarritasun sozialeko egoeran dauden etxeetako adin txikikoen zainketa-premiak eta hezkuntza-aisialdiko beharrei erantzutea, espazio erakargarri eta atsegin bat eskainita.

Lurralde-eremua

Gasteiz

Onuradunak	Udaletako Gizarte Zerbitzuetatik egiten den esku-hartze planaren barruan, kontziliaziorako espazio bat behar duten gurasoak.	
Inplikaturako eragileak	Gasteizko Udala – Gizarte Politiken departamentua Enpresa kudeatzailea (Ludoland)	
Adierazleak (aurreikusitakoak)	Prozesuari dagozkionak	- Arreta eman zaien familien kopurua: 76. - Arreta eman zaien adin txikikoen kopurua: 107. - Garatutako aisialdiko jarduera kopurua. - Zerbitzua pertsonen premietara egokitzea. - Ezarritako helburuak betetzea. - Zerbitzuaren okupazioa. - Zerbitzuaren erabilera-denborak. - Zerbitzuaren erabilera-aldiak.
	Emaitzei dagozkienak	- Familien gogobetetasun-maila. - Zerbitzuaren kontziliazio-premietarako egokitzapen-maila (ordutegiak, erabilgarritasuna...) - Garatu den prestakuntza- edo lan-ibilbide kopurua.
2025eko aurrekontua	285.000 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	148.000 €	

3. proiektu esperimen- tala

Nomada, etxegabeen eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako jaialdia

Deskribapena

Etxegabeek eta/edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak eurek eta eurentzako egindako jaialdia; parte-hartze komunitarioa sustatzen duten jarduerak osatuta dago, eta programa eraikitze prozesua bera aktibazioko estrategia inklusibo bat da.

Jaialdiaren proiektu inklusiboaren asmoa da kultura-jarduera komunitarioak eta aktibismoak gauzatzea, bazterkeria-egoeran dauden pertsonak ahal-
duntzeko eta gizarte sentsibilizatzeko.

Berrikuntza eta/edo be- rezitasuna

Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen autonomia eta he-
rritartasun-eskubideak bultzatzeko estrategia berritzaile eta jarduteko aukera gisa
definitzen da; horretarako, aktibazio inklusiboko prozesuak sustatzearen aldeko
apustua egiten da, eta pertsona horiek sentsibilizazio-prozesuan bertan parte har-
tzen dute, prozesuaren zati gisa modu kolektiboan eraikiko diren jardueren bitar-
tez.

Prozesu horretan, kultura-sorkuntzaren ekarpenaren aldeko apustua egiten da gi-
zarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboak gizarteratzen laguntzeko estra-
tegia gisa, hori lagungarria izango baita kolektibo horiek beraien ingurunea eta in-
gurune horretan duten rola ulertzeko haien gaitasuna sustatzeko eta gizarte-
modu aktiboan parte hartzeko aukera emango dieten abilezia sozialak eta emozio-
nalak garatzeko.

Jaialdi inklusiboaren proiektua *C'est Pas de Lux* jaialdian (<http://cestpasduluxe.fr/>)
inspiratuta dago; Frantziako jaialdi hori arlo publikoko eta pribatuko hainbat era-
kunderik sustatzen du (erakunde sozialak, sormen-industria, merkataritza-erakun-
deak, udalerriak, ministerioak, etab.), tartean Frantziako Emaús fundazioak.

Inklusiorako V. Planare- kin lerrokatzea

4. Ardatza. Erantzukideta-
suna, parte-hartzea, akti-
bazio komunitarioa eta
sentsibilizazioa

25. helburua: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan
dauden pertsonak kulturako, aisialdiko edo astial-
diko jardueretarako sarbidea izan dezaten lagun-
tzea, ingurune komunitarioan

Helburuak

- Aktibazio inklusiboko prozesuak sustatzea bazterkeria-arriskuan dauden ko-
lektiboetan, kultura hartuta ahalduentzeko eta eraldaketarako estrategia gisa.
- Esku-hartze sozialeko profesionalen gaitasunak indartzea, kultura-adierazpen
ezberdinak eskuhartze-estrategia gisa erabilia.
- Herritarren erantzukidetasuna sustatzea, bazterkeria eragiten duten kausen
inguruko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-mailak areagotuz (estereotipoak
deseraikitze eta kohesio soziala sustatzeko, besteak beste).
- Inklusioa bultzatzeko tokiko ekosistemak sortzen laguntzea, herritarrek eta
gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboak elkarrengana hurbiltzeko
prozesuak sustatuz, kultura komunitarioaren kodeetatik.

Aurreikusitako ekintzak

- Pobrezia-egoeran, langabezian edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden
pertsonen zuzendutako laguntasun indibidualizatu eta espezializatua
- Esku-hartze sozial espezializatua, arreta sozioedukatiboa eta psikosoziala
- Kultura-eragileak eta hirugarren sektoreko erakundeak trebatzeko jardunal-
dia
- Sentsibilizazio, komunikazio eta zabalkundeko ekitaldiak eta jarduerak antola-
tzea.

Lurralde-eremua

Donostia, eta esku-hartze zehatzak Irunen, Errenterian, Pasaian.
Egitasmoa Zarautzera hedatzeko aukera aztertze asmoa dago.

Onuradunak	Gizarte-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak. Aurreko urteetako oinarrizko partehartzea gutxienez % 5 handitzea proposatzen da.	
Inplikaturako eragileak	Emaus Fundazio Soziala	
Adierazleak (aurreikusitakoak)	Prozesuari dagozkionak	- Proiektuarekin lotutako kultura-eragile kopurua. - Egindako baterako sorkuntza-saio kopurua. - Parte-hartze kopurua topaketa komunitarioetan eta sentsibilizazio-jardueretan. - Parte-hartzaile kopurua kultura komunitarioari eta inklusioari buruzko jardunaldian. - Parte-hartzaile kopurua programaren fase bakoitzean.
	Emaitzei dagozkienak	- Aldakuntza onuradunen parte-hartze sozialeko mailetan. - Baliabide komunitario eta kulturaletarako sarbidea areagotu izana. - Ongizate emozionala eta bizitza-kalitatea hobetu izanaren pertzepzioa, geure tresnen arabera. - Behin proiektua amaitu ondoren, jarduera komunitarioetan parte hartu izana. - Ekimen komunitarioen jasagarritasunaren eta jarraitutasunaren ebaluazioa - Gizarte-bazterkeriari eta haren kausei buruzko herritarren imaginario kolektiboa aldatu izana
2025eko aurrekontua	156.744,86 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	102.145,86 €	

4. proiektu esperimen- tala	Elkarrekin Gehiago Gara: Emakume etorkinentzako ekintzailtza-inkubagailua	
Deskribapena	Abarka GKEren Ekintzailtza-inkubagailuak emakume migratzaileei tresnak, laguntza eta espazio aproposa eskaintzen dizkie, bizitza duin bat izateko behar adina etekin ekonomiko eskuratzeko aukera emango dien negozio txiki bat jartzeko gai izan daitezzen. Prestakuntzaren, laguntasun pertsonalizatuaren eta <i>coworking-eko</i> espazio baten bitartez, "Elkarrekin gehiago gara" egitasmoak emakume migratzaileen ahalduztze ekonomikoa eta soziala sustatzen ditu; horrez gain, alderdi emozionala lantzen da eta laguntza-sareak sortzen dira. Proiektu horren ikuspegiaren helburua da parte-hartzaileen bizi-kalitatea hobetzea eta tokiko sare sozial eta ekonomikoa indartzea. Gainera, emakume migratzaileek ekintzaileen egoeraren inguruko sentsibilizazio soziala lantzen da, sare sozialen, komunikabideen eta jardueren bitartez; elkartasun-azokak egiten dira, adibidez.	
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Proiektua emakume migratzaileen kolektiboari dagokion profil espezifikoari zuzenduta dago, pertsona erdigunean jartzen du eta oso malgua da; era horretan, handiak dira arrakastarako aukera, emakumeak enplegua sortzeko ahaldunduz. Izaera berritzailea du, izan ere, migratzaileei laguntza ematera eta lana aurkitzeko eta gizartera egokitzeko gai izan daitezzen tresnak ematera bideratutako proiektu ugari dagoen arren, proiektu honetan esku-hartze mota ezberdinen arteko koordinazioa nabarmentzen da; hala, emakume onuradunek aldi berean etekin ekonomikoak, sozialak eta emozionalak jasotzen dituzte. Halaber, hainbat udal, erakunde publiko eta REAS Euskadi osatzen duten enpresak inplikatzeko planteatzen du proiektuak.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzeak aukera	4. helburua: Enplegu-politika aktiboak enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen kasuetara egokitzea
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	12. helburua: Bazterkeria-egoeran dauden emakumeen premiei erantzun, enplegu-politiketan genero-ikuspegia txertatu 16. helburua: Migrazio eta asiloaren arloan kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu baten eraikuntza aurrera egitea.
	4. Ardatza. Erantzukidetasuna, parte-hartzea eta sentsibilizazioa	26. helburua: Herritarrak pobrezia, desberdinkeria eta gizarte-bazterkeriako egoeren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko aukera emango duten ekintzak bultzatzea.
Helburuak	- 2023ko eta 2024ko parte-hartzaileei jarraipen pertsonalizatua egitea, banakako eta taldekako tutoretzen bitartez, eta funtsezkoak diren alderdien inguruan, hala nola haien negozioen finkapena, merkataritza-sareetarako sarbidea eta hazteko estrategiak. - Programaren irismena oraindik parte hartu ahal ezin izan duten emakume migratzaileen kolektiboetara hedatzea (% 50ean), erakundeekin aliantza berriak ezarri. - <i>Coworking</i>-erako espazioaren azpiegitura eta haren auto-kudeaketa hobetzea. - Prestakuntza- eta laguntasun-esparruak zabaltzea, edukiak dibertsifikatuz eta espezializatuz. - Finantzazioaren bilaketa eta proiektuaren jasagarritasuna eta ebaluazioa indartzea. - Proiektuaren ikusgarritasuna eta sentsibilizazioa bultzatzea	
Aurreikusitako ekintzak	- Parte-hartzaile gehiago sartzea eta aurrekoentzako finkapen-planak egitea - Sway plataforma digitalaren bitartez, ekintzailtzaileentzako edukiei buruzko prestakuntza - Orientatzailearen laguntasun pertsonalizatua. - Negozioak testatzea, eta jarraipen intentsiboa egitea, esperimentaziorako eta ezarpen praktikorako. - Finantzazioa eskuratzeari, harreman-sareei eta hazkunde-plana egiteari buruzko tailerrak.	
Lurralde-eremua	Donostialdeko, Oarsoaldeko eta Bidasoako (Gipuzkoa) edozein udalerri	

Onuradunak	Zaugarritasun-egoeran dauden eta, ekintzailertzan interesa izanik, prestakuntza eta laguntasuna jaso nahi duten emakume migratuak.
Inplikaturako eragileak	Abarka GGKE REAS EUSKADI, Migrantoria, La Tercera Pata, Momentu, Worklan Bizkaia, Tapuntu
Adierazleak (aurreikusitakoak)	Prozesua - Emandako ikastaro kopurua: 5 modulu nagusi Sway plataforman + aurrez aurreko saioak. - Prestakuntza-orduen guztizko kopurua: pertsona bakoitzeko 200 eta 240 ordu artean. - Prestakuntza parte hartu dutenen kopurua: Zuzeneko 30 onuradun (13 gaur egun eta 17 berri) - Egindako tutoretza indibidual kopurua: Parte-hartzaile bakoitzeko gutxienez 10 ordu. - Emakume enpresari eta adituekin mentoretzak: 10 saio urtean. - Garatutako negozio-planen kopurua: 30 proiektu landu dira. - Abian jarritako edo indartutako negozio kopurua: gutxienez 20 negozio sendotu edo finkatu dira. - <i>Networking</i>-eko eta ekintzailertzako ekitaldi kopurua: 5 topaketa. - Negozioak testatzeko espazio kopurua: elkartasun-azokak - Laguntza-sare eta erakunde kolaboratzaileekin egindako topaketen kopurua: <i>networking</i>-eko 5 saio REAS Euskadirekin eta besteekin. - Sare komunitarioekin lotutako parte-hartzaile kopurua: onuradunen % 70 ekintzailertza-ekosistemetan integratuta daude. - Sway aplikazioan moduluak osatzen dituzte parte-hartzaileen % 90ek gutxienez, prestakuntza digitalaren % 75a gutxienez amaituz. - Sortutako baliabide digital kopurua: gidak, bideoak eta prestakuntza-materiala Sway plataforman. - Online plataformetan izandako interakzio eta parte-hartze kopurua. - Antolatutako hitzaldi eta jardunaldi kopurua: Ekintzailertzaren eta inklusioaren inguruko hiru sentsibilizazio-ekitaldi gutxienez. - Sare sozialetan eta komunikabideetan egindako komunikazio- eta ikusgarritasun-kanpaina kopurua.
	Eraitzaileak - Haien negozioa sortu duten parte-hartzaileen %: parte-hartzaileen % 60 gutxienez. - Lana lortu duten eta haien lan-egoera hobetu duten parte-hartzaileak (%): % 70eko hobekuntza haien autonomia ekonomikoan. - Sortutako negozioei esker enplegu kopurua: 15-20 lanpostu berri. - Kanpoko finantzazioa eskuratu duten parte-hartzaileen kopurua: gutxienez % 50ek lortzen ditu mikrokredituak edo diru-laguntzak. - Haien autoestimua eta ekintzailertzarekiko konfiantza hobetu duten parte-hartzaileak (%): % 80 - Komunitatean integratuago sentitzen direla adierazi duten parte-hartzaileak: % 85 - Haien egoera administratiboa erregularizatzeko oztopoak gainditu dituzten parte-hartzaileak (%): egoera irregularrean dauden emakume migratzaileen % 30ek lortzen du egoera erregularizatzeko bidean aurrerapenak egitea. - Onuradunen prekarietate ekonomikoaren murrizketa-portzentajea: % 50ek gutxienez diru-sarrerak handitzen ditu.
	Emaitzak
2025eko aurrekontua	173.756,12 €
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	130.656,12 €

5. proiektu esperimentalak	Adimen-urritasun funtzionala duten artista plastikoen gizarteratzea eta lanbideratzea	
Deskribapena	Programa honek, urritasun psikikoa edo adimen-urritasuna duten artisten garapen pertsonala eta profesionala bultzatuta, haien gizarteratzea eta lanbideratzea sustatzen du, ingurune artistiko profesional bat eskainiz, haien gaitasun produktiboei balioa emanez eta haien balioa ezagutzera emanez. Gaur egun, bi negozio-ildo garatzen ditu: alde batetik, artelanak saltzen ditu nazioarteko arte-azoketan; bestetik, artistek oihalezko eta dekorazioko euskarri ezberdinetan egindako diseinuak saltzen ditu. Online denda ere badute.	
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Sorkuntza artistikoaren bitartez lan egiten da, eta EAEn urritasun psikikoa edo adimen-urritasuna duten artistak promozionatzen dituen erakunde bakarra da. Horrela, urritasun psikikoa edo adimen-urritasuna duten eta orain arte eskainitako programak egoki etortzen ez zaizkien pertsonen gizarte- eta lan-bazterkeriako egoerak prebenitzen eta hobetzen dira. Ibilbide luzeko nazioarteko esperientzien azterketatik abiatuta sortu zen proiektua. Negozio-lerroen garapena bera berritzailea da, ekonomia soziala eta inpaktu positiboa hartzen baititu barne. Gainera, lan-merkatutik baztertuta dauden kolektibo baten gaitasunen inguruko pertzepzio soziala aldatzen du. Azkenik, osagai kolaboratibo garrantzitsua du, hainbat administrazio eta elkarren laguntza eta parte-hartzea baitu.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzeako aukera 2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	4. helburua: Enplegu-politika aktiboak enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonetara ego-kitzea 15. helburua: Desgaitasuna, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasuna duten pertsonen artean pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea
Helburuak	- Urritasun psikikoa eta/edo adimen-urritasuna duten pertsonen kolektiboari haien garapen pertsonalarekin eta profesionalarekin jarraitzeko aukera ematea, jardun artistikoaren bitartez, diziplina anitzetan oinarrituta, eta haien bizitzako edozein unetan. - Desestigmatizazioa, inklusioa eta gizartearen aitortza lortzeko bidean aurrerape-nak egitea, haien lana kultura-ingurune-ko testuinguru artistikoetan erakutsita (tailerrak, performanceak, zuzeneko ekintzak, museoetara bisitak...), eta zuzeneko harremana izanda publikoarekin eta beste eragile sortzaile batzuekin, haien "gaitasun ezberdinak" erakutsiz. - Aukera profesional berriak sortzea artearen, sorkuntzaren eta sormen-industria-ren arloetan.	
Aurreikusitako ekintzak	- 850 orduko prestakuntza-plana - Lan-arloko orientazioa eta enplegua bilatzen laguntzea. - Zuzeneko arreta parte-hartzaileei, gizarte- eta hezkuntza-arloetako esku-hartzea, proiektuaren kudeaketa - Inklusioari buruzko promozio-, komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduerak. - Negozio-lerroak: salmentak B2C, B2B bezeroei, Marketin-plana, sareen erabilerak, online salmenta eta harreman komertzialak	
Lurralde-eremua	Bizkaiko Lurralde Historikoa	

Onuradunak	Urritasun psikikoa edo adimen-urritasuna duten pertsonak, Bizkaian bizi direnak eta sorkuntza artistikoan lan egin nahi dutenak.	
Inplikaturako eragileak	Nahiarre Factory Kolaboratzaileak: Bilbao Formarte, Koop. Elk. Txikia, Lanbide, BFA, EJ.	
Adierazleak (aurreikusita-koak)	Prozesuari da- gozkionak	- Onuradun egonkorren kopurua 2025ean: 42 - Onuradun puntualen kopurua 2025ean: 100 - Urritasun psikikoa edo adimen-urritasuna duten pertso- kin lan egiten duten eskola, elkarte, lanerako ikastegi eta egoitzekin izandako kontaktu kopurua: 50 - Ikastetxeetarako egindako ate irekien jardunaldi kopurua: 18 - Prestakuntza-orduak: 850 - Onuradunen gogobetetasun-maila. - Publizitate-kanpainak: 4 - Ikastetxe, Elkarte, Fundazio eta Unibertsitateekin egindako aliantza kopurua: 25
	Emaitzei da- gozkienak	- Merkatura daitezkeen arte-piezak ekoizteko gaitasuna du- ten pertsonen kopurua: 42 - Ordainpeko lan bat izateko aukera izango luketen pertso- nen kopurua: 25 - Kualifikazioa hobetu izana (Lanbidek abalatutako Diploma eskuratzea) - Amaieran, laneratzea. - Autonomia ekonomiko handiagoa. - Prestakuntza jasotzen duten pertsonen autoestimua hobetu izana: 42 lagunek - Fakturazioa handitu izana: - Online erosi duten pertsonen kopurua handitu izana: 100
2025eko aurrekontua	148.940 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	96.000 €	

6. proiektu esperimentala

Prozesu soziosanitarioen arteko konexioa, gaixotasun mentala eta adikzioa dituen pertsonan oinarritutako arretarako

Deskribapena

Pertsona erdigunean jartzen duen arreta integralerako sistema eta prozesu soziosanitarioen interkonexiorako proiektuaren helburua da osasun mentaleko eta adikzioako arazoak dituzten eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, ibilbide pertsonal integral eta malgu baten bitartez, haien gizarteratzea bultzatzeko.

Etorkintza Fundazioak Korte Zubin duen Arreta Zentroak garatzen du programa, eta adikzioak tratatzeko egoitza-prozesu batean ospitaleratuta eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonekin zein gizarte-bazterkeriako arriskuan eta egoeran dauden Busturialdeko beste pertsona batzuekin esku hartzen du.

Berrikuntza eta/edo berezitasuna

Ibilbide pertsonalizatua, integrala eta malgua ezartzea planteatzen du proiektuak, prozesu metodologikoan sistemak elkarren artean konektatuta (soziala, osasun-sistema, judiziala, enplegu-sistema) eta gizarteratzeko laguntasun intentsiboa emanda, administrazioekin lotuta eta aktibazio komunitarioan eta lotura sozialean oinarrituta. Abiapuntuko premisa da adikzioak izanik gizarte-bazterkeriako arriskuan eta/edo egoeran dauden pertsonen arreta emateko beharrezkoa dela metodologia eta egoerari aurre egiteko modu espezifiko bat erabiltzea, bai eta aldi bereko gaitasun profesional klinikoak eta sozialak ere. Hala, esku-hartze sozial bat eraginik gabe gelditu daiteke osasunaren dimentsioa aintzat hartzen ez bada; era berean, esku-hartze kliniko mugatua izango da ez bada kontuan hartzen osasunaz aparte pertsonaren beste dimentsio batzuk, osasun-sistemak askotan saihesten dituenak: gaitasunak eskuratzea, bizi-dinamismoa, ingurune soziala, lan-arloa, dimentsio ekonomikoa, judiziala edo prestakuntzari dagokiona.

Proiektu honek beste eskuhartze-arlo batzuetan oso hedatuta dauden eredu teoriko eta eskuhartze-eredu estandarizatuak hartzen ditu; eredu horiek oraindik ez daude oso garatuta inklusiorako euskal zerbitzuetan, ezta osasun mentalaren eta adikzioen esparruan ere. Azken hartzaileentzat aurreikusitako emaitzez harago, pertsona erdigunean jartzen duen arreta-ereduaren aplikazioari eta garatutako esperientziari buruzko jardunbide egokien eskuliburu batean jaso nahi dira emaitzak.

Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea

2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	15. helburua: Desgaitasuna, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasuna duten pertsonen artean pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea
3. Ardatza. Berrikuntza, Koordinazioa, Antolamendua eta Gobernantza	21. helburua: Gizarte-bazterkeriarekin lotutako arazoaren sektore arteko lana bultzatzea, zerbitzuak koordinatzeko eta integratzeko formulak bultzatuz.
4. Ardatza. Erantzukidetasuna, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa	24. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratutako tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea.
5. Ardatza. Inklusio-politikak lurralkotzea	30. helburua: Bazterkeriaren arazoari heltzeko, koordinatzeko eta prebenitzeko toki eta eskualde mailako mekanismoak bultzatzea

Helburuak

- Gizarte-bazterkeriako egoeran eta arriskuan dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea, ibilbide pertsonalizatu baten bitartez.
- Ongizate emozional maila hobetzea eta antsietate- eta estres-mailak murriztea.
- Pertsonaren harreman-integrazioa eta parte-hartze komunitarioa hobetzea.
- Pertsonen osasun, gizarte-zerbitzu, justizia, hezkuntza eta enplegu sistemak baliatzeko dituzten aukerak hobetzea
- Inplikaturako sistemen arteko konexioa bultzatzea (osasuna, gizarte-zerbitzuak, justizia, hezkuntza, enplegua)

	- Pertsona erdigunean jartzen duen arreta-ereduari buruzko lan-sare komunitario bat bultzatzea.
Aurreikusitako ekintzak	- Pobrezia-egoeran, langabezian edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertso- nei zuzendutako laguntasun indibidualizatu eta espezializatu - Esku-hartze sozial espezializatu, arreta sozioedukatiboa eta psikosoziala. - Sistema arteko esku-hartzeak eta parte-hartze komunitarioa - Sentsibilizazio, komunikazio eta zabalkundeko ekitaldiak eta jarduerak antolatzea:
Lurralde-eremua	Busturialdea eskualdea (Bizkaia)
Onuradunak	Osasun mentaleko eta adikzioekin lotutako arazoak izanik, gutxiengo etnikoetako ki- deak edo zaurgarritasun-maila handiko emakumeak izanik, gizarte-bazterkeriako arris- kuan edo egoeran dauden pertsonak.
Inplikaturako eragileak	Etorkintza fundazioa Kolaboratzaileak: Busturialdeko Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak; Eusko Jaurlari- tzako Osasun Saila; Gernika-Lumoko ospitalea eta Gernika-Lumoko osasun-etxea –Ba- rrualde ESIa; eskualdeko Hirugarren Sektoreko Erakundeak
	- Onuradun kopurua: 10 - Hautaketa-prozesuko elkarriketa kopurua: 12 - Diagnostiko eta plan pertsonalizatuaren kopurua - Laguntasun-orduen kopurua: pertsona bakoitzeko 10 ordu - Laguntasun-zerbitzuen kopurua: 440 - Hezkuntza-saioen kopurua: 440 - Laguntza sozialeko saioen kopurua: 440 - Saio psikoterapeutiko kopurua: 40 - Onuradunen gogobetetasun-maila: 8 - Parte hartu duten erakundeen gogobetetasun-maila: 8 - Sistemen arteko laguntza- eta konexio-sareen topaketa kopurua: 25 - Laguntza emozionalerako ordu kopurua pertsona bakoitzeko: 10 ordu - Kudeaketan laguntasuna emateko orduen kopurua: 20 ordu per- tsonako - Zabalkunderako aurrez aurreko saioen kopurua: 2 - Koordinazioko baliabideen eta erakundeen kopurua: 7
Adierazleak (aurreiku- sitakoak)	Prozesua - Proiektuan parte hartu duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea: Ba- tez besteko puntuazio orokorra % 18koa baino handiagoa izatea bi eskaletan, esku-hartzea amaitu eta sei hilabetera - Ongizate emozional maila hobetu eta antsietate- eta estres-mailak murriztu izana: Batez besteko puntuazioa azpi-eskalan % 18koa baino handiagoa izatea. - Pertsonaren harreman-integrazioa hobetu izana: Batez besteko pun- tuazioa azpi-eskalan % 18koa baino handiagoa izatea. Emaitzak - Pertsonaren gizarteratzea hobetu izana: Batez besteko puntuazioa azpi-eskalan % 18koa baino handiagoa izatea. - Pertsonen osasun, gizarte-zerbitzu, justizia, hezkuntza eta enplegu- ko sistemak baliatzeko dituzten aukerak hobetu izana - Inplikaturako sistemen arteko konexioa bultzatu izana (osasuna, gi- zarte-zerbitzuak, justizia, hezkuntza, enplegua) - Lan-sare komunitario bat bultzatu izana, pertsona erdigunean jar- tzen duen arreta-ereduari jarraituz.
2025eko aurrekontua	86.190,78 €
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	57.368 €

7. proiektu esperimen- tala

Itsas lur Capacita: bazterkeria-egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea lehenengo sektorean

Deskribapena	Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioak Itsas lur jarri du abian, nekazaritzako elikagaien arloko berrikuntzako gizarteratze-enpresa, kolektibo ahulenei prestakuntzarako eta lan-merkatu arrunterako sarbidea errazten diena, lehen sektoreko jardueren bitartez (barazkien manipulazioa, barraskiloen esterilizazioa eta kremen pasteurizazioa), bai eta hezkuntza eta turismo jasangarriko jardueren bitartez ere, ekonomia zirkularraren parametroen arabera. Capacita proiektuaren helburua da bazterkeria-egoeran dauden pertsonak trebatzea, aipatutako Itsas lur gizarteratze-enpresan eta/edo lehen sektoreko jardueretan lanean has daitezen. Prestakuntza eta lan-esperientzia jasotzeko aukera emateaz gain, bizitzako zailtasunak kudeatzeko laguntza ematen du programak, onuradunek haien proiektu pertsonala garatzen jarraitu ahal izan dezaten. Hasiera batean, Ezkerraldean eta Meatzaldean aplikatzea aurreikusten da. Proiektuak Fundazioaren eta proiektuan parte hartuko duten erakundeen arteko lankidetzatza-protokoloak aurreikusten ditu.
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Ekintzailatzeko eta Berrikuntza Sozialeko proiektua da, eta proiektuaren nekazaritzako elikagaien sektoreko ekoizpen-, eraldaketa-, komertzializazio- eta berrikuntza-ereduak aukera ematen die kolektibo ahul edo behartsuenei prestakuntza jasotzeko eta lan-merkatu arruntera sartzeko. Prestakuntza eta lan-esperientzia jasotzeko aukera emateaz gain, bizitzako zailtasunak kudeatzeko laguntza ematen du programak, onuradunek haien proiektu pertsonala garatzen jarraitu ahal izan dezaten. Azken helburua da zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak laneratzea, tokiko garapeneko enpresa eragile batean ekoizpen-jarduera bat garatuta, zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala, soziolaborala eta profesionala hobetuko dituzten gaitasun profesionalak eskuratzeko eta garatzeko laguntasun intentsibo eta indibidualizatuarekin batera..
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzeko aukera 4. helburua: Enplegu-politika aktiboak enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten pertsonetara egokitzea
Helburuak	- Kolektibo ahulei enplegua eskuratzeko aukera ematea, tokiko garapeneko enpresa eragile batean ekoizpen-jarduera bat garatuta - Enplegarritasunarekin zerikusia duten aldagai guztiak identifikatzea; horretarako, pertsonen baliabide pertsonalak, digitalak, prestakuntzakoak eta profesionalak identifikatu beharko dira, eta enplegarritasuna hobetzeko prozesu osoan zehar garatu beharreko epe laburrerako eta ertainerako helmugak formulatu, modu adostuan. - Proiektuaren garapenean zehar parte-hartzaileen enplegarritasuna hobetuko duten gaitasun soziolaboralak eta digitalak hobetzea - Lan-merkatuaren eskarierara egokitutako gaitasun teknikoak eta profesionalak areagotzea - Ibilbide indibidualizatueta inplikaturako sistema/eragile guztien arteko lankidetzatza-protokoloak eta -formulak ezartzea, eta pertsona erdigunean jartzen duen arreta eskaintzea. - Pertsonak lan-merkatu arruntean edo babestuan sar daitezen lortzea. - Isolamendua prebenitzea eta parte-hartzaileen harreman-integrazioa hobetzea.

Aurreikusitako ekintzak	- Nekazaritzako elikagaien industriarako prestakuntza. - Lan-arloko orientazioa eta enplegua bilatzen laguntzea. - Laguntasun sozial indibidualizatu eta espezializatu.	
Lurralde-eremua	Bilboko Ezkerraldea eta Meatzaldea (Bizkaia)	
Onuradunak	Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak, batez ere 45 urtetik gorakoak, eta gutxienez emakumeen % 40.	
Inplikaturako eragileak	Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioa Kolaboratzaileak: Sestaoko eta Barakaldoko Lanbide; Tokiko Garapenerako Agentzia; Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Gizarte Zerbitzuak; Helduen Hezkuntza; Cáritas; Meatzaldeko Osasun Mentala.	
Adierazleak (aurreikusi-takoak)	Prozesuari da- gozkionak	- Parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera banakatuta: 12 parte-hartzaile (% 40 emakumeak) - Izenpetutako Inklusiorako Plan Pertsonalizatu kopurua: 12. - % 90eko asistentzia proposatutako ekintzera - Puntuazioa > 8 ebaluazio-galdetegietan - Pertsonen % 80k gutxienez eskuratu du gai kalifikazioa prestatuntza-fasean. - Pertsonen % 67k gutxienez eskuratu du gai kalifikazioa ibilbide osoan.
	Emaitzei da- gozkienak	- Gutxienez parte-hartzaileen % 50 sartu da lan-merkatu babestuan edo normalizatuan - Laneratu diren pertsonen % 50ek gutxienez bere enplegua mantentzen du kontratua hasi eta bi hilabetera. - Enplegarritasuna hobetzea - Lan-gaitasunak hobetzea - Autonomia pertsonala areagotzea. - Bizi-kalitatea hobetzea
2025eko aurrekontua	59.990 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	47.992 €	

8. proiektu esperimentalak	Aniztasun funtzionala eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonen Bizimodu Independentea sustatzeko Bulegoa	
Deskribapena	Bizimodu Independentea Sustatzeko Bulegoak (BISB) aholkua eta laguntza emango diete askotariko laguntza-premiak dituzten lurralde historikoko pertsonen (urritasun fisikoa, adimen-urritasuna, urritasun sentsoriala eta/edo gaixotasun mentala), bizimodu autonomoa izan ahal dezaten, urritasun-egoeran dauden pertsonen burujabetza eta autonomia morala sustatzeko proiektuen oinarri filosofikoarekin eta helburuekin bat etorritik, nazioarteko organismoek –NBEk eta OMEk, esaterako– eta ordenamendu juridikoak aitortzen dituzten eskubideak eta gomendioak sustatuz eta defendatuz. Bulego berriaren eginkizunen artean, nabarmentzekoak dira pertsonen premiak baloratzea, haien bizitza-proiektua aukeratu ahal izan dezaten; laguntza pertsonala aktibatzeako laguntzak ematea; eta laguntzaile pertsonalen lan-poltsa bat sortzea, eta laguntzaileok trebatzea, besteak beste. 2025eko maiatzaren 6an sinatu zen lankidetzaren hitzarmena erakunde kudeatzailerarekin. Koordinatzaile bat du (Gizarte-langile profila duena) lanaldi osoan, eta psikologo bat lanaldi erdian.	
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Baliabide aitzindaria –kolektiboaren beraren auto-kudeaketarekin eta “berdinen arteko” lankidetzarekin, urritasuna duten Euskadiko pertsonen kolektiboaren aldetik eskari handia duena. Ingurune hurbilean badago antzerako aurrerikari bat, Nafarroan.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	15. helburua: Desgaitasuna, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasuna duten pertsonen artean pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea
	3. Ardatza. Berrikuntza, Koordinazioa, Antolamendua eta Gobernantza	21. helburua: Bazterkeria sozialarekin lotutako arazoaren sektore arteko lana bultzatzea, zerbitzuak koordinatzeko eta integratzeko formulak sor daitezen lagunduz
	4. Ardatza. Erantzukidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sentsibilizazioa	24. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzen eta horiei aurre egiten lagunduko duten tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea
Helburuak	Helburu nagusia da bizimodu independenteko proiektu bati ekitea nahi dioten aniztasun funtzionala duten pertsonen bideratutako baliabide bat aktibatzea: - Ahalik eta gehien atzeratzea pertsona egoitza-zerbitzu kolektibo batean instituzionalizatzeko unea, bizimodu independente bat izan dezan, beharrezko laguntzekin: • Norbere bizitza-estiloa hautatzeko aukera ematea. • Erabiltzaileak etxean ondo molda daitezen laguntzea, ikaskuntza erabilgarriaren bitartez. • Pertsona horien ingurune komunitarioan integratu daitezen eta modu aktiboan parte har dezaten laguntzea. - Haien segurtasun- eta autoestimu-sentimendua areagotzea. - Haien eskubideak gainerako pertsonen berdintasun-baldintzetan baliatzen laguntzea.	
Aurreikusitako ekintzak	- Informazioa, orientazioa eta aholkularitza. - Haien bizitza-proiekturako premiak identifikatzen laguntzea, eta baliabiderik egokienekin harremanetan jartzea. - Babes- eta laguntza-premietarako soluzioak bilatzea.	

	- Asistentzia pertsonala aktibatze laguntzak, espezialitateen arabera bereizitako profil profesionalak dituzten profesionalen lan-poltsa bat, prestakuntza eta bilaketa eta hautaketarako bitartekaritza sortuta eta kudeatuta. - Bizimodu independenterako entrenatzen eta aldi batean esperimentatzen laguntzea. - Bizimodu Independenteko proiektu bat abiarazteko interesa duten, era horretako proiektu bat gauzatzeko prozesuan dauden eta proiektua dagoneko finkatuta duten pertsonen artean kezkak eta esperientziak trukatzeko ekimenak sustatzea. - Bizimodu-eredu independentearen eta filosofiaren inguruko sentsibilizazioa. - Erakundeen arteko eta hirugarren sektoreko erakundeekiko koordinazioa eta lankidetzak.
Lurralde-eremua	Arabako Lurralde Historikoa
Onuradunak	Bizimodu autonomia izateko zailtasunak dituzten aniztasun funtzionala eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonak
Inplikaturako eragileak	- Arabako Foru Aldundia. - Geuk Erabakiz (elkarteen elkartea)
Adierazleak (aurreikusitakoak)	Prozesua - Bulegora joan den pertsona kopurua <i>(Bulegoaren arreta-estaldura neurtzen du)</i> - Dagokion epearen barruan erantzundako eskabideen/eskarien portzentajea <i>Erantzun-prozesuaren eraginkortasuna ebaluatzen du)</i> - Aktibatutako bizimodu-proiektu independenteen kopurua <i>Esku-hartze pertsonalizatuaren maila adierazten du)</i> - Hala nahi duten pertsonen bizimodu autonomoko proiektuak garatu ahal izan ditzaten emandako laguntza kopurua <i>(Eskainitako laguntzen maila adierazten du)</i> - Erabiltzaileekin, laguntzaile pertsonalekin eta langileekin egindako trebakuntza-jarduera kopurua <i>Jarduerekiko eta etengabeko prestakuntzarekiko konpromisoa neurtzen du)</i> - Pertsonen parte-hartze maila erabakiak hartzerakoan <i>(Burujabetzarekiko konpromisoa neurtzen du)</i> - Koordinazio-batzarren maiztasuna <i>(Beste zerbitzu batzuekiko sareko lana ebaluatzen du)</i> - Irisgarritasun-maila arreta-kanaletan (fisikoa eta digitala) <i>(Ingurunearen egokitzapen-maila adierazten du)</i>

Resultados	- Bizimodu Independenteko haien planean helmugak lortu zituzten erabiltzaileen portzentajea (%). <i>(Laguntasunaren inpaktu zuzena neurtzen du).</i> - Erabiltzaileen laneratze- edo hezkuntza-tasa. <i>(Autonomian eta parte-hartze sozialean lortutako hobekuntza adierazten du).</i> - Haien autonomia funtzionala hobetu duten erabiltzaileen portzentajea (%). <i>(Pertsonak, BISB bulegoaren laguntza jaso ondoren, Eguneroko Bizitzako Jarduerak modu independentean egiteko duten gaitasunean lortutako aurrerapen-maila neurtzen du)</i> - Erabiltzaileek antzemandako gizarteratze-maila. <i>(Pertsonak komunitatean duten parte-hartze aktibo mailari eta parte-hartze sozialari dagokionez –berdintasun- eta onarpen-baldintzetan– dagokionez duten sentipena neurtzen du)</i> - Erabiltzaileek zerbitzuekiko duten gogobetetasun-indizea <i>(BISB bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuek erabiltzaileen espektatibak, premiak eta pertzepzioak zein mailatan betetzen dituzten neurtzen du)</i>	
	2025eko aurrekontua	71.204,56 € 106.806,84 € (2026)
	2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	Ez

9. proiektu esperimentalak	Emakumeak: Talentuak eta Aukerak (Zaindu, Saiatu eta Landu): bazterkeria-egoeran dauden emakumeak gizarteratzeko prozesuak	
Deskribapena	Gizarteratze- eta lanbideratze-proiektua, oso degradatuta dauden zonetako eta bazterkeria-maila handiko emakumeentzako (zaintzaileak, prestakuntza-maila txikia, lan-prekarietata, egoera irregularra, hauskortasun emozionala...). Lan-arloko prozesu sozialetara eta prestakuntza-prozesuetara bideratutako ahalduntzea eta aktibazioa bultzatu nahi dira, ibilbide pertsonalizatu eta integraleko prozesu baten bidez Programak balizko hiru ibilbide aurreikusten ditu, emakume bakoitzaren egoeraren eta premien arabera: - Zaindu - Zainketa pertsonalerako, emozionalerako, autonomiarako eta ahalduntzerako espazioa. - Saiatu - Oinarritzeko eta zeharkako gaitasunak eskuratzeko espazioa. - Landu - Laguntasun soziolaboralerako espazioa. Hiru ibilbide horiek aldi berean edo elkarren segidan nahasten dira, emakumeen premien arabera, pertsonalizazio-irizpide batekin eta malgutasun handiz. Emakume bakoitzak erreferentziatzeko figura profesional baten laguntza izango du, ibilbideetan modu indibidualean eta kolektiboan laguntzeaz gain, “bisagra” lana egingo duena sistema anitzekin (Gizarte Zerbitzuak-Lanbide-Osasuna-Etxebizitza).	
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Proiektu berezia eta berritzailea da, jarduketak tradizionalagoak ez dituzten elementu berriak aurkeztzen baititu. Zeharkakoa eta integrala da eta, hala, esku-hartze mota ezberdinak koordinatzen dira (maila indibidualean zein talde-mailan); era horretan, aldaketak sor ditzakete proiektuaren “xedearekin” lotutako esparru ezberdinetan. Proiektu “egituratzailea” da, izan ere, proiektu bat komunitate, udalerrri edo lurralde baten egiturazko ardatza izan daiteke. Esku hartzeko metodologia malgua da, eta “beti jartzen du pertsona erdigunean”, emakumeak beraien prozesuan eta erabakiak hartzerakoan partaide nagusitzat hartuz, haien premia eta eskarietara egokitutako ahalduntze-espazio seguruak sortuz, aukerak baliatzea ahalbidetuz. Azkenik, proiektu integral bat da, pertsonekin beraien egoera hobetzeko beharrezkoak diren dimentsio guztiak lantzea ahalbidetzen duena. Prozesuak esku-hartze indibidualen (tutoretza eta esku-hartze indibidualizatuak) zein taldeko esku-hartzeen (espazio sozioedukatiboak / prestakuntza-espazioak) lantzeko aukera ematen du proiektuak.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzea	1. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen laguntzeko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esparruan 4. helburua: Enplegu-politika aktiboak indartzea eta enplegurako zailtasun handienak dituzten pertsonen (emakumeak, etorkinak, etab.) premia espezifikoetara egokitztea
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	12. helburua: Bazterkeria-egoeran dauden emakumeen premiei erantzuteko neurriak ezartzea, eta gizarte- eta enplegu-politiketan genero-ikuspegia bultzatzea.
	3. Ardatza. Berrikuntza, Koordinazioa, Antolamendua eta Gobernantza	19. helburua: Gizarte-bazterkeriako arazoaren sektore artetiko lana bultzatzea, zerbitzuak koordinatzeko eta integrazteko formulak sortuta.
	4. Ardatza. Erantzukidetasuna, parte-hartzea eta sentsibilizazioa	23. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta babes-sistema publikoak baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen estaldura ematera bideratutako jarduketak garatzea.

	5. Ardatza. Gizartera- tze-politiken lurralde- kotzea	30. helburua: Bazterkeriaren arazoari heltzeko, koordina- tzeko eta prebenitzeko toki eta eskualde mailako mekanis- moak bultzatzea.
Helburuak	- Zaindu : segurtasun-espazio bat eskaintzen du, non emakumeek arlo pertsona- larekin, emozionalarekin eta harremanen arloarekin lotutako alderdiei buruz hitz egin eta horiei aurre egin baitieziaiekete. - Saiatu: hizkuntza-ezagutza hobetzen du, ahalduntzerako, autonomiarako eta garapen pertsonal, sozial eta laboralerako tresna gisa. - Landu: ibilbide soziolaboralak hobetzen ditu, laguntasun soziolaboralaren bitar- tez.	
Aurreikusitako ekintzak	- Zaindu: ahalduntzearekin, norbere burua zaintzearekin eta inklusioarekin lotu- tako jarduerak; enplegarritasuna eta prestakuntza- eta lan-gaitasunak; herri- tartasun aktiboa bultzatzea. - Saiatu: hizkuntza-gaitasunetan trebatzeko banakako eta taldeko jarduerak. - Landu: emakumeei haien premia sozialak eta administratiboak asetzen lagun- tzea, eta online bizitzarako tutoretza eta laguntza ematea, ahalduntzeko ingu- rune berri gisa.	
Lurralde-eremua	EAEko hiru lurraldeetako lau lekutan dago abian proiektua.	
Onuradunak	Gizarte-bazterkeriako arriskuan, hainbat egoeratan eta zaurgarritasun handiko ego- eran dauden eta gizarteratzeko eta/edo laneratzeko zailtasunak dituzten emaku- meak	
Inplikaturako eragileak	Sartu Taldea osatzen duten erakundeak: Arabako Sartu elkarte, Zabaltzen Sartu Koop., Erroak elkarte eta Gaztaroa SARTU Koop. Kolaboratzaileak: Udal Gizarte Zerbitzuak, Lanbide eta beste baliabide komunitario batzuk	
Adierazleak (aurreikusita- koak)	Prozesuari da- gozkionak	- Diagnostiko-prozesua egiten ari diren emakumeen kopurua: 145 - Diagnostikoa eguneratuta duten emakumeen kopurua - Emakumeen % 80k garatu izana gizarteratze- eta lanbideratze- plan pertsonalizatua - Gizarteratze- eta lanbideratze-plana garatzen eta amaitzen du- ten emakumeen % 75ek zerbitzuaren erabilgarritasunaren ba- lorazio positiboa egitea. - % 60k enplegurako oinarritzko gaitasunak eta gaitasun digitalak eskuratzeko prestakuntza-prozesuetan parte hartzea - % 20k prestakuntza-prozesu kualifikatzaileetan parte hartzea - % 50ek osatzea bere prestakuntza- eta lan-ibilbideak. - Arreta jaso duten emakumeen profila: adina, lurralde-eremua, prestakuntza-maila...
	Emitzei da- gozkienak	- Gizarteratze- eta lanbideratze-plana garatzen duten emaku- meen % 75ek bere egoera hobetu izana - % 10ek enplegua lortzen du - % 80k bere egoera pertsonala, soziala eta laborala hobetu izana. - Gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuaren jarraipena, amaieran. - Gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuaren jarraipena, pro- grama amaitu eta sei hilabetera.
2025eko aurrekontua	230.725 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	155.400€	

10. proiektu esperimentalak **Enplegu inklusiborako Proiektu Integrala: UBA Aterpetxe-Eskola**

Deskribapena	UBA Aterpetxe-Eskola enplegua sustatzeko laborategi bat da, non enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboek zuzendutako enplegu inklusiborako prestakuntza-programekin esperimenta daitekeen, bai eta aterpetxearekin eta ingurunearekin lotura duten ekimen ekintzaileak testatu ere. Horretarako, enplegu-politikak eta -programak aktibatze eta erabiltzaileen jarduerarekin lotutako prestakuntza, orientazio eta laguntasun pertsonalizatuko ibilbideak sustatzeko aukera-espazio bihurtu da UBA aterpetxea (2012az geroztik dago martxan).
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Proiektuaren barruan, akordioak sortzen dira eragileekin, proiektuan parte hartzen duten pertsonen laguntasun integraleko ibilbideak eskaintzeko helburuz, lan-merkatuan sar daitezen ziurtatuz. Horrela, interes konbergentetun harreman-nodo bat sustatzen du Aterpetxeak, eta hor daude ostalaritzaren eta hotelen sektoreko enpresa-elkarteak; sektore horietako espezialitateak eskaintzen dituzten ikastegiak; eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboekin lan egiten duten erakundeak. Hala ere, UBA Aterpetxe-Eskola tokiko komunitatearekin konexioa izango duen ingurunera irekitako espazio erakargarri bihurtu nahi da, batez ere hurbileko azoetako herritarrek erakartzeko ahalmena areagotuz (Martutene, Altza, Intxaurrondo...).
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herri-tartasun-erakundeak baliatzea 3. helburua: Enplegua sortzea eta enpleguaren kalitatea hobetzera bideratutako politika publikoak bultzatzea 4. helburua: Enplegu-politika aktiboak indartzea eta enplegurako zailtasun handienak dituzten pertsonen (emakumeak, gazteak, etorkinak, urritasuna dutenak, 45 urtetik gorakoak, etab.) premia espezifikotara egokitzea.
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrazalaren murriztea 12. helburua: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeen premiei erantzuteko neurri espezifikoak ezartzea, eta gizarte- eta enplegu-politiken diseinuan genero-ikuspegia txertatzea.
Helburuak	- Hirian enplegu-proiektu inklusibo, erreferente eta berritzailea eraikitzea. - Aterpetxea aukera-espazio bihurtzea, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboek zuzendutako enplegu-politikak eta -programak, gizarteratze-kontratuak, prestakuntza-ekintzak, profesionalitate-ziurtagiriak, praktikak eta beste aktibatze baliabideak duena. - Aisialdiaren eta turismoaren sektorean enplegua aurkitzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonen laguntzea. - Aterpetxea egokitzea, politika aktiboak garatzeko aukera-espazio bat modu eraginkorragoan garatu ahal izateko. - Ostalaritzaren eta jatetxeen sektorearekin lotutako funtsezko eragileei aliantza- eta akordio-nodo bat sortzea, proiektuan parte hartzen duten pertsonen laguntasun integraleko ibilbideak eskaintzeko helburuz, lan-merkatuan sar daitezen ziurtatuz.
Aurreikusitako ekintzak	- Enplegurako zeharkako prestakuntza. - Lanerako orientazioa. - Enplegurako laguntza- eta aktibazio-tutoretzak.

Lurralde-eremua	Donostia
Onuradunak	Lanbiden inskribatutako langabeak, batez ere gazteak edo 45 urtetik gorakoak, DSBE/BGDS jasotzen duten pertsonak edo luzaroko eskatzaileak
Inplikaturako eragileak	Donostiako Udala – Donostiako Sustapena Gizarteratze-enpresa kolaboratzailea
Adierazleak (aurreikusi- takoak)	Prozesuari da- gozkionak - Onuradun kopurua: 12. - Zeharkako Prestakuntzako ordu kopurua: 150 ordu. - Orientazioko eta laguntasuneko ekintza kopurua: 120 ordu; ordubeteko 10 ekintza 12 pertsonako - Orientazioko ordu kopurua: 120 ordu
	Emaitzei da- gozkienak - Lan-kontratu motak eta kopurua. - Kontraturako enpleguaren kalitatea (partziala, egonkorra) - Goragoko mailako kualifikazioa eskuratzeko prozesua. - Enplegarritasuna hobetu izana amaieran. - Enplegarritasuna hobetu izana hiru hilabete geroago. - Enplegarritasuna hobetu izana sei hilabete geroago.
2025eko aurrekontua	107.784 € (2025)
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	99.000 € (2025)

11. proiektu esperimental	Sendiko, zaurgarritasun sozial handiko egoeran dauden familiekin arlo psikosozialen esku hartzeko programa	
Deskribapena	Sendiko programa Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenez planteatu zen, indarkeriazko testuingurua duten, egitura positiborik ez duten, harreman onuragarri eta positiboan premia indartuko duten laguntzen behar handia duten edo adin txiki-koaren egoera emozionalean, akademikoan edo harreman-egoeran eragina izan dezaketen familia-desorekak dituzten eta zaurgarritasun sozial handiko egoeran dauden familiei zuzendutako esku-hartze psikosozialeko proiektu pilotu gisa. Jarraipen-lantaldeak hautatzen ditu familiak modu adostuan ikastetxeek proposatuta, eta hiru esparrutan aldi berean garatzen da eskuhartze-lana: Familian (banakakoa-taldekoa); Eskolan (irakasleak eta eskola) eta Komunitatean (familiaren ingurune baliabide eta sare guztien laguntza, lotura eta koordinazioa). Egoera horiek detektatzeko espazio egokiena ikastetxeak direla uste da eta, horregatik, Lanbide Heziketako Partzuergoarekin lankidetzan, zaurgarritasun-tasa handieneko hartzaileak eta erabiltzaileak dituzten ikastetxeak hautatzen dira.	
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Esku-hartze psikosoziala eta sozioedukatiboa familiek, hezkuntza-eredu inklusibo batean, ahalik eta gaitasun pertsonal eta sozial handiena garatu dezaten lortzera bideratzen da, bereziki erreparatuz harreman-bizitza onuragarria eraikitzeari. Familiak modu adostuan hautatzen dira ikastetxeek proposatuta, eta hiru esparrutan aldi berean garatzen da eskuhartze-lana: Familian (banakakoa-taldekoa); Eskolan (irakasleak eta eskola) eta Komunitatean (lotura familiaren ingurune baliabide eta sare guztiekin). Berritzailetzat jotzen da, orain arte ez baitzegoen era horretako esku-hartzerik Bizkaian. Orain arte, ez da garatu babes-espazio publikoetara iritsi ez diren familientzako babes-esparru komunitariorik. Hala nahi izanez gero, haien eskubide subjektiboa baliatzeko gizarte-zerbitzuetara jo dezaketen familiak detektatzen ditu programak. Beraz, programaren izaera berritzailea beharra duten eta espazio horietara iristen ez diren familiei babes-esparru komunitarioa ematean oinarritzen da.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatzeko aukera	1. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarte-laguntza emateko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuen eta prestazioen esparruan.
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	14. helburua: Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea.
Helburuak	Familiei eta gurasoei dagokienez: - Hobetu ditzatela guraso-trebetasunak eta adin txikikoak hazteko trebetasunak - Indartu ditzatela familia-loturak eta harreman-ondasunak - Lor ditzatela hobekuntzak adin txikikoentzako seguruak eta babesleak diren loturazko espazioen eraikuntzan - Hobetu dezatela familiako premia afektiboak eta emozionalak heltzeko modua. - Hobetu ditzatela haien babes sozialeko sareak komunitatean. Irakasleei, hezkuntza-komunitateari eta Gizarte Zerbitzuen sistemari dagokionez: - Erdiets ditzatela ikasleen premia emozionalak eta loturazkoak ulertzeko eta haiei arreta hobea emateko tresnak. - Esperimentatu ahal izan daitezela arreta-ibilbide partekatutakoak, adin txikikoekiko eta haien familiekiko esku-hartzeetarako gaitasunak eta trebetasunak hobetzeko.	

	- Txerta dadila genero-ikuspegia familiekiko esku-hartzean, desabantaila-egoerak eta genero-estereotipoak detektatzeko eta horiei aurre egiteko.	
Aurreikusitako ekintzak	- Balorazioa, Esku-hartze psikosoziala, banakako eta/edo taldeko diagnostikoa eta tratamendua eta familiar-erlazionala. - Ikastetxeetako irakasleak familien errealitatearen inguruan trebatzea eta gaitzea. - Familiek lagun dituzten profesionalak (irakasleak eta eskola) orientatzea, ikuskatzea eta haiei lagun egitea, alderdi sozialetik edo hezkuntzaren alderditik. - Ikastetxeetako profesionalekin zein baliabide komunitarioen arloko profesionalekin (Gizarte Zerbitzuak eta beste batzuk) sarean lan egitea.	
Lurralde-eremua	Bizkaiko Lurralde Historikoa	
Onuradunak	Zaurgarritasun sozial handiko egoeran dauden familiak: indarkeriazko edo gatazka-maila handiko familia-testuingurua; laguntza-premia handia; adin txikikoaren ongizatean eragina izan dezaketen desoreka familiarrak; genero-arrazoiagatiko diskriminazio handia...	
Inplikaturako eragileak	Bizkaiko Foru Aldundia Kolaboratzailea: Lagungo fundazioa	
Adierazleak (aurreikusi-takoak)	Prozesuari dagozkionak	- Ikasturte bakoitzeko 35 familiari arreta eman izana. - Ikastetxe bakoitzean eta eragile komunitarioei aplikatzeko protokoloa - Familiekin egindako eskuhartze-saioen kopurua - Irakasleekin egindako gaikuntza-saioen kopurua.
	Emitzei dagozkienak	- Guraso-trebetasunak hobetu eta familia-loturak eta komunikazioa hobetu izana. - Errendimendu akademikoa eta eskola-ingurunean jokatutakoa hobetu izana - Familiar genero-diskriminazioko egoerak hobetu izana - Prestakuntza eta sentsibilizazio profesionala premia bereziak dituzten familien errealitatearen aurrean. - Profesionalen artean eta familia-dinamiketan genero-ikuspegia txertatzea.
2025eko aurrekontua	120.000 € 120.000 € (2026)	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	Ez	

12. proiektu esperimentala

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten etorkinak erregularizatzeko eta lanbideratzeko ibilbideen W+ proiektua

Deskribapena

W proiektu pilotua lanerako baimena erregularizatu aurreko egoera administratiboan egonik, DSBE jasotzen duten pertsonak gizarteratzeko eta lanbideratzeko ekimen da. Proiektuaren helburu orokorra da laneratzeko prestakuntza-ibilbide bat osatzea. Ibilbide horren barruan sartzen dira DSBE jasotzen duten parte-hartzaile etorkinen prestakuntza-prozesua lanpostuan; laguntasun- eta tutoretza-prozesua; eta laguntza tekniko, haien egoera administratiboa erregularizatzen laguntzeko. Prozesu hori gutxienez urtebeteko lanaldi osoko lan-kontratu batekin amaitu behar da.

Premia bikoitzari erantzuten dio proiektuak: alde batetik, haien egoera erregularizatzeko aukera ematen die parte-hartzaileei eta, bestetik, eskualdeko enpresek haien premietara egokitzen diren profilak dituzten pertsonak trebatu eta kontratatu ditzakete. Proiektuak sustraitze sozialagatiko erregularizazio-prozesuetan inplikaturako administrazioen arteko beharrezko kolaborazioak egituratzen ditu (Lanbide, udaltako oinarritzko gizarte-zerbitzuak, EJ, Immigrazioa, Atzeritartasuna...), ibilbide oso pertsonalizatuak eraikiz.

2023-2024 urteko fase esperimentalean lortutako emaitza onen ondoren, bigarren fasea aktibatu da –W+ izenarekin–, 2024ko irailaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte iraungo duena, eta aurreko proiektuarekiko hobekuntzak jasotzen dituen (prestakuntza areagotu egin da, beka gehiago, tasak ordaintzeko partida, jarraipena hiru hilabetera eta sei hilabetera...)

Berrikuntza eta/edo berezitasuna

Proiektuaren eta berrikuntzaren funtsa da eragile eta maila anitzeko harremanen konplexutasun handiko ingurune batean esku hartzeko modua; inguruabar horretan gauzatzen dira gizarteratzeko, lanbideratzeko eta sustraitze sozialagatik erregularizatzeko ibilbideen prozesu pertsonalak. Malgua izateko eta pertsona, enpresa eta administrazioekiko harremanak zaintzeko gaitasuna –prozesuaren arintasuna eta arazoei aurrea hartzea ahalbidetuko duten harremanen sare bat ehunduz– funtsezko elementua da proiektuak arrakasta izan dezan.

- Zeharkakoa eta integrala, era horretan efektu eraldatzailea sektore osora edo “balio-katera” maximizatu ahal izan dadin.
- SARTU taldea osatzen duten lau erakundek modu kooperatiboan garatutako proiektua da, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin.
- Sarean lan egiten da baliabideekin, esku-hartzea globala eta koordinatua izan dadin ahalegintzeko.

Eskuhartze-metodologia malgua da, “pertsona beti erdigunean” jartzen duena, eta prozesu osoan zehar pertsonari etengabe jarraipena egin eta laguntasuna ematen diona.

Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea

1. Ardatza. Herritar-tasun-eskubideak baliatzeko aukera

4. helburua: Enplegu-politika aktiboak indartzea eta enplegurako zailtasun handienak dituzten pertsonen (emakumeak, gazteak, etorkinak, urritasuna dutenak, 45 urtetik gorakoak, etab.) premia espezifikotara egokitzea.

2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea

16. helburua: Nazioarteko migrazioen eta asiloaren arloan kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu baten erakuntzan aurrera egitea.

5. Ardatza. Inklusio-politikak lurraldekotzea

30. helburua: Bazterkeriaren arazoari heltzeko, koordinatzeko eta prebenitzeko toki eta eskualde mailako mekanismoak bultzatzea

Helburuak

Helburu bikoitza, honako hauei erantzunez:

	- egoera irregularrean dauden enpresei (ez dute berehalako kontratu-harreman bat lortzea ahalbideratuko lieken lan-egoera administratibo erregularizatu bat; ez dituzte ezagutzen enplegua eskuratzeko bideak eta beraien burua enpresetan aurkezteko modurik egokiena; ez dituzte ezagutzen lan-arloko ohitura eta jarrera egokiak; egoera ekonomiko prekarioa dute; kasu batzuetan, ez dute hizkuntza ezagutzen; eta ez dute laguntza-sarerik eta kontakturik) eta - enpresei (haientzako ez da erraza izaten oinarritzko lanpostuak betetzea, ezta bide luze eta konplexua eskatzen duen tramitazio administratibo baterako konpromisoa hartzea ere, langilea aldeztetik aurrerik ezagutu gabe).				
Aurreikusitako ekintzak	- Parte-hartzaile izan daitezkeen pertsonak erakartzea eta informatzea. - Ebaluazio indibiduala eta enplegarritasun-diagnostikoa egitea. - Diagnostikotik abiatuta, ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea. - Enpresan "neurritza egindako" prestakuntza garatzea. - Tutoretza pertsonala lanpostuan. - Tramite administratiboetarako laguntasuna - Prospekzioa enpresetan. - Enplegua, kontratazio-fasean lagunduta eta, ondoren, enpresaren zein pertsonaren jarraipena eginda				
Lurralde-eremua	EAE				
Onuradunak	Haien egoera administratiboa dela-eta, lan-baimenik eskuratu ezin duten eta DSBE jasotzen duten etorkinak				
Inplikaturako eragileak	Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Inklusio Zuzendaritza, Lanbideekin lankidetzan Kolaboratzailea: SARTU Taldea: Arabako Sartu elkarte, Erroak, Zabaltzen SARTU eta Gaztaroa SARTU Koop.				
Adierazleak (aurreikusi-takoak)	<table> <tr> <td>Prozesuari dagozkionak</td><td> - Erakarritako eta informatutako pertsona kopurua. - Enplegarritasun-balorazioa eginda duten pertsonen kopurua - Prestakuntza hasi duen pertsona kopurua. - Prestakuntza amaitu duen pertsona kopurua. - Prospekzioa egin zaien enpresa kopurua. </td></tr> <tr> <td>Emaitzei dagozkienak</td><td> - Lan-kontratu kopurua - Kontratu mugagabeen portzentajea (%) - Lanaldi osoko kontratuen portzentajea (%) - Erregulazio administratibo kopurua </td></tr> </table>	Prozesuari dagozkionak	- Erakarritako eta informatutako pertsona kopurua. - Enplegarritasun-balorazioa eginda duten pertsonen kopurua - Prestakuntza hasi duen pertsona kopurua. - Prestakuntza amaitu duen pertsona kopurua. - Prospekzioa egin zaien enpresa kopurua.	Emaitzei dagozkienak	- Lan-kontratu kopurua - Kontratu mugagabeen portzentajea (%) - Lanaldi osoko kontratuen portzentajea (%) - Erregulazio administratibo kopurua
Prozesuari dagozkionak	- Erakarritako eta informatutako pertsona kopurua. - Enplegarritasun-balorazioa eginda duten pertsonen kopurua - Prestakuntza hasi duen pertsona kopurua. - Prestakuntza amaitu duen pertsona kopurua. - Prospekzioa egin zaien enpresa kopurua.				
Emaitzei dagozkienak	- Lan-kontratu kopurua - Kontratu mugagabeen portzentajea (%) - Lanaldi osoko kontratuen portzentajea (%) - Erregulazio administratibo kopurua				
2025eko aurrekontua	457.022 €				
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	Ez				

13. proiektu esperimen- tala

Etxebizitza publikoak kudeatzeko eta maizterrei arreta emateko zerbitzua

Deskribapena

Proiektu eragile hori Larreagaburuko zuzkidura-bizitokietan atezaintzako jar-
tze, espazio komunak kudeatzeko eta maizterrei arreta emateko zerbitzua-
ren esperientzia pilotutik sortu zen (Bilbo, 2022). Eraikina oso narriatuta ze-
goen, bizikidetza-arazo handiak zeuden, eta segurtasun-zerbitzua behar zuen
egunean 24 orduz. Proiektuaren helburua izan da bizikidetza hobetzea, espazio
komunak zaintzea eta erabiltzaileak ingurunearekin lotzea, kidetasun sentimen-
dua areagotzeko.

Atezaintza-zerbitzua gizarteratze-enpresa batek ematen du, eta hezitzaile-lan-
talde baten lankidetzat du, sor litezkeen gatazketan bitartekaritza-lanak egiteko
eta gatazka horiek konpontzeko.

2024an, beste bi urtetarako berritu da zerbitzua.

Larreagaburuko esperientziak emaitza onak lortu dituela ikusita, atezaintza-zer-
bitzuaren esperientzia zuzkidura-bizitokiaren 12 promoziotara eta etxebizitza so-
zialen bi promoziotara hedatzeko asmoa dago.

Berrikuntza eta/edo bere- zitasuna

Zerbitzu honetan, nabarmentzekoa da hainbat politika publiko estrategikoren
arteko osagarritasuna:

- Etxebizitza-politikak: etxebizitza publikoen eraikinen mantenua hobetzen
da; arazo teknikoen bolumena murriztu; hurbileko arreta ematen zaie
maizterrei, egunerokotasuneko gorabeherak kudeatzeko
- Enplegu-politikak: bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen-
tzako enplegua sortzen da
- Gizarteratze-politikak: bizikidetza hobetu da, eta areagotu egin da inguru-
neko kide izatearen sentimendua.
- Kontratazio publikoko politikak: kontratu erreserbatuei buruzko jarraibi-
deak onesten dituen Gobernu Kontseiluaren 2018ko martxoaren 13ko
erabakia betetzeko ekarpena egiten du.

Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea

1. Ardatza. Herritarta-
sun-eskubideak balia-
tzea

5. helburua: Etxebizitzarako eskubide subjektiboa ga-
ratzea eta sustapen publikoko etxebizitzak eskura-
tzeko aukera ematea bazterkeria-egoeran edo -arris-
kuan dauden pertsonen

3. Ardatza. Berrikun-
tza, Koordinazioa, An-
tolamendua eta Go-
bernantza

22. helburua: Herri administrazioetan erantzukizun so-
ziala eta erosketa sozial arduratsua bultzatzea

Helburuak

- Politika publikoak (Etxebizitza, Enplegua, Gizarteratzea eta Kontratazio
Publikoa) koordinatzeko esperientzia bat pilotatzea, era horretan, balia-
bide publikoak modu eraginkorrean kudeatuta, sistema guztien helburuak
betetzen laguntzeko: etxebizitza publikoen parke jasangarriagoa; enplegu
inklusiboko aukerak sortzea; eta herri administrazioek egiten duten eros-
keta sozial arduratsua areagotzea.
- ALOKABIDERi pertsonak bizi diren komunitatearekin eta espazioarekin lotu
daitezen bultzatzeko tresnak ematea, inklusiotik, ingurune seguru eta in-
tegratzaileak sustatuz.
- Etxebizitza publikoen parkea modu jasangarrian kudeatzea, etxebizitza
horietan bizi diren pertsonen ongizatearen hobekuntza eta parke horren

	mantenu eraginkorra egiteko premia konbinatuz, enplegu inklusiboko aukerak sortuz. - Kontratu erreserbatuei buruzko jarraibideak onesten dituen Gobernu Kontseiluaren 2018ko martxoaren 13ko erabakia betetzen laguntzea.	
Aurreikusitako ekintzak	- Atezaintza- eta aholkularitza-zerbitzua martxan dago zuzkidura-bizitokiaren 10 promoziotan + etxebizitza sozialen 2 promoziotan. - Bizilagunen artean sor litezkeen gatazketan bitartekaritza-lana egitea eta gatazka horiek konpontzea.	
Lurralde-eremua	EAE	
Onuradunak	- Zuzkidura-bizitokiaren erabiltzaileak. - Bizitoki horiek kokatzen diren ingurune komunitarioak. - Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan egonik, enplegu inklusibo bat eskuratzeko aukera duten pertsonak. - Inklusio-programak garatzen dituzten Euskadiko hirugarren sektore sozialako erakundeak.	
Inplikaturako eragileak	Alokabide. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila. Kolaboratzailea: GIZATEA –EAEko Gizarteratze-enpresen Elkarte	
Adierazleak (aurreikusitakoak)	Prozesuari dagokionak	- Ezarri diren atezaintza- eta aholkularitza-zerbitzuen kopurua.
	Emitzei dagokionak	- Sortu den lanpostu inklusibo kopurua. - ALOKABIDEk gizarteratze-enpresentzako erreserbatutako kontratazio-bolumena handitu izana, horrela, Eusko Jaurlaritzak ezarritako portzentajera iristeko. - Zerbitzua ezarri den promozioetan, erreklamazio komunitarioak murriztu izana. - Zerbitzua ezarri den promozioetan, intzidentzia tekniko bolumena eta horiekin lotutako gastua murriztu izana. - Zuzkidura-etxebizitzetako maizterren bizi-kalitatea hobetu izana. - Maizterrek zerbitzua ezarri zenetik egiten duten komunitateari buruzko balorazioa hobetu izana.
2025eko aurrekontua	115.000 € 460.000 € (2026)	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	Ez	

14. proiektu esperimentala	Bazterkeria-egoeran dauden emakumeak eta familia gurasobakarrak gizarteratzeko eta lanbideratzeko zerbitzua – Emakumeak Sarean Indartuz	
Deskribapena	Arreta integraleko zerbitzu espezializatua, gizarte-bazterkeriako egoeran eta/edo arriskuan dauden (migratzaileak, indarkeria matxistaren biktimak, luzaroko lan-gabeak...) emakumeen eta emakumeak buru dituzten familia gurasobakarren gizarteratze-prozesuak sustatzen dituen, ikuspegi integrala, sektore arteko koordinazioa eta genero-ikuspegia barne hartzen dituzten gizarteratze-ibilbideen bitartez. Horretarako, esku-hartze psikosozial eta/edo sozioedukatibo pertsonalizatuak, gizarte- eta lan-arloetako laguntasuna, enpresekiko bitartekaritza, talde sozio-edukatiboak eta psikosozialak eta parte-hartze eta inpaktu komunitarioko jarduerak antolatzen dira, eta laguntzako eta sostengu ekonomikoko sareak sortzen dira emakumearen zein bere familiaren oinarritzko premietarako eta/edo garraio-premietarako, gabezia horiek ez daitezen izan oztopo haien gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuetan.	
Berrikuntza eta/edo berezitasuna	Proiektua eragilea da, bazterkeria-maila handiko kolektibo bati ikuspegi pertsonalizatu, erlazional, integral, sekzio arteko, kultura arteko, familiar, komunitario eta koordinatu batekin, eta genero-ikuspegiarekin erantzuten diolako. Laguntasun psikosozial eta sozioedukatiboaz gain, gizarte- eta lan-arloko esku-hartzeak berariaz heltzen dio familia-gunearen oinarritzko premiai asetzen ditu (hala nola garraioa, kontziliazioa eta elikadura), premia horiek ez daitezen oztopo izan gizarteratze- eta lanbideratze-prozesurako.	
Inklusiorako V. Planarekin lerrokatzea	1. Ardatza. Herritartasun-eskubideak baliatze zeko aukera	1. helburua: Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen laguntzeko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuen eta prestazioen esparruan
	2. Ardatza. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	12. helburua: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeen premiei erantzuteko neurri espezifikoak ezartzea, eta gizarte- eta enplegu-politiken diseinuan genero-ikuspegia txertatzea.
	4. Ardatza. Erantzukidetasuna, parte-hartzea, aktibazio komunitarioa eta sensibilizazioa	25. helburua: Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen kulturako, aisialdiko edo astialdiko jardueretarako sarbidea izan dezaten laguntzea, ingurune komunitarioan
Helburuak	- Emakumeen eta familien gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzea, autonomia-, ongizate- (fisiko-psikologiko-sozial) eta ahalduztze-maila handiagoak sortuz. - Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden emakumeen eta familia gurasobakarren gizarteratzea, ongizate psikosoziala, ahalduztzea eta autonomia pertsonala sustatzea. - Haurren eta nerabeen babesa eta ongizatea bultzatzea - Belaunaldi batetik besterako pobrezia-aren transmisioa hausten laguntzea. - Aurreko urteetan aktibatutako prozesuei eta ibilbideei jarraitutasuna ematea. - 2024an esku-hartzea amaitu duten emakumeen proiektu ondorengo jarraitapena egitea. - 2024an egindako laneratzeen jarraitapena egitea.	
Aurreikusitako ekintzak	- Lan-arloko orientazioa eta enplegua bilatzen laguntzea. - Harrera, diagnostikoa eta gizarte-laguntzako plana egitea.	

		- Laguntasun psikologiko eta sozioedukatibo indibidualizatua. - Laguntza sozioedukatiboko talde-ekintzak - Laguntza eta parte-hartze komunitarioko sareak sortzea
Lurralde-eremua		Bizkaiko Lurralde Historikoa, batez ere Bilbo, Ezkerraldea eta Enkarterriak.
Onuradunak		Zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden eta Bizkaian bizi diren emakumeak eta emakumeak buru dituzten familia gurasobakarrak.
Inplikaturako eragileak		Margotu elkarteak Kolaboratzaileak: Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako saila eta Berdintasuneko saila; Lanbideren bulegoak; Bizkaiko hainbat udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak; hainbat udaletako Esku-hartze Sozioedukatiboko Lantaldeak; Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua (Eusko Jaurlaritza); Bilboko ESla; Hirugarren Sektorako erakundeak eta enpresa arruntak eta gizarteratze-enpresak.
Adierazleak (aurreikusita-koak)	Prozesuari dagozkionak	- Bazterkeria-egoeran dauden emakume onuradunen kopurua: 100. - Txosten Soziala duten emakumeen eta/edo familien % 100. - Esku-hartze sozioedukatibo eta/edo psikosozial indibidualizatua duten emakumeen/familiaren % 75. - Trebakuntza pertsonal, sozial eta lan-arloko trebakuntzako 13 ekintza. - Arreta eman zaien emakumeen eta familien % 90ek lane-rako sareko plana du. - Gutxienez lan-arloko 20 bitartekaritza enprekin. - Emakumeen % 85ek egiten du gizarteratze-ibilbidea
	Emaitzei dagozkienak	- Emakumeen % 90ek hobetzen du bere egoera gutxienez 4 gizarteratze-arlotan. - Emakumeen % 80k hobetu egiten du bere ongizate psikosoziala. - Emakumeen % 75ek hobetu egiten ditu enplegarritasuna eta gaitasunak - Emakumeen % 75ek handitu egiten ditu bere gizarte-sareak, eta ahaldu egiten da, partehartze-prozesuen bitartez. - Enplegu sailaren jardueretan parte hartzen duten emakumeen % 30ek lan-merkatuan sartzea lortzen du. - Programa amaitu duten emakumeen % 80k bere ongizate psikosozial maila eta babes sozialeko sarea hobetu ditu, abiapuntuko egoerarekiko.
2025eko aurrekontua	209.967 €	
2025eko finantzazioa V. Planaren barruan	73.000 €	

4. INKLUSIORAKO IBILBIDE MISTOAK

Inklusiorako ibilbide mistoak ongizate-estatuaren sistemen artean partekatutako laguntza-prozesu personalizatu gisa defini daitezke. Prozesu horiek bideratuta daude bizitzako hainbat esparru egoera, une eta testuinguru jakin batzuetan gurutzatzen direnean sortzen diren gizarte- eta lan-bazterkeriako arriskuko errealitate espezifikoetara aurre egitera. Aurre egin nahi zaien mugen edo oztopoen jatorria eta izaera intersektionala kontuan hartuta, horiei heltzeko eta konpontzeko ezinbestekoa da arreta-sistema anitzetako profesionalak modu integratuan esku hartzea eta haien mendeko prestazioak eta zerbitzuak aktibatzea.

Lanbide eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak bultzatutako Inklusioko Ibilbide Mistoei buruzko lan-ildoaren esparruan, 2022an eta 2023an, hasierako esparru teorikoaren eta pilotatu beharreko inklusioko ibilbide mistoetako laguntasun-modu ezberdinen definizioarekin lotutako kontzeptualizazio- eta diseinu-lan bat egin zen. Aurrerago, 2023ko iraila eta 2024ko iraila bitartean, 14 proiektu esperimental garatu eta eraman ziren praktikara lurralde-eremu ezberdinetan eta sistema ezberdinetatik (Enplegua, Gizarte Zerbitzuak, Etxebizitza, Osasuna, Hezkuntza), titularitate publikoko, pribatuko eta hitzartutako eragile eta erakundeekin lankidetzan. 14 proiektu horietatik 13k jarraitu zuten beste sei hilabeteko luzapenarekin, 2025eko martxora arte. Aldi berean, proiektuak garatzen ziren bitartean, 2023ko iraila eta 2025eko martxoa bitartean, Elkarrengandik Ikasteko Topaketak antolatu ziren, 14 proiektuetako bakoitzean parte hartzen ari ziren profesionalekin.

Azkenik, 2024ko urria eta 2025eko apirila bitartean, prozesuaren ebaluazioa landu da, eta ikaskuntzak identifikatu eta esperimentazioaren emaitzak eta inpaktua analizatu dira. Ebaluazio-prozesuaren emaitzetatik abiatuta, Euskadi osorako Inklusioko Ibilbide Mistoen Eredu baterako proposamena garatu zen.

Aurreikusten da 2025ean eta 2026an ereduaren baterako diseinuaren fasea gauzatuko dela; horretarako, Inklusiorako Euskal Kontseiluaren Ibilbide Mistoen Lan-taldea eratu da. 2027ra arteko ibilbide-orriak aldi bereko hiru lan-ildo aurreikusten ditu:

- Alde batetik, Ibilbide Mistoen Eredua diseinatzea eta zehaztea, "Inklusioko Ibilbide Mistoen Ereduaren proposamenerako Oinarriekin" landutako dokumentutik abiatuta.
- Bestetik, Eredua esperimentatzea eta hedatzea, 2025eko irailetik aurrera egingo den pilotajearen bitartez, proposatutako Ereduaren alderdi nagusiak testatzeko helburuz.
- Azkenik, sektore arteko inklusio-politiken gobernantza diseinatzea eta egituratzea eta, ondorioz, politika horiek hedatzeko beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortzea¹.

Pilotajearen bigarren fase horretarako, Inklusioko Ibilbide Mistoko 8 proiektu esperimental hautatu dira, eta 2025eko iraila eta 2026ko abuztua bitartean gauzatuko dira. Horietako zazpi lehenengo plan operatiboan abiarazitako pilotajearen bigarren fasea dira, lehenengo fasearekiko aldaketa batzuk egin zaizkien arren, testatu beharreko Ereduaren oinarrietara egokitzeko; zortzigarren proiektua, bestalde, zeharkakoa da, eta ereduaren koordinazio eta kudeaketa funtzionaleko egituretako bat pilotatuko du. Ondorengo koadroetan, 2025ean eta 2026an gauzatuko diren inklusioko ibilbide mistoko 8 proiektu esperimental hautatuak deskribatzen dira.

Azkenik, adierazi behar da 2026an 2.500.000 euroko inbertsio-partida onestea aurreikusten dela, inklusioko zein ibilbide mistoen proiektu esperimentalen artean banatuko dena.

¹ Koordinazio-egitura horien artean daude, esaterako, gizarteratze-sistemen arteko tokiko mahaiak; horiek martxan jartzeko, urteko 250.000 euroko partida aurreikusten da ekitaldi bakoitzerako (2025 eta 2026).

	1. ARDATZA Herritarta- sun-eskubi- deak balia- tzeko au- kera	2. ARDATZA Desberdin- keria-arraka- lak murriz- tea	3. ARDATZA Berrikuntza, Koordinazioa eta Gober- nantza	4. ARDATZA Parte-hartzea, komunitatea eta sentsibilizazioa	5. ARDATZA Inklusio-politika lurraldetasuna inclusión
KUTSUAK: Gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuen lankide- tza bidezko garapena osasun mentalaren arloan	•	•	•	•	•
Empleando.Nos	•	•	•	•	•
Bilvi: Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako inklu- sio-mahaia	•	•	•	•	•
Emaukera Araba	•	•	•	•	•
Gizakia: Lan-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden eta adikzioak dituzten pertsonentzako Ibilbide Mistoen proi- ektu pilotua	•	•	•	•	•
Elkar Hobetzen: familia gurasobakarren zenbait kasuren gi- zarte- eta lan-arloetako inklusioa hobetzea	•	•	•	•	•
Batzen: haurren eta nerabeen babeserako sistemako gizarte- eta lan-arloko laguntasun espezializatua gazteentzat	•	•	•	•	•
Ibilbide Mistoen Jarraipena egiteko eta horiek bultzatzeko lantaldeak	•	•	•	•	•

1. Ibilbide mistoen proiektua		KUTSUAK: Gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuen lankidetza bidezko garapena osasun mentalaren arloan
Deskribapena	Osasun Mentalarekin lotutako premiak dituzten pertsonak gizarteratze eta lanbideratzeko laguntasunean oinarritzen da proiektua. Honako hauek dira egitasmoaren ezaugarri nagusiak: - Arreta espezializatu pertsonalizatua. - Ikuspegi dinamikoa eta intersektzionala: malgutasuna, pertsonalizazioa eta etengabeko egokitzapena. - Laguntasun espezializatua osasun mentalaren arloan. - Erreferentzialtasun partekatua (sistema publikoak eta laguntzako agente espezializatua). - Arabako Sartu elkartearen zerbitzu-zorrorako sarbidea.	
Proiektuaren helburuak	- Prestakuntza- eta/edo enplegu-aukerak ahalbideratzea osasun mentalarekin lotutako zailtasunak eta premiak dituzten pertsonen. - Gizarte- eta lan-inklusioko sektore arteko koordinazio- eta laguntasun-eredu bat birdiseinatzea, 2023ko eta 2024ko esperientziaz eratorritako ikaskuntzetatik abiatuta, Lanbide erreferentzia bikoitzeko profesional gisa txertatuta lantaldean. - Egitasmoa garatzeko eta ezartzeko, Gasteizko Inklusio Mahaiarekin koordinatzea; Arreta Integratuaren Balorazioko Lantaldea (AIBL) lantaldeko kideen ordezkaritza du mahai horrek.	
Hartzaileak	- Osasun mentalarekin lotutako zailtasunak izanik, Arabako Osasun Mentaleko Sarearen arreta jasotzen duten eta proiektuan parte hartzeko aldeko balorazio soziosanitarioa duten pertsonak. - 35 pertsonari arreta ematea aurreikusten da. Desgaitasuna duten zein ez duten 30 urtetik gorako pertsonak (30 plaza) eta emakumeak lehenetsiko dira. Desgaitasunik ez duten 30 urtez azpiko pertsonen 5 plaza eskaintzea aurreikusten da. - Osasun Mentaleko Sareko lantalde soziosanitarioetako erreferentziazko gizarte-langileek bideratuko dituzte pertsonak proiektura.	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea	- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Osasuna. - 2 modalitatea (publikoa-publiko-laguntzako agente espezializatua): Lanbide-Arabako Osasun Mentaleko Sarea-Arabako Sartu.	
Lurralde Historikoa	Araba	
Aurrekontua	2025	58.128 €
	2026	14.532 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

2. Ibilbide mistoen proiektua

Empleando.Nos

Deskribapena	Zaurgarritasun-testuinguruetan murgilduta edo gizarte-bazterkeriako egoeran eta/edo arriskuan egonik, berdintasun- eta duintasun-baldintzetan gizarteratu eta laneratu daitezen bermatzeko hainbat esparruren arteko arreta koordinatua ezinbestean behar duten 16 eta 30 urte bitarteko gazteei laguntasuna ematera bideratutako proiektua.	
Proiektuaren helburuak	- Inklusioko Ibilbide Mistoan Eredua pilotatzea. - Gasteizko Inklusio Mahaian inplikatzeko, proiektua kokatzen den testuinguru espezifikoari buruzko aholkularitzan eta haren koordinazioan parte hartzeko helburuz. - Bazterkeria-egoeran egonik, programak arreta eskaintzen dien gazteen kolektiboaren enplegarritasuna hobetzea. - Gaztearen heltze-prozesuan lagunduko duten gaitasun sozialak eta pertsonalak hobetzea.	
Hartzaileak	- Zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterkeriako arriskuan eta/edo egoeran dauden 16 eta 30 urte bitarteko gazteak. - 25 gazterengana iristea aurreikusten da. - Gasteizko Udaleko oinarritzko Gizarte Zerbitzuek bideratuko dituzte pertsonak egitasmora. - Emakumeak lehenetsiko dira.	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea	- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak. - 2 modalitatea (publikoa-publiko-laguntzako agente espezializatua): Lanbide- Gasteizko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak-Adsis fundazioa.	
Lurralde Historikoa	Araba	
Aurrekontua	2025	53.568 €
	2026	13.392 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

3. Ibilbide mistoen proiektua **Bilvi: Mesa de inclusión Bilbao la Vieja, San Francisco y Zabala de Bilbao**

Deskribapena	Ibilbide honen helburua da, parte hartuko duten pertsonen premien, lehentasunen eta balioen arabera, arreta pertsonalizatua eskaintzea, pertsona erdigunean jartzen duen planifikazio baten bitartez, erreferentziazko profesionalen figura indartuz eta dibertsifikatuz, Inklusio-sistema ezberdinen koordinazioan oinarrituta.	
Proiektuaren helburuak	- Gizarte- eta lan-inklusioko sektore arteko koordinazio- eta laguntasun-eredu bat diseinatzeko, pilotatzeko eta baliozkotzeko laboratzea, inklusioko programa integratu eta pertsonalizatu baten bitartez. - Sistema, eragile eta sektore ezberdinen arteko koordinazio-sareari zein Bilvi Inklusioko Mahaiari jarraitutasuna ematea. - Oztopo profesionalak, sozialak eta pertsonalak dituzten parte-hartzaileen lan-aktibazioa bultzatzea eta haien enplegarritasuna hobetzea.	
Hartzaileak	- Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan erroldatuta egonik, bazterkeria-egoeran dauden pertsonak. - 12 laguni arreta ematea aurreikusten da (horietako bi hasierako proiektutik datoz).	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea	- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak. - 2 modalitatea (publikoa-publiko-laguntzako agente espezializatuak): Lanbide-Bilboko Oinarritzako Gizarte Zerbitzuak-Agiantza/Gaztaroa Sartu.	
Lurralde Historikoa	Bizkaia	
Aurrekontua	2025	48.444 €
	2026	12.111 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

4. Ibilbide mistoen proiektua

Emaukera Araba

Deskribapena	Indarkeria matxista jasaten duten edo jasan duten eta enplegua esku-ratzeko zailtasunak dituzten emakumeei zuzendutako inklusio- eta enplegu-proiektu misto baten pilotajea; guztiek jaso dute Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuen arreta, eta alta emanda daude Lanbiden, enplegu-eskatzaile gisa. Laguntasun-prozesu pertsonalizatua pilotatuko da Enplegu (Lanbide) eta Gizarte Zerbitzuetako (Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuak) Siste-men eta EDE Fundazioaren eta San Prudentzio Lan Fundazioaren ar-tean, azken horiek enplegu inklusiboaren arloko laguntza espezializa-tuko agente gisa.	
Proiektuaren helburuak	- Parte hartzen duten emakumeen gizarte- eta lan-arloetako gai-tasunak eta trebetasunak indartzea, gizarteratze- eta lanbidera-tze-ibilbide misto pertsonalizatuak garatuta, enpleguari dagoki-onez duten egoera hobetuko dutenak. - Lanbideko (lan-arloko) erreferentziazko profesional espezializa-tua Emaukera egitasmoan garatu beharreko gizarteratze- eta lanbideratze-ibilbidean sartzeko prozesua pilotatzea.	
Hartzaileak	- Indarkeria matxista jasaten duten edo jasan duten eta enplegua eskuratzeko zailtasunak dituzten emakumeak; guztiek jaso dute Gasteizko Udaleko gizarte-zerbitzuen arreta, eta alta emanda daude Lanbiden, enplegu-eskatzaile gisa. - Pilotajea 20-25 emakume inguruk parte hartzea aurreikusten da.	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea	- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak. - 2 modalitatea (publikoa-publiko-laguntzako agente espezializa-tua): Lanbide-Gasteizko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak-EDE Fun-dazioa/San Prudentzio Lan-arloko Fundazioa	
Lurralde Historikoa	Araba	
Aurrekontua	2025	59.969 €
	2026	14.992 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

5. Ibilbide mistoen proiektua		Gizakia: Adikzio- eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen- tzako Inklusioko Ibilbide Misto espezializatuak	
Deskribapena		Proiektuaren helburua da gizarte- eta lan-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden eta, gainera, adikzio- eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako inklusio-ibilbide mistoak sortzea. Proiektuaren xede den kolektiboa osatzen dute, haien adikzio-arazoak tar-teko, lan-arloan aktibatze- eta zailtasun handiagoak izango dituzten per- tsonen; egoera horrek zaildu egiten du Lanbidek eskaintzen dituen ori- entazio- eta prestakuntza-prozesuetan parte har dezaten ere, baldin eta ez badago adikzioaren inguruko esku-hartze koordinatu bat, arazo- aren alderdi psikologikoa, osasunari dagokiona, alderdi sozialak eta er- lazionalak barne hartuko dituen.	
Proiektuaren helburuak		- Aparteko zailtasunak dituen kolektibo bati zuzendutako Ibilbide Mistoko eredu bat garatzea, aurrez egindako pilotajearen dina- mika eta emaitzak hobetuz, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko (BOMS) profesionalak –osasun-sistemaren ordezkari diren alde- tik– AIBLra sartuta (Lanbideko eta Gizakiako –laguntza espeziali- zatua– profesionalekin batera), eta AIBLren funtzionamenduko protokoloak prestatzen eta koordinazioan laguntzea (enplegu- ko, osasuneko eta laguntza espezializatuko sistemen arteko koordi- nazioan); Gizakia Fundazioa (Hirugarren Sektoreko arreta sozio- sanitarioko laguntzako agente espezializatua) izango da inklusi- oko ibilbide mistoen 2. Modalitaterantzko trantsizioan lagun egingo duen eragilea. - Adikzio- eta osasun mentaleko arazoak izanik, gizarte- eta lan-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako ibilbideak sortzea, en- plegu-sistemarekin eta osasun-sistemarekin koordinatuta, eta modu pertsonalizatuan, esparru bakoitzean (fisikoa, psikikoa, so- ziala eta prestakuntza- eta lan-arloetako) detektatutako pre- miak modu integratuan lantzea ahalbideratuko dena, lan-arloan aktiba daitezen eta haien bizi-kalitatea eta gizarteratzea hobetu dezaten sustatzeko helburuz.	
Hartzaileak		- Luzaroko adikzio-arazoak eta finkatutako arazo anitzak dituzten eta arazo horiekin lotutako patologia mentalei eta gizarte-zaur- garritasuneko egoerei erantzuteko laguntzako esku-hartze inten- tsiboak behar dituzten pertsonak. - 25 pertsonari arreta ematea aurreikusten da (18 gizon eta 7 emakume), 20 plazarekin.	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea		- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Osasuna. - 2 modalitatea (publikoa-publiko-laguntzako agente espezializa- tua): Lanbide-Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea-Gizakia funda- zioa	
Lurralde Historikoa		Bizkaia	
Aurrekontua		2025	79.871 €
		2026	19.967 €
Denbora-aldia		12 hilabete (2025-2026)	

6. Ibilbide mistoen proiektua		Elkar Hobetzen: familia gurasobakarren zenbait kasuren gizarte- eta lan-arloetako inklusioa hobetzea
Deskribapena	Emakumeak buru dituzten familia gurasobakarren gizarte- eta lan-inklusioa hobetzera eta kasuen kudeaketan aurrerapenak garatzera bideratutako lan- eta gizarte-arloetako Ibilbide Misto koordinatua; horretarako, Bilboko Udaleko Abando-Indautxuko oinarritzko gizarte-zerbitzuek, Lanbideren Bilbo-Mazarredoko bulegoak eta Gaztaroa Sartu elkarteak modu koordinatuan landuko dituzte ekintzak.	
Proiektuaren helburuak	- Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako sektore arteko koordinazio- eta laguntasun-eredu bat diseinatzeko kolaboratzea, pilotatuko den ereduaren elementu espezifikoak barne izango dituen inklusioko programa integratu eta pertsonalizatu baten bitartez. - Sektore arteko arreta eta laguntasun pertsonalizatua eskaintzea gizarte- eta lan-bazterkeriako egoeran edo arriskuan egonik, emakumeak buru dituzten, kontziliaziorako zailtasunak dituzten eta arreta intentsiboa behar duten familia gurasobakarrei, enplegu eta gizarte-zerbitzuetako sistemak eta hirugarren sektoreko Gaztaroa Sartu elkarteak koordinatuta. - Udal prestazio sozialak eskuratzeko aukerarik ez dutenerako ed prestazio horiek eten zaizkienerako kontingentzia-funts bat ezartzea, presazko laguntzei (etxebizitza, kontziliazioa, garraioa, tasen ordainketa) oinarritzko premia zehatzei (elikadura, higieena, arropa) aurre egiteko.	
Hartzaileak	- Familia-erantzukizunei bakarrik aurre egin behar dieten emakumeak (gurasobakarrak), Lanbiden alta emanda baldin badaude, bazterkeria-egoerara eraman dituzten egoera pertsonalak bizi izan dituztenak, prestakuntza-maila txikia dutenak, definitutako lanbiderik gabeak, eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuei laguntza soziala eskatu dietenak. - Pilotajearen 12 emakumek parte hartzea aurreikusten da (horietako bi hasierako proiektutik datoz).	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea	- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak. - 2 modalitatea (publikoa-publiko-laguntzako agente espezializatua): Lanbide-Abando-Indautxuko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak-Gaztaroa Sartu.	
Lurralde Historikoa	Bizkaia	
Aurrekontua	2025	45.422 €
	2026	11.356 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

7. Ibilbide mistoen proiektua

BATZEN: Gazteak Laneratzeko Harrera Sistema

Deskribapena	BATZEN Gazteak Laneratzeko Harrera Sistemaren helburua da Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintzen eta Gizarte Politiken departamentuak artatzen dituen 16 eta 25 urte bitarteko gazteak gizarteratzea eta lanbideratzea. Ikuspegi sistemiko batetik, eta gizarte- eta lan-arloetako laguntza espezializatuko ibilbide mistoen bitartez, gizarte-zerbitzuetako eta enpleguko sistemen koordinazioa, lankidetzak eta arreta integratua landuko dira. Bazterkeria-egoeran dauden gazteen eta nerabeen bizimodu independenterantzko trantsizioa hobetu nahi da, sistema biek eskaini ditzaketen prestazioen, zerbitzuen eta baliabideen osagarritasunaren bitartez.	
Proiektuaren helburuak	- Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuko 16 eta 25 urte bitarteko Gipuzkoako gazteei gizarteratzean eta lanbideratzean espezializatutako laguntza eskaintzea. Foru Aldundiaren zerbitzu hauek daude proiektuan: Egoitza Harrerako Zerbitzua (EHZ), Familia Harrerako eta Adopzioko Atala (FHAA) eta Haurren Babeserako Arreta Atala (HBAA). - Gizarte Zerbitzuen Sistemaren eta Enplegu Sistemaren arteko lankidetzak eta koordinazioa bultzatzea, gizarte- eta lan-arloetako inklusioko ibilbide mistoen bitartez. - Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzuko Egoitza Harrerako Zerbitzuko (EHZ), Familia Harrerako eta Adopzioko Ataleko (FHAA) eta Haurren Babeserako Arreta Ataleko (HBAA) 16 eta 25 urte bitarteko gazteak eta nerabeak gizarteratu eta laneratu daitezen lortzea. - Proiektua Gipuzkoako Lurralde Historiko osora hedatzea. - Koordinazioko Lurralde Batzordea sortzea eta zuzentzea	
Hartzaileak	- Gipuzkoako Foru Aldundiko Zaintzen eta Gizarte Politiken departamentuak artatzen dituen 16 eta 25 urte bitarteko gazteak.	
Inplikaturako sistemak eta modalitatea	- Inplikaturako sistemak: Enplegua eta Gizarte Zerbitzuak. - Lanbideko orientatzaileak-Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurrak eta Nerabeak Babesteko eta Gizarteratzeko Zerbitzua-Batzeneko teknikariak-Zabaldutako gizarte-hezitzaileak	
Lurralde Historikoa	Gipuzkoa	
Aurrekontua	2025	233.651 €
	2026	58.413 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

8. Ibilbide mistoen proiektua Jarraipeneko eta Laguntzako Lantaldeak (JLL) - Dirdira Koop. 25-26

Deskribapena	Inklusioko Ibilbide Mistoen Jarraipenerako eta Laguntzarako Lantaldeen (JLL) helburua da Inklusioko Ibilbide Mistoetako parte-hartzaileekin eta haien familiekin zuzenean esku hartzen duten profesionalen lana babestea, haien baliabide pertsonalak, ahalduntzea eta ongizate profesionala sustatuz, gatazkak konponduta, talde-dinamikak erabiltuta eta gaitasunak eta tresna partekatuak sortuta. Definizio horretatik abiatuta, pilotaje-proiektu honek planteatzen du Inklusioko Ibilbide Mistoen esparruan garatzen diren Laguntza eta Jarraipeneko eginkizunekin lotutako erronkei erantzutea.	
Proiektuaren helburuak	Gizarteratzeko Ibilbide Mistoen proiektuekin kolaboratzen duten pertsonen, lantaldeen eta sareei laguntza ematea, ezagutza sortzeko eta komunitateari transferitzeko, eta pertsonen arretaren esparruan eskuhartze-eredu homogeneizatu bat garatzea: - Proiektuen sostengu diren zerbitzuek eta erakundeek elkarri lagun diezaizoten bultzatzea - Jarduna aztertze eta hobetzeko tresnak ematea - Proiektuko eragileekiko elkarriketarako espazioak eraikitzea, eredu salutogenotik - Proiektuetako lantaldeen kultura eta egitura funtzionala indartzea - Proiektu-lantalde bakoitzean, gogoeta sustatzea - Gogoeta bultzatzea sareko lankidetzak lana estimulatzeko testuinguruan - Lankidetzak prozesu baterako aholku ematea eta laguntzea, eskuhartze-eredu propio batean - Eskuhartze-eredu integratu eta bateratu bat lankidetzan eraiki dadin bultzatzea	
Hartzaileak	- Gizarteratzeko Ibilbide Mistoen proiektuetan kolaboratzen duten pertsonak, lantaldeak eta sareak	
Lurralde Historikoa	Araba, Bizkaia, Gipuzkoa	
Aurrekontua	2025	110.068 €
	2026	27.517 €
Denbora-aldia	12 hilabete (2025-2026)	

5. ALDAKUNTZARAKO JARDUKETAK

Aldakuntzarako jarduketak dira herri administrazioek inklusioaren arloan lehendik egiten zenarekiko aurrera-pena edo hobekuntza dakarten jarduerak martxan jartzeko hartu dituzten konpromisoak.

Ondorengo koadroan, inklusioaren arloan inplikaturako erakunde publikoek, 2025. eta 2026. urteetan, Inklusi-orako V. Euskal Planean aurreikusitako 32 helburu estrategietan aurrerapenak egiteko aktibatu asmo dituzten hobekuntzarako 164 jarduerak zerrendatzen dira.

1. ARDATZA. HERRITARTASUN-ESKUBIDEAK BALIATZEA

1. helburua. Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarte-laguntza emateko prozesuak hobetzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuen eta prestazioen esparruan

Lanbide	- Lanbideren eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen arteko deribazio-protokolo bat ezartzea.
Arabako Foru Aldundia	- Landa-inguruneko inklusioko eguneko zerbitzuak berrikustea, prestakuntza enplegu-nitxo berrietara egokitzeko eta, hala badagokio, laguntasun-egiturak indartzea, esku-hartzearen eremu geografikoaren arabera. - Arabako ijitoen zuzendutako laguntasun-proiektuak berrikustea, esku-hartze soziala kultura-aniztasunera eta kolektiboaren errealitatera egokitzeko.
Bilboko Udala	- Familia zaurgarriari elikagaiak emateko zentro berria.
Hernaniko Udala	- Kanean bizi diren pertsonentzako gizarteratze-zentro bat eta eguneko zentroa diseinatzea eta martxan jartzea.
Irungo Udala	- Bazterkeria-egoeran edo-arriskuan dauden pertsonen laguntasuna emateko zerbitzu sozioedukatiak hobetzea.
Leioako Udala	- Familiaren, genero-indarkeriaren eta atzerriartasunari buruzko aholkularitza juridikoa, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileentzako.
Zarauzko Udala	- "Zarautz Oinarrian" ereduaren barruan, "Etxetik" zerbitzua garatu da, besteak beste.

2. helburua. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema indartzea, hura osatzen duten prestazio guztien egokitzapena, irisgarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz

Lanbide	- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaz baliatzeko aukerak hobetzea, DSBE eskuratzeko bide telematikoak ezarrita; Hirugarren Sektorereko erakundeak gaitzeko prozesua antolatuta, transakzio elektronikoak egin ditzaten prestazioak jasotzen dituzten pertsonen ordezkari gisa; administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonak elektronikoki identifikatuta; eta prestazioak eskuratzeko modua sinplifikatuta.
Arabako Foru Aldundia	- Ebazpenen eta foru erakundeak kudeatzen dituen laguntzak emateko tramitazio-prozesuaren jakinarazpenak komunikatzeko modua hobetzea.
Bilboko Udala	- Gizarte Larrialdietako Laguntzen tramitazioa hobetzea.

3. helburua. Enplegua sortzera eta enpleguaren kalitatea hobetzera bideratutako politika publikoak bultzatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Zaintzen eta zahartzearen ekonomia sustatzea, enpleguaren eta trebakuntzaren ikuspegitik ekintza berritzaileak esperimentatua eta komunitate adituak aktibatuta. - "Zainsare" zaintzen arloko enplegurako eta trebakuntzarako erreferentziatzeko tokiko espazioak pilotatzea.
---------------------------------	--

Lanbide	- Esperientziarik gabeko gazteen kontratazioarako Lehen Aukera programa indartzea. - Gazteen kontratazioa indartzea, gazteei zuzendutako enplegu-planen barruan. - Ikertzaile gazteen kontratazioa sustatzeko Ikerlan programa bultzatzea - Tokiko kontratazioa eta enplegua sustatzeko programak indartzea - Ekintzailtzari laguntzeko deialdiak eguneratzea eta bultzatzea. - Gizarteratze- eta lanbideratze-proiektuetarako eta arlo horietako proiektu berritzaileetarako deialdiak.
Barakaldoko Udala	- Migratzaileak laneratzeko kolaborazio-sarea eta aniztasunaren kudeaketa enpresetan.

4. helburua. Enplegu-politika aktiboak indartzea eta politika horiek enplegurako zailtasun handienak dituzten pertsonen (emakumeak, gazteak, etorkinak, urritasuna dutenak, 45 urtetik gorakoak, etab.) premia espezifiko-etara egokitzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Emakume gazte langabeek enpresetan esperientzia kualifikatzailea euren gantzeko eta belaunaldi arteko erreleboa bultzatzeko Reactivate programa indartzea. Bilboko <i>Youth Employment Forum</i> foroa ospatzea. - Enplegurako pizgarriak arautzen dituen Dekretu berria onestea eta ezartzea, DSBE eta GLL jasotzen duten pertsonen aplikatzeko dena. - Gizarteratze-enpresak ezartzeko eta sendotzeko proiektua, bere bi aldeetan: gizarteratze-prozesuan dauden pertsonen esku-hartzeko eta haien laguntza emateko eredia, eta enpresa-lehiakortasuna. - Ikusmen-urritasuna eta gor-itsutasuna duten pertsonen kolektiboaren diagnostikoa egiteko proiektua, enpleguarekin duten harremana aztertuz, eta haien enplegarritasuna eta laneratzeko esku-hartzeak diseinatzea.
Lanbide	- Prestakuntzagatiko sustraitze-deialdia. - Sustraitze sozialeko deialdia. - Lehentasunezko arreta eman beharreko kolektiboentzako enplegu-proiektu integraletara bideratutako laguntzen deialdia. - Bazterkeria-arriskuan dauden eta/edo urritasuna duten pertsonak laneratzeko eta haien enplegarritasuna hobetzeko tresna espezifikoak indartzea.
Arabako Foru Aldundia	- Adimen-urritasuna duten pertsonentzako enplegu-eskaintza publikoa foru administrazioan.
Bilboko Udala	- Bilbo AKTibatzen programa, langabezian egonik, enplegua modu aktiboan birlatzen ari diren kualifikaziorik gabeko migratzaileak berriz orientatzeko, laneratzeko eta kualifikatzeko programa
Hernaniko Udala	- Lanean hasi aurreko tailer bat sortzea, kalean bizi diren gazteek enplegua lortu aurreko urrats gisa.
Leioako Udala	- Bidaide, bazterkeria jasateko arrisku-egoeran dauden pertsonen enplegarritasunerako ibilbide-laguntza programa, Behargintzarekin lankidetzan.

5. helburua. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea eta sustapen publikoko etxebizitzak eskuratzeko modua ematea bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen.

Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila	- Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa ezartzea, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten bermatzeko.
--	---

6. helburua. Pobrezia energetikoa prebenitzea eta errenta txikieneko pertsonen oinarritzko hornikuntzak izan ditzaten laguntzea

Ongizate sailburuordetza	- Oinarritzko premiei presazko arreta emateko proiektua (elikadurako oinarritzko produktuak eta energia- eta gas-hornikuntzen ordainketa).
Irungo Udala	- Premia elektrikoekin eta energetikoekin lotutako bonu sozialei eta gizarte-larrialdiko laguntzei buruzko orientazio-zerbitzua.

7. helburua. Berdintasun-baldintzetan egingo den eskolatze zabala bermatzeko beharrezko neurriak bultzatzea, jatorrizko desberdinkeriak konpentsatzeko eta eskolan porrot egiteko eta eskola goiz uzteko arriskua minimizatzeke

Barakaldoko Udala	- Eskola Jazarpena Zuzenakoa. Eskola-jazarpenaren gaia jorratzen duen ikuskitasun artistikoa; horretarako, Hezitzaile batek gidatutako ikus-entzunezko kapsulak eta dinamika parte-hartzaileak erabiltzen dira.
--------------------------	---

8. helburua. Lanbide heziketa eta bizitza osoan zeharreko ikaskuntza bultzatzea

Lanbide	- Hezibi indartzea, enpresei prestakuntza dualeko kontrataziorako zuzendutako dirulaguntza-programa - Kualifikazio-maila txikiko gazteen prestakuntzarako diru-laguntzak indartzea. - Morrokotudak, lan-arlo maskulinizatuak feminizatzeke programa. - Eskari handiko sektoreetako prestakuntza-jarduketetarako dirulaguntza-deialdia bultzatzea. - Enplegu-nitxo berrien esparruko gaitasun profesionalen prestakuntza-ekin-tzetarako dirulaguntza-deialdiak indartzea.
Lanbide Heziketako sailburuordetza	- 2025-2026 ikasturtean, 25 talde gehiago sortzea Hastapeneko Lanbide Heziketan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eta 16 urtetik gorako ikasle migratzaileei zuzendutako taldeak barne.
Leioako Udala	- Leioa Konekta, herritarren arreta digitalerako bulegoa: Internet erabiltzeko ohiturarik ez duten Leioako pertsonen online bidezko gestioak eta tramiteak egiten laguntzeko zerbitzu pertsonalizatua.

9. helburua. Osasunaren arloan gizarte- eta genero-desberdinkeriak murriztea

Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Arlo soziosanitarioan xede diren kolektiboak aztertzea, tipifikatzea eta kuantifikatzea, baliabideen planifikazioa hobetzeko.
Erandioko Udala	- Gizarte-zerbitzuak osasun-zentroekin koordinatzea, tokiko osasun-sarean parte hartzea

10. helburua. EAEko espetxeetan zigorra betetzen ari diren pertsonak gizarteratzeko eta lanbideratzeko politikak indartzea

Lanbide	- Lanbide heziketako eta laneratzeko prestakuntza-ekintzak antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan preso dauden pertsonen zuzenduta.
Erandioko Udala	- Gizarte-zerbitzuak espetxeekin koordinatzea

11. helburua. Herritarrek ingurumen osasungarri bat izateko duten eskubidea bultzatzea

Portugaleteko Udala	- Ontzi-arinak eta beira birziklatzearen eta txakur-gorotzak biltzearen inguruko kontzientziazio-kanpainak.
----------------------------	---

2. ARDATZA. DESBERDINKERIA-ARRAKALAK MURRITZTEA

12. helburua. Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeen premiei erantzuteko neurri espezifikokoak ezartzea, eta gizarte- eta enplegu-politiken diseinuan genero-ikuspegia txertatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Emakumeen ekintzailatza eta emakumeak zuzendaritzako postuetan sar daitezen sustatzeko dirulaguntza-agindua.
Ongizate sailburuordetza	- Bizitegi Bazterkeria Larriaren aurkako II. Euskal Estrategia martxan jartzea; estrategia horretan, bazterkeria-egoeran dauden emakumeak dira artatu beharreko helburu-kolektiboetako bat.
Arabako Foru Aldundia	- Prostituzioan aritzen diren pertsonak elkartzeko taldeak, partehartze- eta ahaldundutze-espazioak sustatzeko. - Esku-hartze Sozialeko Sailean, emakumeen aurkako indarkeria matxistan esku hartzeko protokolo bat aplikatzea, ematen diren gizarteratze-zerbitzu eta-programetan egoera horiek detektatzea ahalbidetuko duena. - Gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden emakumeen, era-kunde publikoen eta hirugarren sektoreko entitateen artean ezagutza trukatze laborategi bat antolatzea, esku hartzeko premien eta metodologien inguruan hausnartzeko.
Bizkaiko Foru Aldundia	- Bizitoki-soluzioen proiektu pilotua, <i>Housing Led</i> formatuan, gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden emakumei zuzendutakoa, arriskuak eta kalteak murriztuko dituen arreta malgu eta hurbileko baten bitartez. - Ekin, indarkeria matxistaren biktima diren eta beste arazo batzuk ere badi-tuzten emakumeentzako esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozial indibidualizatuko programa, barne hartzen duena aldi baterako bizitoki-baliabide bat, programan parte hartzen duten emakumeentzako baino ez dena.
Bilboko Udala	- Bizilabe Bilbo programa. Gai zientifiko eta teknologikoei buruzko Ikerkuntza Zentroa, 10 eta 17 urte bitarteko gazteen sormena eta ekintzailatza bultzatzera bideratuta dagoena. Gazte zaurgarrienak bizi diren eta etorkina duten arlo profesional eta kalitatez enplegu horietatik urrunduta dauden auzoetara bideratuta dago batez ere. - Indarkeria matxistako egoeretatik bizirik atera diren emakumei gizarteratzen laguntzeko programa (Margoturekin hitzarmena). - Harrera-egoeran dauden haur eta nerabeen premia psikoemozionalei buruzko azterketa (Bizkaiko Psikologo Elkargo Ofizialarekin lankidetzan). - Zaurgarritasun-egoeran dauden LGBTI emakumei zuzendutako arreta integraleko programa (Aldarte zentroarekin hitzarmena).
Erandioko Udala	- Udalaren etxebizitzak, indarkeria matxistako egoerei aurre egiteko.
Leioako Udala	- Emakumeak Orekan, emakumei zuzendutako laguntza psikologiko prebentiboko programa.

13. helburua. Pobrezia belaunaldi belaunaldi birsor dadin saihesteko eta haurren eta gazteen pobrezia aurre egiteko neurriak antolatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- “Malnutrizioa Gelditu”, haurren pobreziaaren aurkako egitasmoa, bazterkeria-arriskuan dauden familiek –batez ere haurrek– elikadurari dagokionez jasaten duten segurtasun falta murriztea, babes sozialeko sistemaren bitartez, eta zeharkako eta berrikuntza sozialeko ikuspegi batekin.
Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila	- Gazteak emantzipa daitezen, etxebizitza alokatzeko laguntzen Gaztelagun programa hedatzea.

Ongizate sailburuordetza	- Europako Gizarte Funtza martxan jartzea, adin txikikoak haien ardurapean dituzten familien oinarritzko premiak asetzeko oinarritzko programa.
--------------------------	---

14. helburua. Konplexutasun handiko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen ematen zaien arreta hobetzea

Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Laguntasun soziosanitarioa zerbitzuen trantsizioan eta arretaren pertsonalizazioa, premia bereziak dituzten kolektiboak eta haien zaintzaileei zuzenduta.
Arabako Foru Aldundia	- Laguntza sozioedukatiboa gizarte-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen. - Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro eta gaueko harrera-zentro baten egiturazko diseinua. - Arabako Foru Aldundiaren hautapen-prozesuetan, tasak ordaintzetik salbuestea indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak.

15. helburua. Desgaitasuna, gaixotasun mentala eta/edo mendekotasuna duten pertsonen artean pobrezia eta bazterkeria prebenitzeko neurri espezifikoak bultzatzea

Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Helburuak diren kolektibo soziosanitario nagusientzako definitutako laguntza-ibilbideak berrikustea, arreta berezia eskainiz gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa hobetzea, arriskuei aurrea hartzeko, arretaren kalitatea hobetzeko eta erabilgarri dauden baliabideak optimizatzeko.
Arabako Foru Aldundia	- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzetan, lanerako ikastegietan eta egoitzetan plazak gehitzea - Etxean Bai ezartzea, gaixotasun mentala, mendekotasuna eta/edo urritasuna duten pertsonen haien ingurunean jarrai dezaten lortzeko programa - Programa psikoedukatiboan (Bizimodu Independenterako Laguntza), gaixotasun mental larria duten pertsonen arreta emateko orduak ezartzea. - Gaixotasun mentala duten 60 urtetik gorako pertsonentzako eta urritasun fisiko larria dutenentzako egoitza berria (25na plaza). - Adimen-urritasuna duten pertsonentzako bi egoitza martxan jartzea (25+12 plaza). - Adimen-urritasuna duten pertsonentzako eguneko bi zentro sortzea (25+15 plaza). - Autismoaren espektroko nahasmendua duten pertsonentzako eguneko zentro berria (20 plaza) - Adimen-urritasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza berria (16 plaza)
Leioako Udala	- Aunak, astean 18 zerbitzu –eguneko menua– ematen dituen tuper solidarioa.

16. helburua. Nazioarteko migrazioen eta asiloaren arloan kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu baten eraikuntza aurrera egitea.

Barakaldoko Udala	- Barakaldoko Kultura Arteko Bizikidetzarako III. Plana ezartzea eta ebaluatzea.
Eibarko Udala	- Bizilagun berriei buruzko diagnostikoa eta haiei harrera egiteko protokoloa egitea, Eudel erakundearen <i>Harrera Ehunduz</i> dokumentuari jarraituz. 2025ean egin dira diagnostikoa eta harrera-protokoloa; 2026an jarriko da abian protokoloa, online gida batekin batera

Erandioko Udala	- Migrazio-prozesuan dauden pertsonen hasierako harrera egiteko gida prestatzea.
Hernaniko Udala	- Bazterkeria-egoerak prebenitzeko eta artatzeko tokiko ekimenak, komunitarioak eta hurbilekoak aktibatzea.
Zarauzko Udala	- Atzeritik datozen pertsonen hasierako harrera egiteko protokoloa garatzea.

17. helburua. Tutoretzapean dauden adin txikikoei eta tutoretzapean egon diren gazteei ematen zaizkien laguntzak hobetu daitezen bultzatzea

Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Koordinazio soziosanitarioa bultzatzea hainbat kontingentziari bideratutako arretan, bai eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen inklusio soziosanitarioa eta laneratzea sustatzea, eta zaurgarritasun-egoeran dauden helduen ardurarik gabeko adin txikikoen kolektiboari bideratutako programetan ekintzak garatzea ere.
Arabako Foru Aldundia	- Aukera programa zabaltzea, emantzipatu aurreko egoeran dauden nerabeentzako beste 8 egoitza-plazarekin. - Premia bereziak dituzten adin txikikoentzako eta emantzipatzeko prozesuan dauden eta tutoretzapean egon ziren gazteentzako plazak kontratazeko esparru-akordioa.

18. helburua. Adinkeriaren aurkako borroka bultzatzea, batez ere 50 urtetik gorakoen artean ematen dena

Lanbide	- Erakundeetan adina behar bezala kudea dadin bultzatzea, <i>lan mentoring</i> zerbitzuaren, errelebo-kontratuen eta kontziliaziorako laguntzen bitartez. - 50 urtetik gorako pertsonak kontratatzeako laguntza-programa bat martxan jartzea
Ongizate sailburuordetza	- Adineko pertsonen inguruko Euskal Estrategia berria lantzea eta martxan jartzea.
Irungo Udala	- Adineko pertsonen astea ospatzea.
Leioako Udala	- Leioa Abian, Leioako 65 urteko edo gehiagoko pertsonentzako kafe-gunea eta elkargunea, non harreman sozialak hobetzeko eta nahi gabeko bakardadea saihesteko aukera izango duten.

3. ARDATZA. BERRIKUNTZA, KOORDINAZIOA, ANTOLAMENDUA ETA GOBERNANTZA

19. helburua. Sistemaren koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak bultzatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Inklusiorako erakunde arteko egiturak dinamizatzea; Eusko Jaurlaritzak Erakunde Arteko Batzordea eta Euskal Kontseilua bultzatzeko lana egitea - Enpleguaren aldeko Itun Soziala dinamizatzea eta Berritzelan Sarea sendotzea.
Arabako Foru Aldundia	- Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean bazterkeriakasuak deribatzeako eta koordinatzeko protokoloa aplikatzea.
Bilboko Udala	- Informatikaren bidez, udal gizarte-zerbitzuen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Adineko Pertsonak eta Mendekotasuna departamentuaren arteko koordinazioa hobetzea.

Hernaniko Udala	- Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko lankidetzeta, bazterkeria-egoeran dauden pertsonei eman beharreko arreta modu partekatuan kudeatzeko, inklusio-zentro berriaren diseinuaren esparruan.
Leioako Udala	- Sistemen, Osakidetzaaren eta Leioako Udalaren arteko interoperabilitatea garatzea

20. helburua. Ebaluazio, prestakuntza, berrikuntza, behaketa eta ikerkuntzako tresnak bultzatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Euskadiko Inklusiorako Jardunaldiak ospatzea.
Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Arreta soziosanitarioko ataria bultzatzea; atari hori da jakintza sortzeko eta zabaltzeko espazioa, eremu komunitarioa, eta arlo soziosanitarioko ezagutza jasotzera, sortzera eta hedatzera irekita dagoen plataforma instituzionala. - Ekosistema soziosanitarioan inpaktu positiboa dutela erakusten duten proiektuak eta ekimenak identifikatzera, baloratzera eta ezagutaraztera bideratutako Jardunbide Soziosanitario Egokiak saritzea.
Bizkaiko Foru Aldundia	- Indarkeria matxistaren aurreko inklusio- eta babes-prozesuak ebaluatzeako sistema, Arreta Plan Pertsonalizatuaren adierazle-sistema batean oinarrituta dagoen metodologia batekin, behaketa- eta lotura-txostena-ekin, jarraipen-balorazioko txosten sozial batekin eta arreta-programa indibidualizatu batekin.
Bilboko Udala	- Babesgabetasunaren Diagnostiko Sozialaren berrikuspena, garapen informatikoa eta aplikazioa.
Erandioko Udala	- Esku-hartze sozialeko profesionalentzako aholkularitza juridikoaren inguruko prestakuntza.

21. helburua. Bazterkeria sozialarekin lotutako arazoaren sektore arteko lana bultzatzea, zerbitzuen koordinazio- eta integrazio-formulak sor daitezen lagunduz, mikro (esku-hartze indibiduala), meso (erakundeak) zein makro (ongizate-sistemak) mailan

Ongizate sailburuordetza	- Sisteman arteko koordinazioa bizitoki-bazterkeriako egoerei aurre egiteko, Bizitegi Bazterkeria Larriaren aurkako II. Euskal Estrategia hedatzeko esparruaren barruan.
Arabako Foru Aldundia	- Prebentzio Komunitarioko Zerbitzu Teknikoek landa-ingurunean Erakunde Arteko Lan Batzordeak dibertsifikatzea. - Esku-hartze soziosanitarioko zailtasun handiko kasuen Batzorde bat sortzea, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sistemak jarduketak koordinatzea eta esku-hartzeak antolatzea ahalbidetuko duena.
Bizkaiko Foru Aldundia	- Osasun mentaleko Azpi-batzordearen mende egongo den Lan-taldea sortzea, Bizkaiko gizarteratze-sarearen programak osasun mentaleko sarearekin koordinatzeko premiak eta proposamenak diagnostikatzen bideratuta egongo dena - Gizarte-zerbitzuetako eta osasun-sistemako profesionalek osatutako Lan-taldea sortzea, indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala emateko.
Barakaldoko Udala	- Barakaldoko adin txikikoen artean ziberjazarpena edo ziberbullyinga prebenitzeko programa diseinatzea eta lantzea. Hezkuntza Komunitatea ziberjazarpenaren errealitatearen eta arriskuen inguruan sentsibilizatzea.
Bilboko Udala	- Bilbon etxegabeei arreta emateko Udal Estrategia. - Nahi gabeko bakardade-egoeran eta isolamendu sozialeko egoeran dauden pertsonei arreta emateko Udal Estrategia.
Irungo Udala	- Aldundiko Inklusio Zerbitzuak eta Udaleko Gizarte Zerbitzuek kasu zailak lantzeko Lan Mahaia ezartzea.

22. helburua. Herri administrazioetan erantzukizun soziala eta erosketen sozial arduratsua bultzatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Kontratazio erreserbatuari buruzko tresnak lantzea, Gizarteratze-enpresen kiko eta Enplegu Zentro Bereziekiko lankidetzaren esparruan.
--	--

4. ARDATZA. ERANTZUKIDETASUNA, PARTE-HARTZEA, AKTIBAZIO KOMUNITARIOA ETA SENTSI-BILIZAZIOA

23. helburua. Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eta babes-sistema publikoak baliatzeko zailtasunak dituzten pertsonen estaldura ematera bideratutako jarduketak garatzea

Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Alta soziosanitarioa planifikatzeko koordinazio-protokoloa, osasun-fase akutua gairiditu ondoren, premiak aseta ez dituztenez, haien ospitale-edo susperraldi-egonaldia luzatu beharra duten pertsonen erantzuna emateko helburuz.
Irungo Udala	- Sistema publikoei (hezkuntza, Lanbide, Osakidetza, etab.) zuzendutako itzulpen-, aholkularitza-, informazio- eta laguntasun-zerbitzua, bitartekaritza kulturalerako eta gizarte-integraziorako. - "BERDINDU": atzerriko tituluak homologatzeko zerbitzua, Emakumeen Etxean.

24. helburua. Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzera eta horiei aurre egitera bideratutako tokiko ekimenak, hurbilekoak eta komunitarioak bultzatzea

Hernaniko Udala	- Udalerrian zein eskualdean kalean bizi diren pertsonen azterketa, eta laguntza komunitarioa, boluntarioen bitartez.
Irungo Udala	- Adineko pertsonen isolamendua eta narriadura kognitiboa prebenitzeko programa. - Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen integraziorako eta parte-hartze sozialerako programa, kirol-jardueren, boluntariotza-proiektuen eta bestelako bitartez.
Leioako Udala	- Munduko arrozak jaialdia, kultura-aniztasunaren ospakizuna. - Sustantziadun eta sustantziarik gabeko adikzio-arazoaren aurreko arreta- eta aholkularitza-zerbitzua
Zarauzko Udala	- Ekosistema komunitarioa garatzea, "Zarautz oinarrian" ereduaren barruan

25. helburua. Bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen kulturako, aisialdiko edo astialdiko jardueretarako sarbidea izan dezaten laguntzea, ingurune komunitarioan

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Gizarte biziberritzeko "Diversi-Otxar" proiektua Bilboko Otxarkoaga auzoan, zaurgarritasun bereziko egoeran dauden familiak artatzeko.
Irungo Udala	- "Kirolarekin zubiak eraikiz", Laboral Kutxarekin eta Bidasoa Atletiko Taldearekin lankidetzan, kirolaren bitartez (lasterketak, atletismoa...) erabiltzaileak ingurune komunitarioan integra daitezen sustatzeko proiektua.
Leioako Udala	- Osasunazten zerbitzu pertsonalizatua, nolabaiteko dibertsitate funtzionala duten eta/edo bazterkeria-arriskuko egoeran dauden pertsonen baldintza fisikoak eta mentala hobetzera bideratuta dagoena. - Jarduera fisikoa sustatzeko eta egoneko bizitza-estiloa murrizteko orientazio-zerbitzua.

- Etxelagun, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako proiektu berritzailea; norbere buruaren zainketarako eta elkarrekiko zainketarako espazioa.

26. helburua. Herritarrak Lurraldeko pobrezia, desberdinkeria eta gizarte-bazterkeriako egoeren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko aukera emango duten ekintzak bultzatzea

Bilboko Udala	- Gazteek etxegabeen gaueko zenbaketetan parte har dezaten sustatzea, sentsibilizazio-helburuekin.
Hernaniko Udala	- Komunitatea sentsibilizatzeko kanpaina, gizarteratze-zentroa martxan jarri aurretik.
Leioako Udala	- SolidaridUP proiektua, zaurgarritasun-egoeran dauden Leioako pertsonen gizarteratzea, duintasuna eta ongizatea bultzatzen duena, hainbat eragile eta hurbileko elkartasunarekin konprometitu dauden herritarrak inplikatu.

27. helburua. Erabiltzaileek zerbitzuen kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten sustatzea

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila	- Gizarteratze-zerbitzuei eta zerbitzu horiek erabiltzaileen askotariko premiei ematen dieten erantzunari buruzko kontsulta parte-hartzailea, EAPNrekiko lankidetzaren bitartez.
Bilboko Udala	- Udal baliabideen erabiltzaile diren etxegabeen parte-hartzea sustatzeko jarduerak.
Portugaleteko Udala	- Portugaleteko Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaren ebaluazioa eta diagnostikoa - Haur eta Nerabeen Plana egiteko diagnostikoak.

28. helburua. Herritar guztiek gizarte-politiken diseinuan parte har dezaten bultzatzea

Barakaldoko Udala	- Barakaldoko bizilagunen ongizate sozial eta emozionaleko baldintzei buruzko kontraste kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko prozesu parte-hartzailea.
Erandioko Udala	- Aurrekontu parte-hartzaileak lantzeko prozesua.
Irungo Udala	- Adineko pertsonen Irungo auzoetan parte har dezaten sustatzeko zerbitzu berria. - Irun Lagunkoia programa.
Portugaleteko Udala	- "Harlauzoriak", Portugaleteko Haurren Kontseilua; Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseilua; Herrian Boluntariotza Sustatzeko Aholku Batzordea; Portugaleteko Hirigune Historikoko Batzorde Informatzaile Berezia; Adineko Pertsonen Kontseilua; Autonomia Sustatzeko San Roke Zentroaren Kontseilua; Berdintasun Batzorde Mistoa - Arriskuan dauden Hurrei Arreta emateko Tokiko Mahaia; Kirolaren Udal Mahaia; eta Merkataritza eta Turismo Mahaia - Adinekoekiko Udalerrri Lagunkoia talde eragilea; Bidezko Merkataritzaren aldeko Portugaleteko Talde eragilea; Belaunaldi Arteko Lan-taldea - Gazteen aurrekontu parte-hartzaileetarako prozesua (2025)

29. helburua. Jarrera diskriminatzaile guztiak prebenitzea eta haiei aurre egitea (adinkeria, arrazakeria, xenofobia, islamofobia, aporofobia...)

Arreta Soziosanitarioko zuzendaritza, EJ	- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonekin lotutako estigmaren aurkako Estrategia hedatzea, eta hura bultzatzeko plan operatiboa garatzea.
---	---

Eibarko Udala	- Gorrotoarekin lotuta sor litezkeen intzidenteen jarraipena egitea eta beste sail batzuekin koordinatzeko bideak ezartzea (Berdintasuna, Udaltzaingoa, Zerbitzuak), gorroto-ekintzen aurrean (arrazakeria, ijitoak, LGTBI) jarduteko udal protokolo berritik abiatuta - Sentsibilizazio-kanpainak egitea eta informazio-materiala banatzea.
Erandioko Udala	- Immigrazio Plana egitea (2026)
Irungo Udala	- Urrutitik eskutitzak idatzita lagun egiteko programa. - Berdintasuna sustatzeko LGTBI+ sentsibilizazio-ekintzak. - LGTBIQ+ eskubideen diagnostikoa, Irungo kolektiboaren errealitatea eza-gutzeko.
Portugaleteko Udala	- Loturak Emakumeok, migratzaileen prozesuetan laguntzeko eta hausnar-tzeko programa - Belaunaldi arteko jardunaldia apirilean eta urrian, belaunaldi arteko bidezko merkataritzako tailerrak eta jokoaren inguruko belaunaldi arteko jardunaldia - Bidatzena Portugaleteko emakume guztien etxearen ekintzak - 20-30 Berdintasun Estrategiako jarduketak - Kultura arteko bizikidetzarako eta gatazken kudeaketa positiborako programa - Ziberbizikidetzaren aniztasunean. Ziberbullyinga eta Interneteko gorroto-deli-tuak prebenitzea. Zibermanagerrak. - Portugalete anitza. LGTBI+fobiaren aurkako kanpaina

5. ARDATZA INKLUSIO-POLITIKAK LURRALDEKOTZEA

30. helburua. Bazterkeriaren arazoari heltzeko, koordinatzeko eta prebenitzeko toki eta eskualde mailako mekanismoak bultzatzea

Arreta Soziosanitarioko zu-zendaritza, EJ	- Tokiko, eskualdeko eta/edo lurraldeko prebentzio soziosanitarioa garatzeko lankidetzara, premia soziosanitarioko kasuak prebenitzera, sentsibilizatzera, identifikatzera eta horietan esku hartzera bideratutako proiektu estrategikoak bultzatuta.
Hernaniko Udala	- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin adostutako arreta-eredu bat diseinatzea, lehen mailako eta bigarren mailako arreten arteko arrakala gainditzeko.
Leioako Udala	- Gizarteratze-sistemen arteko koordinaziorako Tokiko Mahaian parte hartzea.
Portugaleteko Udala	- Portugaleteko Gizarteratze-sistemen arteko Koordinaziorako Mahaiaren funtzionamendua.

31. helburua. Herritar guztientzako Hirirako Eskubidea finkatzeko bidean aurrera egitea, Euskadin hirigintza-berroneratze integraleko Hiri Agenda bat bultzatuta, auzo eta eremu zaurgarrietara bideratuta eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko helburuz

Erandioko Udala	- Erandio, adineko pertsonetik hiri lagunkoia; Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, eta tokiko osasun-sarea.
Portugaleteko Udala	- Portugaleteko hiri-mugikortasun jasangarriko plana (HMJP) onestea - Bizikletaren erabilerari buruzko diagnostikoa, eta udalerrian bizikletaren erabilera bultzatzeko plana - Adineko Pertsonetik Hiri Lagunkoia Bigarren Plana egitea

5. ARDATZA INKLUSIO-POLITIKAK LURRALDEKOTZEA

32. helburua. Euskadiko garraio publikoko sarea baliatzeko aukera erraztea, batez ere zaugarritasun sozialeko egoeran dauden kolektiboen artean

Erandioko Udala

- Hiriarteko autobusa, herrigunetik aldenduen dauden auzoetara iristeko modua errazteko.

6. AURREKONTUAREN BALIOESPENA

6.1. POLITIKA ERAGILEAK

Politika eragileak egiturazkoak izanik, zaila da horietako bakoitzaren aurrekontuaren balioespen xehatua egitea plan operatiboa indarrean egongo den bi urteetan. Zailtasun horien arrazoiak hainbat dira, hala nola estrategia batzuk orientatzaileak edo kontzeptualak dira funtsean; beste batzuk, berriz, diseinu-fase hasiberri batean daude.

Nolanahi ere, bildutako informazioa islatzen duen ondorengo koadroan erakusten den bezala, aurreikusitako aurrekontu-partidak 716.144.892 eurokoak dira 2025erako, eta 96.148.000 eurokoak 2026rako.

AURREKONTUA	2025	2026
Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legea hedatzen amaitzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	599.600.000 €	
Inklusioaren arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa zabalitzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	1.005.219 €	
Inklusiorako Etika sustatzeko estrategia bat antolatzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>		20.000 €
Lanerako trebakuntza-eredua <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	300.000 €	500.000 €
Langileentzako enplegurako pizgarrien sistema birdiseinatzea <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	40.000.000 €	40.000.000 €
Talentu-aniztasuna enpresetan txertatzea, etorkinak gizarteratu eta laneratzeko ibilbideen bitartez <i>Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila</i>	4.046.593 €	6.670.000 €
Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko neurriak: Kontzilia Komunitatea eta Kontziliaziorako laguntzak <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	28.068.080 €	258.000 €
Haur Bermearen Euskal Estrategia 2030 <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	300.000 €	300.000 €
Desgaitasuna duten pertsonentzako bizimodu independenterako eredua <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	70.000 €	70.000 €
Etterik Gabeko Pertsonentzako II. Euskal Estrategia hedatzea <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	395.000 €	
Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eredu berria <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	41.500.000 €	41.500.000 €
Harreragune: Etorkinei eta errefuxiatuei gizarteratzen laguntzeko zerbitzua <i>Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila</i>	800.000 €	800.000 €
Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzeta eta finantzazioa, Etxebizitzaren Aldeko 2022-2026 aldirako Itun Sozialaren esparruan <i>Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila</i>		6.000.000 €
Aukerak: presoei orientazio espezializatua emateko sistema <i>Justizia eta Giza Eskubideen Saila</i>	30.000 €	30.000 €
Arreta Soziosanitarioko Euskadiko 2025-2030 aldirako Estrategia <i>Osasun Saila</i>		
Osasun Mentaleko Estrategia garatzea <i>Osasun Saila</i>		
TOTAL	716.144.892 €	96.148.000 €

6.2. GIZARTERATZE-PROGRAMA ESPERIMENTALAK

Plan operatiboa osatzen duten 14 proiektu esperimentalen kasuan, ondorengo koadroak erakusten du proiektu guztien aurrekontu osoa 2.362.323,76 eurokoa dela 2025erako. Inklusio Zuzendaritzak finantzatutako 10 proiektuen kasuan, bideratutako aurrekontu-partida 1.049.561,98 eurokoa da, hau da, proiektu horien guztizko aurrekontuaren % 65,65. Partida horrek 2025eko ekitaldia soilik estaltzen du.

Bestalde, 2026rako aurreikusitako partidak –1.936.807 €– Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak proiektu esperimentaletarako –1.250.000€– aurreikusitako inbertsioaren parte proportzionala zein II. Plan operatibotik kanpora finantzatutako proiektuen aurrekontua –686.806 €– jasotzen ditu.

AURREKONTUA	2025	2026
Aurkigune, Aktibazio Soziokomunitarioko zentroak*		
Bizitegi elkarteak – Zubietxe elkarteak	140.000 €	-
Kontzilia, kontziliazioan laguntza behar duten gurasoen inklusio sozialerako espazioa*		
Gasteizko Udala	285.000 €	-
Nomada, etxegabeen eta bazterkeria-egoeran dauden pertsonen jaialdia		
*Emaus Fundazio Soziala	156.745 €	-
Elkarrekin gehiago gara: emakume etorkinentzako ekintzailatza-haztegia *		
Abarka GGKE- REAS Euskadi	173.756 €	-
Adimen-desgaitasun funtzionala duten artista plastikoen gizarteratzea eta lanbideratzea*		
Nahiarte Factory	148.940 €	-
Gaixotasun mentalaren eta adikzioen arreta pertsonalizatuko prozesu soziosanitarioen arteko konexioa*		
Fundación Etorikintza	86.191 €	-
Itsaslar Capacita: bazterkeria-egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea lehenengo sektorean*		
Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioa	59.990 €	-
Aniztasun funtzionala eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonen Bizimodu Independentea sustatzeko Bulegoa		
Arabako Foru Aldundia	71.204 €	106.807 €
Bazterkeria-egoeran dauden emakumeak gizarteratzeko eta lanbideratzeko prozesuak – Zaindu, Saiatu eta Landu*		
Sartu Federazioa	230.725 €	-
Enplegu Inklusiborako Proiektu Integrala: UBA Aterpetxe-Eskola*		
Donostiako Udala	107.784 €	-
Sendiko, zaurgarritasun-maila handiko egoeran dauden familiekin arlo sozioedukatiboan eta/edo psikoso-zialean esku-hartzeko proiektu pilotua		
Bizkaiko Foru Aldundia	120.000 €	120.000 €
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten etorkinak erregularizatzeko eta gizarteratzeko ibilbideen W+ proiektua		
Enplegu eta Inklusioko sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza	457.022 €	-
Etxebizitza publikoak kudeatzeko eta maizterrei arreta emateko zerbitzua		
Alokabide. Eusko Jaurlaritza	115.000 €	460.000 €
Familia gurasobakarrak gizarteratzeko eta lanbideratzeko zerbitzua: Emakumeak Sarean Indartuz*		
Margotu elkarteak	209.967 €	-
2026rako aurrekontu-aurreikuspena²		1.250.000 €
GUZTIRA	2.362.324 €	1.936.807 €

* Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Inklusio Zuzendaritzak (ko) finantzatutako proiektuak.

² 2026ko ekitaldirako, 2.500.000 euroko inbertsioa aurreikusten da, inklusioko proiektu esperimentalen eta ibilbide mistoko proiektuen artean banatu beharko direnak, oraindik ezarri gabe dagoen proportzioan; ondorioz, aurrekontu honetarako, atal bakoitzari % 50 esleitu zaio.

6.3. INKLUSIOKO IBILBIDE MISTOAK

Jarraian, 2025eko iraila eta 2026ko abuztua bitartean gauzatu asmo dauden inklusio ibilbide mistoko zortzi proiektu esperimentalen aurrekontua xehatzen da. Proiektu guztien artean, 861.402 euroko aurrekontua dute, 12 hilabeteetarako.

Horri gehitu behar zaio Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 2026ko ekitaldirako inklusioko proiektu esperimenterako eta ibilbide mistoetarako aurreikusitako inbertsioaren zati proportzionala –% 50–.

AURREKONTUA	2025	2026
KUTSUAK: Gizarteratze- eta lanbideratze-prozesuen lankidetzaz bidezko garapena osasun mentalaren arloan	58.128 €	14.532 €
Empleando.Nos	53.568 €	13.392 €
Bilvi: Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako inklusio-mahaia	48.444 €	12.111 €
Emaukera Araba	59.969 €	14.992 €
Gizakia: Lan-bazterkeriako arriskua eta adikzioak dituzten pertsonentzako ibilbide mistoen proiektu pilotua	79.871 €	19.968 €
Elkar Hobetzen: familia gurasobakarren zenbait kasuren gizarte- eta lan-arloetako inklusioa hobetzea	45.422 €	11.356 €
Batzen: haurren eta nerabeen babeserako sistemako gizarte- eta lan-arloko laguntasun espezializatua gazteentzat	233.651 €	58.413 €
Jarraipeneko eta Laguntzako Lantaldeak (JLL)	110.068 €	27.517 €
2026rako aurrekontu-aurreikuspena ³		1.250.000 €
GUZTIRA	689.122 €	1.422.280 €

³ 2026ko ekitaldirako, 2.500.000 euroko inbertsioa aurreikusten da, inklusioko proiektu esperimentalen eta ibilbide mistoko proiektuen artean banatu beharko direnak, oraindik ezarri gabe dagoen proportzioan; ondorioz, aurrekontu honetarako, atal bakoitzari % 50 esleitu zaio.

6.4. ALDAKUNTZARAKO JARDUKETAK

Aldakuntzarako jarduketa guztien balioespen ekonomikoa egitea zaila da kasu honetan ere, ez baitira jaso jarduketa guztietarako aurrekontuak, ezta urte bakoitzerako ere (nahiz eta gabezia hori askoz nabarmenagoa den 2026ko ekitaldirako).

Edonola ere, ondorengo koadroak jarduketen aurrekontu-balioespena laburbiltzen du ardatzen arabera multzokatuta, kontuan izanda, aipatutako hutsuneak tarteko, gutxienekoen balioespena besterik ez dela. 2025. urterako, 152.024.328 euroko gutxieneko baliodun jarduketak aurreikusten dira, eta 184.631.156 eurokoak 2026rako.

AURREKONTUA	2025	2026
1. ARDATZA. Herritartasun-eskubideak baliatzeko aukera	108.846.015 €	139.543.114 €
2. ARDATZA. Desberdinkeria-arrakalak murriztea	42.343.894 €	44.622.832 €
3. ARDATZA. Berrikuntza, antolamendua eta gobernantza	234.745 €	100.000 €
4. ARDATZA. Parte-hartzea, aktibazioa eta sentsibilizazioa	473.481 €	255.050 €
5. ARDATZA. Inklusio-politikak lurraldeketzea	126.192 €	110.160 €
GUZTIRA	152.024.328 €	184.631.156 €

6.5. AURREKONTUAREN BALIOESPEN GLOBALA

Plan operatiboko jarduketa-ardatz guztietarako aurrekontu-balioespen globala 871.560.666 eurokoa da 2025eko ekitaldian, eta 284.138.243 eurokoa 2026rako.

AURREKONTUA	2025	2026
POLITIKA ERAGILEAK	716.144.892 €	96.148.000 €
INKLUSIORAKO PROIEKTU ESPERIMENTALAK	2.362.324 €	1.936.807 €
INKLUSIOKO IBILBIDE MISTOAK	689.122 €	1.422.280 €
ALDAKUNTZARAKO JARDUKETAK	152.024.328 €	184.631.156 €
GUZTIRA	871.560.666 €	284.138.243 €

Nolanahi ere, garrantzitsua da gogoraraztea plan operatiboak eragileztat, esperimentaltzat edo hobekuntzako neurritzat jo direnak jasotzen dituela eta, beraz, ez dela jasotzen gizarteratze-politika guztiak gauzatzeak duen kostua; horren kuantifikazioa jaso zen Inklusioko V. Plan honen esparru estrategikoan.

7. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Inklusiorako V. Euskal Planak, 5. kapituluari, ezartzen du Eusko Jaurlaritzako egungo Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila eta Gizarte-inklusioko Erakunde Arteko Batzordea direla Plana ebaluatzen, haren jarraipena egiteko eta hura gobernatzen duten organismoak. Esparru horretan, Planaren gobernantzarako, jarraipenerako eta ebaluaziorako ondorengo tresnak planteatzen dira:

a) Jarraipen Batzordea

Jarraipen Batzorde bat ezartzea aurreikusten da, V. Planaren eta dagozkion bi urtez behingo plan operatiboen gobernantzarako eta jarraipenerako funtsezko elementu gisa. Ondorengo organoetako bakoitzeko ordezkariak gutxienez osatuko dute batzordea:

- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Inklusio Zuzendaritza.
- Idazkaritza teknikoa, Plana egiteko eta jarraipenerako zereginetan laguntzeaz arduratuko dena.
- Bestalde, urtarilaren 23ko 5/2024 Dekretuak arautzen duen Inklusiorako Erakunde Arteko Batzordearen eginkizunetako bat da Inklusiorako Euskal Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle bateragarrien koadro bat definitzea, modu koordinatuan.

Jarraipen Batzordearen funtsezko eginkizunak izango dira lan- eta hausnarketa-espazio bat eratzea, zeinetan Planaren ezarpen-mailan lortutako aurrerapenaren, jarraipenaren eta emaitza nagusien berri emango den, eta plana hedatzeko egin beharreko urratsak kontrastatzea, betiere ezarritako neurrien eta programen koordinazioa bermatuz. Jarraipen Batzorde hori aldezka elkartuko da, ondorengo helburuekin:

- Eskudun erakundeek aurreikusitako politika, programa eta jarduketek dagokienez bidalitako informazioa ematea, gainbegiratzea eta baliozkotzea.
- Jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak eta dagozkion txostenak gainbegiratzea.
- Hala badagokio, ekintza berriak proposatzea, batez ere disfuntzioak detektatzen diren arloetan.

b) Aginte-koadroa

Jarraipen Batzordeak aginte-koadro bat izango du bere eginkizunak betetzeko; aginte-koadro hori inklusio-planen jarraipenerako eta ebaluaziorako lanen garapen sistematikorako funtsezko tresna da.

Idazkaritza Teknikoa arduratuko da aginte-koadroa diseinatzeaz eta eguneratuta edukitzeaz; helburu bikoitza du: bazterketa- eta inklusio-egoeren eraldaketaren monitorizazioa sistematizatzea, batetik, eta inklusioko jarduketaren eta politiken betetze-mailaren jarraipena egiten laguntzea, bestetik. Bi helburu horiei erantzuteko helburuz, bi adierazle-sistema bereizitan antolatzen da aginte-koadroa:

- o Bazterkeriari, pobrezari eta desberdinkerari buruzko testuinguru-adierazleak, biztanleriaren premien eta bazterkeriarekin lotutako politiken irismenaren bilakaera analizatzeko aukera ematen dutenak. Haien eginkizuna da Inklusiorako V. Planaren aurreikusten diren helburuetan, emaitzetan eta orientazioetan lortu diren aurrerapenen balorazioa egiteko eta, hala badagokio, horiek birbideratzeko informazioa eskaintzea. Bi urtean behin eguneratuko da aginte-koadro hori.
- o Plan operatiboan aurreikusitako jarduketaren eta proiektu esperimentalen egikaritzeari eta emaitzei dagozkien adierazleak. Aginte-koadro horretan, aurrekontu-egikaritzeari buruzko adierazleak eta prozesuaren eta emaitzen informazioa jasotzen dira. Informazio hori urtero eguneratuko da.

c) Jarraipen- eta ebaluazio-txostenak

2025eko eta 2026eko ekitaldiei dagozkien urteko jarraipen-txostenak egitea aurreikusten da.

Txosten horien helburua da plan operatiboetan proposatzen diren politika eragile, programa esperimental eta ekintza guztien egikaritze-maila ezagutzea, eta haien ezarpenean ikusi diren zailtasunak eta balizko desbideratzeak detektatzea, dagozkion neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko. Jarraipen-zeregin horietarako funtsezko tresnak izango dira aurreko puntuan deskribatutako agente-koadroak. Jarraipen-txostenek gutxienez ondorengo edukiak izango dituzte:

- Aurreikusitako jarduketetan, politika eragileetan, programa esperimentaletan eta ibilbide mistoetan garatutako aurrerapen nagusiak deskribatuko dituen laburpena, eta behar beste garatzen ari ez diren identifikazioa.
- Egikaritze-adierazleen eta emaitzen agente-koadroaren betetze-maila.

2026ko jarraipen-txostena II. Plan operatibo honen indarraldia amaitzen denean egingo da, V. Planaren amai-erako ebaluazioaren aldi berean. Kasu honetan, inplikaturako erakundeei zuzendutako informazio-eskaera ez bikoizteko irizpideari jarraituz, bi txostenak bateratzea aurreikusten da eta, horrenbestez, ondorengo elementuak gehituko zaizkio ohiko jarraipen-prozesuari:

- Euskal biztanleriaren bazterkeriari, pobrezari eta desberdinkerari buruzko testuinguru-adierazleen eguneraketa eta interpretazioa, Planak hartzen dituen arloei dagokienez (enplegua, diru-sarrerak, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etab.).
- V. Planean aurreikusitako helburuen eta emaitzen lorpen-mailaren balorazioa.
- Inplikaturako erakundeei eta/edo erabiltzaileek parte hartzeko mekanismoak aktibatzea, inklusiorako politikiei eta jarduketei dagokienez duten pertzepzioa biltzeko.

Txosten horiek Jarraipen Batzordean aztertu eta eztabaidatuko dira, bai eta Gizarte-inklusioko Euskal Kontseiluan eta Inklusioko Erakunde Arteko Batzordean ere.

Ondorengo koadroak V. Planaren eta II. plan operatibo honen jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako txostenen kronograma laburbiltzen du:

	Txostena	Entrega-epea
Inklusiorako II. Plan Operatiboa. 2025-2026	2025eko jarraipen-txostena	2026ko otsaila
	2026ko jarraipen-txostena	
Inklusiorako V. Plana. 2022-2026	Amaierako ebaluazio-txostena	2027ko otsaila

Eskerrak

Inklusiorako II. Plan Operatiboa (2025-2026) ondorengo herri administrazioek egindako ekarpenetan oinarrituta eraiki da. Aitortzen dugu haien lana eta eskerrak eman nahi dizkiegu:

Eusko Jaurlaritza

- Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila.
- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila.
- Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.
- Osasun Saila.
- Justizia eta Giza Eskubideen Saila.
- Hezkuntza Departamentua.

Foru Aldundiak

- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.

Udalak

- Barakaldoko Udala.
- Bilboko Udala.
- Eibarko Udala.
- Erandioko Udala.
- Hernaniko Udala.
- Irungo Udala.
- Leioako Udala.
- Portugaleteko Udala.
- Zarauzko Udala.